Erref. kodea: LAF-207-068

Izenburua: Piarres Lafittek kopiatutako pastoralak



de Pampelune. Un trav
iskera, langue de civilisation voisine
» de José María de Olaizola et des
historia del deporte vasco » de J. L.
photos illustrent ces fascicules parmi
du « Bilbao iconográfico » présente un

1275

Archex

La tragedie de Mustafa.

Le 3 Juin de 1843.

Koleratwik jarten da
Desnaturzatu ~~bat~~ bi zeala. (ó biat?)

Massimisa da lehenik
~~Doleauxeki~~(1) espousaturen (1) Dorleauxeki
Eta hanti landan
Klaudieusek gerla deklaraturen.

Gerla hartara denian
Klaudieus konparitu
Konbatian sar bezan sarri
Lehar ukhenen du errendatu.

Konbat hartan zen
Zeluko gizonak premetitu
Errege ~~idollatze~~(1) houra (1) Idollatu
Izan ledin konbertitu.

Bere idollatria oro
Ukhen zien renonziatu
Eta Aita Saintiaren eskutiz
Batheia rezebitu.

Batheinzko fontzione hori
Eztugu representaturen
Bena gainelatiko artikuluietarik
Guti zaiku baraturen,

Noula Klaudieus eta Massimisa
Katollik errendatu beitzieu
Bere aita embasadore batez
Felizitatu ukhen zien.



Eta noula general beita
Tradizionia mundian
Bere seme eta alabak
Trabitu ukhen zutien.

Bataillа biolentik izan zen
Brroumako hiri handian
Neron Lombardiako errege
eta Enperadoriaren artian.

Enfin raport houra
Italia guzian zen hedatu
Zointan armadak beitziradien
Hirour lekhutarat repartitu.

Charles Franziako Errege
Bere armadarekin
Valenzoun kanpatu izan zen
Klaudieus eta Massimisarekin.

Gerla zibilak izan ziren
Errege hairn artian
Eta Khiristiak bethi
Burutan jou... zirad...

...zkhandia izan zen
Errege magizien batez sokhorritu
Zointan persarik beitzen
Palazionala presentatu.

Errege haren bere magia
Zounbatian zien exerzatzen

zointan franzesak beituitken
oroxuti inkantaeraztén.

aita Saintia, Co^a^ eta ap^a^
Turkiarat eraman zutian
Baietare preson ezari
Floridako hirian.

Errege Krudel haiek
Tratatu zutien mourtalki
Gosia eta egarriareki
Presontegian etxeki.

Bena Kausaren Kaunsekezia
Sueita dezadan aitzina
askida zien atinzioniaren
arrabervitzia.

martirioua hasi zien
Lehenik Bordeaux dukian
arran bizirik armetan
Errezagi ~~[illegible]~~ ukhen zian.

Klaudeius eta massimisa aldiz
kuba batetan barnen
Egredientez betha eta
Bizirik heraki erazi zutien

olio, phike, errezina eta sofre
Konposaturik algarreki
Hartan heraki erazi zutien
Krudelitat handireki



Bena haiek martirio hourak
Gogo hounez zutien sofritu
Eta laidoriozko Kantioak
Jinkouari adresatu.

ainguriak zelutik eraixirik
Presointegian zutien bisitatu
Bere plagetarik sendotzen
Eta perseberatzen laguntu.

aragiak burduiña orrazez
Khorpitzeti khenturik
Bena hourak berthutian egon
Bethiere segurtaturik.

Ikhousirik martirio harek
Etzutiella inkietatzen
Phikadez batetan gaiñen
Buriak deitze trankaturen.

Egun edireitén dirade
Justoki rekompenxaturik
Eta gloriazko Khorouak
Zelian rezebiturik.

Errege haien inpietatiak
araux etzien parerik
Nimora andere aurena ezari zien
Lurpian bizirik.

Istoriaren ororen explikatuko
Eztut orai aski dembora

Bena representazioniaren egiteko
Banouan lagunen xerkara.

Kongit hartzen deiziet
Populu admiragarria
Othoitzen zutiet memento bat
Etzitaiella debeia.

Jalki Farvieñas, Tourdeban, Roquefort, Fleutor, Torgot, Bhllamon, Marcellus, Neron, Klaudieus, eta Mustafa. Laur Erregiak jar.

Mustafa mintza

Jaunak beha zite, presentian
Behar dugu egin Kongertu
Phenxatu bat dut bihotzian
Eta nahi deiziet deklaratu.

Badakizie lei Julas
Erroman dela aita Saintu
Eta haren destronatzera
Ukhen dut deliberatu.

Eta zuek ere Jaunak
Behar naizie laguntu
Koki houra behar dugu
Orourn artian akazatu.

Aren templiak oro
Memento batez destruitu



Eta gero hayen plazan
Gouriak foundatu.

Klaudieus mintza

Bolakifet papa
Ounx duzu phenxatu
Behar dirozugu mementian
Orok gerla deklaratu.

Bagutuzu ezinago triomfantik
Heben laur Errege
Garhait beikinizo gerlaz
Mundu guzia ere.

Ni ja erriaz erraitera
Zoure deseiñeko nuzu
Beste hoyen berri ere
Sarri jakinen dizugu.

Allo Jaunak arren
Orai mintza zitaie
Zien deseiña nouk den
Jakin dezagun guk ere.

Neron mintza

Klaudieus zien deseiña
Ezinago houn duzu
Burduiña bero deno
Behar dizu truKatu.

Denborarik galdu gabe
Behar dizugu phartitu
Eta Erroumako hiria
Istant batez destruitu.

Erroumako hiria eta
Italik guzia
orotan foundatzen dugularik
Gourre religionia.

Marcellus orai zuere
mintza zite aitzina
Jakin dezagun noula den
Zourre sendimentia,

## Marcellus mintza

Jaunak zien Konxeilliaz
Kountent niz segurki
Zeren eta perfeit dela
Ikhousten beitut osoki.

Behar dugu arren bertan
Enbasadore bat igorri
Denborarik galdu gabe
aita Saintu pretenditu hari.

Bere tenpliak oro
Erremeti ditzan gourre eskietara
Ezi bestela gerlaz
Gal eraziren dugula.



## Mustafa mintza

Marzellus ene adiskidia
ounxa mintzo zirade
Eta orotzaz segurki
Feitian zirade.

Farvius behar duk
Letera bat izkiribatu
Eta gero Erroumarat
Mementian phartitu.

Jar adi arren orai
Kaidera hortan gaiñen
Eta has adi gero
Berhala izkiribatzen.

Behar duk arren ezari
orai letera hortan
Noula laur Errege
Juntatzen girá dien.

Eta laurek deriogula
Botz batez igorten
has dadin berhalla
Bere reflekzionen egiten.

Behar diela erremetitu
Bertan gourre eskietara
Ezi bestella gerlaz
Gal eraztén dugula.

Haren religionia orö
Nahi dugula gal erazi
Eta bera aldiz
Bizirik erraerazi.

Hiriko giltzen erremetitzera
Giten egpata Turkiara
Laur Erregek gerla
Deklaratzen deriogula.

Orai arren Farviens
Plega ezak letera
Eta ziek aldiz Jaunak lehen
Huillant zitaie siñatzera.

Laur Erregiak sina. Farviens jaikirik mintza

adio Erregé handiak
Orai niz arren phartitzen
ahalaz laburski niz
zerbait berrirekin utzulizen.

Farviens pasea. Bestiak retira. Jalki Julas bera jar. Soné.

Favieus mintza

Salutatzen zutut Julas
Thuroi handiaren parthez
Odre emanditadazu
Egun zoure mintzazez



Laur Erregek nizie
Zoure gana igorten
Has zitian mementian
Zoure reflekzionen egiten.

Zoin beitirade hourak
Mustafa eta Klaudieus
Besti biak aldiz
Neron eta Marzellus.

Zoure religionia orö
Nahi diela galerazi
Eta zihaur aldiz
Bizirik erraerazi.

Hiriko giltzen remetitzera
Giten ezpazira Turkiara
Laur Erregek gerla
Deklaratzen deiziella.

Laur Erregen sinetak
Letera hontan dutuzu
Zihaurek har eta
Izakouz ezazu.

Aita Saintia jar eta izakouz letera.

Julas mintza

Favieus Erregé hayer
Erran behar deriezu
Daigun hirour hilabetiak

Galtatzen deitzedala ~~Thermaguen~~ thermañu

Behar dudala ene susmiseki
Lehenik egin kontzertu
Eta gero ordian
Emanen deredala raportu.

Othoitzen dutudala graziaz
Eztitan debeya
Thermañu haren burian
Giten nizala Turkiara.

Banouazu orai terian
Zounbaitén mintzatera
Zu ere jouan zite arren
Zoure Errregen etxiritera.

Julas retira, bestia paseia. Mustafa bere laguneki jalki. Soné. Erregiak jar.

## Favieus mintza

Sira houna nuzu
Erroumara izanik
Eta Julasi zoure meziak
Oro deskargaturik.

Orori deizüe orai
Enekila igortén
Eta hirour hilabetéren
Thermañu galthatzen



Behar diela bere susmiseki
~~Sok~~ Lehenik egin kontzertu
Eta gero ordian
Emanen deiziella raportu.

Favieus herrokala. Mustafa mintza

Jaunak zer uduri zaizie
Errregehitu dugun meziaz
Eniz hanbat kontent
Julasen arrapostiaz.

Zerbait fripounera
Jauki nahi ahal deriku
Hartakoz bere susmiseki
Nahi da konxultatu.

Bena Jaunak zien
Abis hobia saltu
Behar dugu mementian
Erroumarako preparatu.

## Claudieus mintza

Papa zoure deseiña
Seguraki houn duzu
Bai etare nesesari
Izan dadin exekutatu.

Behar dugu mementian
Ekipagia prestatu

Exergizionak eragin eta
Gentia instruitu.

Amourekati izan gitian
Oro odre hounian
Eta Erroumako habitanter
Buhurtzeko gratian.

Gaiza segurada lei
Zerbait finagia jaukiren diela
Eta bere egin ahal oroz
Defendaturen diela.

Bena haboro egon gabe
Dezagun egin deligentzia
Eta har mementian
Erroumarako bidia.

## Neron mintza

Klaudius ni ere arren
Zien desiriñeko nuzu
Eta zien Konxeilliaz
Ezinago kountén nuzu.

Julas pretenditu houra
Behar dizugu ataki
Bai eta destarratu
Erroumiako hiriti.

Khiristien legia oro
Galerazi behar dizugu



Bai eta haren plazan
Goure legia foundatu.

Marzellus orai zuk ere
Eman ezazu goure Konxillia
Jakin dizagun noula den
Zoure sentimentia.

## Marzellus mintza

Jaunak zien Konxeilliez
Ezinago niz Kountenterrenbatzen
Zeren osoki beitut
Kontentbli ezagutzen.

Denborarik galdu gabe
Behar dugu phartitu
Eta zortzi egunen buruko
Erromara arestitu.

Ezi eztu harek merexi
Thermaiñurik batere
Behar dugu degoillatu
Graziarik egin gabe.

Gitian orai jouan
aphur bat ripausatzera
buruen egitera eta
gentén prestatzera

## Ballamon mintza

O Erege ilusteiak
Oro puisantziaz bethiak
Zien izpiritiak dirade
Berthute oroz konplitiak.

Goure lege soberanoua
Zeren nahi duzien sustengatu
Desein horren sustengatzen
Nik ere nahi zutiet laguntu.

Ene furia handia
Roumanouer sendi erazi
Arran kountiatu guziak
Bizirik lahardegu.

Bena lehen beno lehen Sira
Behar ginikezu deligentziatu
Eta zien proposa
Bertan exekutatu

Favieus mintza

O Erege photerexiak
Mounarka infisibiliak
allagrantziaten ezarten nai
zien proposamentiak.

Ziek baduzie izpiritu
Ihoure ere beno haboro
Bai etare kapable
mundu guziaren akisitzeko.



Khiristi legiaa oro
Behar dizugu bauitu
Hanbatenaz gihauzena
Bethi omentatu.

Oro lege bakhoitz batetan
Izan gitian uinkurik
Goure jinkouen tenpliak
Trono batez gorakurik.

Lege soberano hartara
Susmetitzen eztiren guziak
oro izanen dituzu
kruelki gaztigatiak.

Hartakoz dezagun egin
bertan diligentzia
Gutzaz orhitu izan dadin
prosperitate guzia.

Tourdekan mintza

Sira zien desein hounez
Oro zutiet felizitatzen
allagrantziazko transport batez
Ene bihotzak duzu rejouitzen.

Laidatzen dut zien konduta
Borondate infinito batez
Zeren mintzatu ziradeien
Legen gaineko artikuliez.

Justo eta Konbenable da
Zien sendimentia
Baita nesesari
Izan Dadin exekutatia

Aita Saintia pretenditi houra
Behar dugu desterratu
Bere ~~Konkort~~ Konxort orozki
Erroumarik akazatu.

Gaiza segura da haiek
Eztiela desein hounik
Aperentzia falxu hortan
Ezkitiela bada troumpatzerik.

Ditzagun armadak prepara
Eta egin deligentzia
Ahalaz borthizki asieja
Erroumako hiria.

Roquefort mintza

Sira permeti ezadazu
Bi hitzez mintzatzia
Eman ahal dizadan
Ene sendimentia.

Julius Aita Saintia
Fabulaz dugu mintzatu
Eztizugu haren arraportian
Konfidanxa izirik behar hartu.



Benturaz zounbait tradizione
Jauki nahi diguzu
Susmetitzera jiten dilatan
Gouru horretan sarthu.

Hartakoz othoitzen zutut
Eztitiela batere flaka
Bena bai gentiaren instruitzez
Bertan egin deligentziak.

Gitian retira hebeti
Aphur bat reposatzera
Sarri gero jouaiteko
Erroumaren asiejatzera.

oro retira. Satanak jalki eta jouan kamarielara. Soné. Satan paseiuz mintza.

Behadi hounat aztarot
Egia bat erran nahi derat
Gouru egitekouen hatsarria
Ounxa jouaiten ikhousten diat.

Turk handiak egin dik konzertu
Bere Errege lagunekí
Eta Khiristi legiaren destruitzera
Desein hartu gogatí.

Haren phenxamentiak nik
Osoki kountentatu
Zintan plazeraren handiz

Bihotza betzait glorifikatu.

Hartakoz ene seitharik
Ukhen diat deliberatu
Ideia haren sustengatzen
Behar dudala lagundu.

Eta hik hain ounxa
behar nahik lagundu
Idolen uxamentia
Behar diezagu presentatu

Khiristi simpliak oro
Behar zitiagu illusitu
Eta ahal bezain fazilki
Idolen adoratzera obligatu.

Testamentuzko mirail bat
aitzinian dezagularik ezarten
Eta orano dembora berian
Begitara erhaux emaiten.

<u>Astarot mintzo</u>

Jauna zoure ahisaz
Osoki kontent nuzu
Eta egin ahalaren egitera
Gogo hounez obedient nuzu.

Egi khiristien ezetzian
Eztit deusere espraiñituren
Bena bai phenxa ahal



artifizionak oro jaukizen.

Rusa phenxatzeko
Eztitene parerik
Gutiago nigromantzienik
Ni garhaituren nayenik.

Beste orduz izan nundugun
Persa deitzen den hirian
Eta hanti gero berriz
Armeniarako aldian.

Irlandan eta Asian
Suisan eta Median
Eta orano habora
ankorako hirian.

Balgaron Jupiter eta Apolon
Haietan beitzutien adoratan
Eta ohorentzia handizki
Sakrifizio errendatzen.

Gero izan nundugun
Beste tour batén egitén
Khiristiak halitzen zizen
Harritz tresorimaren ikhoustén.

Haietan egin nizun
Baltentia inormerik
Hanitzek pacas eta
arrabage handirik.

Phutaneria generalago
Ihounera ezluzu prakikatu
Ez eta hainbeste
Desordre ere Kausatu.

Mithil gaztiak tarhanetan
Deslotxian zutuzum egoiten
Zointan igante egunak eta gaiak
Jokian beitzutien igaraiten.

Eta gero ~~…~~ arraxen
Neskatilen guiñelan gaiñen
Algarri ~~makila~~ makhila khaldaz
Buriak zitizun hausten.

Hayen ororen izenak
Bazitit izkiribuz harturik
Nounbre espantagarri bat
Baduzu arrolaturik.

Satan mintza

Ha ha ha ha
Ala plaza handia
osoki duk agradable
Hire abillitatia.

Enikeia sekulla erran
Haiñ mithil houna indiedala
Ez eta holako plazerik
Hik eginen zitadala.



Bena heben harat ere
Beharitzait ounxa zerbutxatu
Munduko Khiristiak oro
Behar zitiagu troumpatu.

Eta partikularki aldiz
Neskatiller lehenik
Zeren hourak beitira
Simpleziaz betherik

Plaza hortan berian
Balukek hanitx propirik
Eta segurki ezkountzeko
Gogatzen ehizik.

Bena horik oro
Orai hor utzirik
Hoke diagu hanitxez
Bertan retiraturik.

Retira. Jalki Lehieus, Honoreiñ, Sucient, Ro-
meiñ, Sabeiñ, Baronieus, Julas. 4 Jar.

Julas mintza

Jaunak behar dugu
Presentian egin Konsertu
Berri triste bat nahi deiziet
Orai explikatu.

Enbarasdoze bat ukhen du
Egun Turk handiggarik

Zoiñek ezari benai
osoki espantaturik.

Hiriko giltzen remetitzera
Jouaiten espaniz Turkiara
Laur erregek gerla
Deklaratzen deitadilla.

Khiristien religionia oro
Nahi diela gal eragi
Eta ni nihaur aldiz
Bizirik erraeragi.

Hirour hilabeteren thermaiña
4 Kheren deriet galthatu
Eta thermaiñu haren burian
Beharderet utzuli raposta.

Feit hortan gaiñen
Othoi mintza zitaye
Zien Konseillu hounez
Orai solosa negazie

## Baronieus mintza.

a mounarka illustria
Saintutarzunez bethia
Othoitzen zutuk graziaz
goiti ezazu korajia.

a kendel handiak



Hor egin nahi badie
Bortxaturen zitizie
Dama religiousak ere.

Bena zeluko Jinkouak
Balima eztizu permetituren
Maleur orrible hori
Haiek egin dazen.

Jinkouaren templu saintia
Izan badin profonaturik
Eta relika saintiak
Ber denboran destruiturik.

Behardizugu Khiristi resoumetarat
Sokhorri galthoua igorri
Eta orai lehenik
Franziako erregiari.

othoi jin bekigun
armada handibatekilla
Turk malerous hayen
Konte Kontatzera.

## Sabeiñ mintza

o mounarka inbinsibliak
Saintutarzunez bethia
Permeti ezadazu bi hitzez
Zoure majestatiari mintzatzia.

Nahi baita diradian Turkak
Desein gaistouez sasiturik
Jinkouaren probidentzian
Egon zite kaukilisaturik.

Bere Eliza Saintä
Eztizu ez abandenaturen
Bena bai haren sustengazaliak
Bethiere protejaturen.

Houla Turkiako armadak
Ezinago borthiz beitira
Zihauz ezkirade askhar (?)
Jouaiteko konparitzera.

Bena zuk Jaun Enperadoria
Ikhousten duzu importantzia
ocai behar deikuzu eman
Zoure sokhorri phartia.

Zoure armada gouriarëki
Plazer bazunu juntatu
Eta Turkin kontre
Kontatitzen laguntü.

Moyen harez oro
Biktorious gertha gintian
Religionia eta berthatia
Azkarki sustenga mundian.

Romeiñ mintzo



Monsegneur feit horek
Eztëizula phenarik
Eztit espraimituren
Ene photerian denetarik

Gogo hounez ene armada
Zieneki dut juntaturen
Bai eta noure buria
Gerlala disposaturen

Ene plazera duzu
Infidelëki kontatitzia
Jinko legen sustengatzez
Biziaren erriskatzia

Elliza Saintak berak
odre dikuzu emaiten
Bai eta Skriptura Saintari
Jarraikitzera manhatzen.

Artikullu horrez gutuzu
Oro instruiturik
Eta Jinkouaren manu saintien
obserbatzera obligaturik.

Hartakoz dezagun egin
oreik egin ahala
Iseiatzen girelarik borthizki
Religionearen sustengatzera.

Allo ene prinze maitiak

Mintza zitaye ziek ere
Zien sendimentiak noula diren
Jakin nahi nuTuke.

Eya baduzienez deseiñik
Religioniaren sustengatzeko
Eta Turk bazbaro hayen
Kontre Kombatitzeko.

## Lucieu mintza

Sira hitz horren entzutiak
osoki nizu suspremitzen
Eta deseiñik badugunez
Guzuzia galthatzen.

Dudarik eztuzula
Egiteko horrez batere
Zoure sendimentu berian
Edireiten gutuzu gu ere.

Eu gloria duzu
Khiristi legiaren sustengatzia
Eta fediaren etsayen
Kontre Kombatitzia.

Eu besoaren indarraren
Infidelen sendi eraztia
Eta haien idola falxien
Sekulakoz destruitzia.



Kombatian sarthu nahiz
Inpazient nuzu edireiten
Koïntan su batek bekerik
Eu Khorphitza erratzen.

## Honoreiñ mintza

Sira zoureganik zitadazu
O gaiza estranjia
Religioniaren sustengatzeko
Deseiñik badugunez erraitia.

Arramarki gutuzia errebel
orai artioko dembozan
Non abersione estranje hori
Hartu duzun bihotzian.

Phenxatzen ahal duzu lei
Zu bezaiñ ekharriak gicela
Khiristi legiaren sustengutan
Biziaren arriskatzera.

Ezi herioaren kreintak
Ezkitizu empexatuzen
Segur ginandian ordian
Biziak dutugula galduzen.

Gouze plazera duzu
Jinko legen sustengatzia
Infidel eta herétiek
orozen destruitzia.

## Lekieus mintza

Jaunak zien sendimentiak
Ezinago houn dirade
Hartako ber deseinekó
Edireitin niz ni ere.

Perfekzionia bera da
Ziekila edireitén
Hountarzun arraro ~~hak~~ harek dutu
Zien bihotzak okupatzén.

Bena Jaunak koraje
Eztugu behar loxatu
Baizik eta korajouski
Bethiere kountatitu.

Jinkoaren grazian
Behar dugu esparanxa ukhen
Goure behar ordietan
Gutiello faboritzen

## Julas mintza

Jaunak zien konxeillíek
Osoki naye kountentatzén
Ene bihotza rejouiturik
allegranziatan dic ezartin,

Franziako Erregeri
Behar deriozu izkiribatu



Amourekati izan gitian
Ahalaz bertan sokhorritu.

Sakiñ iphena hori arren
othoi behar dugu hartu
Lebieusi behar deriozu
Letera zuk ditatu.

## Sakiñ mintza.

Julas gogo hounez ere
Nik hori eginen dit
Ene egin ahalian segurki
Eztuzu izanen faltarik.

## Miahayna ekhar.

Lebeius behar duk
Letera bat izkiribatu
Eta gero Franziako
Erregeri presentatu.

## Lebeius jar

Behar duk arren orai
Letera hortan ezari
Laur Turk erregek
Noula deikien igorri.

Lebeiusek izkiriba. Sakiñ mintza

Khiristi religionia oro
Nahi diela gal erazi
Eta aldiz Aita Saintia
Bizirik erraerazi.

Othoitzen dugula graziaz
Jin dakigun sokhorritzera
Khiristi legiaren althe
Turker gerla emaitera.

Lebeius arren orai
Plega ezak letera
Eta gero Franziarat
phartiadi berhalla.

<u>Lebeius jaik eta mintza</u>.

Monseigneur banouazu
orai diligentziareki
ahalaz bertan nuzu
utzuliren arrapostiareki.

Lebieus pasaia. Bestiak retira. Soné.
Charles bera jalki eta par. <u>Lebieus mintza</u>.

Egun hour souhetatzen deizut
Franziako Erregia
Eta sallutatu dit heben
Zoure presentzia illustria.



Julas Aita Saintiak
Zouregana igorten nizu
Eta aphezkupiak
Bergisan manhatu nizu.

Emperadoriak eta Klergiak
orai egin dizie konsertu
Bena kausa zer den
Behar duzu konprenitu.

Khiristi religionia oro
Nahi diela galerazi
Eta Aita Saintia bera
Bizirik erraerazi.

Maleur orrible horren
Sukzezioneti libratzeko
Igorten nizie zoure gana
Zoure faboriaren galtho.

Othoitzen zutie graziaz
Jin zatkitzen sokhorritzera
Khiristi legiaren althe
Turker gerla egitera.

Letera hau eman ditazie
Zouri erakasteko
Hountan dutuzu kausak
Zihaurk konprenituren oro.

<u>Letera izakoiz Erregek. Charles mintza</u>

Lelieus errazu ezezu
Jaun hayen nikexi
Igorten deriedala
milla kargua gorainzi.

Eta lanouella mementian
Errebuen eragitera
Ene kipajiaren eta
Jenten prestatzera

Eta noiz ere beituket
Preparatu armada
Ginen nizala mementian
Hayer sokhorri emaitera.

Eta othoi eztitian
aphur bat debeia
Ezi ezrakharrizen dudalla
Katalier hounik euckila.

Lelieus paseia. Charles retira. Talki Rou.
manouak oro. <u>Lelieus mintza</u>.

monseigneur houna nuzu
Parisera izanik
Eta Charles Erregia
Han sallutaturik.

Igorten deizie eneki
milla karga gorainzi



Eta etzitayen loxa
Turk haiun desidiegati.

Bazouela mementian
Errebuen eragitera
Bere ekipajiaren eta
Genten prestatzera.

Eta othoi etzitayen
aphur bat debeia
Ezi erakharrizen diela
Katalier hounik terekilla.

<u>Julas mintza</u>

Hounki jin izala Lelieus
Gouree mesager maitia
Eta orano hobeki
Ekharten dia berria.

allo gitian orai
Istan bat retira
Gouazeni barnialat
aphur bat repausatzera.

oro retira. Jin zamariz hamar
Turkiak. <u>Mustafa eta Claudius batetan</u>

Nouniz Julas agerradi
aita Sainta pretenditia
Egun behar duk umilliatu
Edo eta galdu bizia.

Egun giten gutuk Tarkiarik
Houna laur Errege
Zointán Kapable leikizade
mundu ororen destenizale.

Neron etá marcellus batetán

Jalki adi jalki
Gouri oumaje egitera
Etá lurrian belharikaturik
Hiriallat rezebitzera.

Bestela gogoua eman ezak
ounxa duk maradikaturen
orr hiri etá jenteki
Sután aigu ezarizen.

Mustafa etá Claudius

Su etá flamatan
oro gutiegu ezarizen
Ezi egun eztiagu
Pietaterik ukhenen

Hire lagun ororeki
Ezpahiz umilliatzen
Egun Erroumarik aigu
odeietán gora airatizen.

Neron etá marcellus batetán

Gouri Kolerak dik egun
mundu oro espantatzen
Lurra ikharatzen etá
Hillak phitz erazitzen



Horti phenxa ezak ezi
Zoinñen gerrien handi giren
Etá gouri umilliatzia
Etzayaun Komeni izanen.

Ballamon mintza

Oho Erroumako hiria
Hiri errenoumia handia
Etá hi ere Julas
Aita Saintu pretenditia.

Ager adi ingoiti
Zointait oumajeren egitera
Etá hiriko giltzen
Gouri erremetitzera.

Ezi bestela seguerki
Eztuk Kartierik ukhenen
Oro Konsort ororeki
Bizia duk galduren

Eztuk ez zientako
Resousarik haboro
Hiri hortán sar eta
oro naki zutiegu erho.

Turgot mintza

Nouniz Romeiñ jalki adi
Emperadore urgilluxia
Presonpzionez eta
Banitatez bethia.

Egun jitên gutuk Turkiarik
Hiri hounen asiejatzera
Julasen età hire
Bein destonatzéra.

Ezpeita izan sekula
Houllako flenik mundian
Ez etare ellementik
Lurrian ez airian.

## Faviens mintza

Harria harrin gainen
Eztiagu osorik utziren
Bena bai arrakounteatiak
oro laurdenkaturen

## Flutor mintza

Noun ziradeie Erromako
Habitant destorditiak
Egun behar duzie izan
Kludelki gaztigatiak.

Hiriaren 4 Kantouetarik
Nahi gutiegu sutan ezari
abeziak bezala arramaz
Bizirik erra erazi.

Eztugu utziren bizierik
xipirik ez handirik.



Hobena ukhen duzie
oro lur pialat sarthurik.

Gouze feria handiak
Zelia du ikharatzen
odeiak oro airian
Troublaturik ezarten

## Roquefort mintza

Sira uduri zitadazu
Hiri hountako jentiak
Loxak berak ingoiti
Echo dutiela erdiak.

Ezin nitezu repausa
Nahiz sarthu hirian
Bizirik diren arrasten
Echaiteko mementian.

othoitzen zutut graziaz
Eztezagula diferi batere
Egi eztit utziren bakhoitzs bat
Bere sententzia emangabe.

uduri zitadazu airian
Hegallez nizala zhiltéa
Khiristi Leginako diren
ororen degrilatzen.

## Tourdelran mintza

Jaunak Erroumako jentia
oro loxak harritudu
Bena behar dugu orai
Bertán hirian sarthu.

Denborarik galdu gabe
Behar dugu phartitu
Eta Erromako habitantak
oro masakratu.

Ezi hayek eztie
Jalkiteko korajerik
oro daude ikhara
Loxak harritorik.

Ene abisez jouanen gera
Siege Imperialaren hartzera
Eta gero retiraturen
aphur bat phausatzera.

Favieus mintzo

Tourdeltan hire konseillia
Ezinago solido duk
Eta abis horri jarraikitia
Ororen komeni duk.

Allo goazan arren
Siege Imperialaren hartzera
eta Lainta pretenditu haren
Plazaren okupatzera.



Denborarik galdu gabe
Gitian pharti aitzina
Arra kounteatu ororen
Bizirik lardatzera.

Sar teiatian paseyu bat egin. Mustafa
jar kaideran tiati erdian eta mintzo.

Jaunak trono huntan gaüen
Eniko ederki egoiten
Uduri zait plazeraren handiz
Erroumán nizala sartzen.

Bena kanpotiko siege hauz
Hatzaman ukhenagati
Hirian sar artio
Enizate kountent hargati

Bena esperanxia dut orano
Dembora laburreltán barnen
Hiri hountan sartzeko
Plazera dudala ukhenen.

Jalki Honorein, Lucient, Romain, Sakin,
Baronieus eta Julas, Soné. Baronieus
mintzo.

alle brutal izana
abere salbajia
Jean bezalako impertinent
Insolentziaz bethia.

Egun behar zaik dolutu
Horia hountara jitia
Egin dutia oyhüm eta
Desidien egitia.

Zuhur bahiz retiradi
Ore lagun ororeki
Bestela biziak behar dutuzie
orok galdu algarreki.

Edo zien idolla falxiak
oro abondenatü
Eta goure religionia
Bertan exerzatü.

Hori egitên ezpaduzie
Eztukizie resourzarik
oren bat gate zizatekeie
Bizirik lahardekirik.

Zien khorpitzak diratêke
oro erhautx bilhaturik
Eta orano erhauxa
Aiziari ourthoukirik.

<u>Romeiü mintza</u>

Mustafa nahi bada izan
Errege puisantzia handitakoua
Konsidera ezak badela hi beno
Errege handiagoua.



Zoingu beita Jesus-Krist
Jinko beritablia
Zellu lurren kreazalia eta
Erregen Erregia.

Lurreko erregek behar dizik
Hari obedientzia ekharri
Laidatü adoratü eta maithatü
Umilitate handireki.

Inkredullik zoin ere beita
Haren eretzian gerthatzen
Hil ondoan ifernian bak
Ehortzirik izanen.

Zointan phena haiek beitie
Eternalki iraiñ~~cak~~en
Arima ogen gate gjaxouak
Krudelki gaztigaturen.

Hartakoz hik ere hobe duk
ore legia kitaturik
Eta Jinko egiazko haren
Grazia saintian jarririk.

<u>Ballamon mintza</u>

Sira ikhoustên duzia zoiñen
Inperkinenki diren mintzatzen
Eta goure jinkouen legez
noula diren trufatzen.

Othoitzen zutut graziaz
Eztizazula ukhen pietaterik
Nazione horren eretzian
Batere eztitarzunik.

Gitian has orai
Bertan khounbatitzen
arrakountzatu ~~[illegible]~~ orozen
Bizirik laurdenkatzen

Alle impertinent saldoua
Behar duzie maradikatu
Bai eta mundu haen
Mementian kitatu.

Ene ezpata krudelaz
Nahi zutiet masakratu
oro hatzaman eta
zihauren ourinian lardatu.

Koraje ene lagunak
gitian bertan prepara
Bandit herroka hounen
axisetan ezartera.

Batailla. Lucien blesa. bertitan bara. Soné.

<u>Lucien mintza</u>

Hellas ala beiniz oithian
Ni mourtalki blesatu
Kounbat hountan behar dut
arauz beben finitu.



O Jinko Egiazkoua
Zouri adresatzen nuzu
Behar ordu hountan
Othoi soloja nezazu

Kounbat furious hountan
Zuk ezpanaizu lagunzen
Sekulakoz galdia nizala
Nihaurez dit ikhousten.

Bena Jauna zutan dit
Konfidauxa ezarten
Zoure pôthere handiaz
Zuk naizula laguntuzen.

Lucien jaiki. <u>Sebiens mintza</u>.

Lucien Koraja zite
Etzitiela suspreni
Konbat zinglant hountan
Blesatu izanagati.

Lege Katolikouaren sustengutan
Behar tizugu biziak arriskatu
Behar bada millatan
Galtzera kondenatu.

Peest behar dizugu izan
Jinko legen sustengatzeko
Pagano haren kontre
Korajouski konbatitzeko.

## Roquefort mintza

Alle lougre eskelia
Lazhote khakhazia
~~Ez~~ Edir ere bagitadak
Hire arrazounamentia.

Behar zaik orano dolutu
Gisa hortan mintzatzia
Eta ~~kedandol~~ berdin toran gouzi
Defendatzera isciatzia.

Bazinandeie ere orano
Ehun milla habor
Nihaur aski nintzake
orzen erhaiteko.

Ezta izanen batere
zieutako ressoursarik
Behar duzie mundu haur
orai kitatu bertarik.

Bataillla. Kiristiak ezkapa. Soné
**Fleutor mintza**

Sira gouze izatia
Eginajo irous duzu
Etsayak or goithurik
Biktoria badizugu

Daigun aldian behar tizugu
Agutiak oro hatzaman



Bakhoitz bat utzi gabe
oro ezari axisetan

Hartakoz arren orai
Gitian retira
Gouazen barrualat
aphur bat phausatzera.

Retira. Soné. Jalki Borbon, Richelieu,
Chartres, Dorleans eta Charles. **Charles jar eta mintza.**

Jaunak behazité
Behar dugu konxultatu
Berri bat nahi deizut
Presentian deskoubritu.

Julas Aita Saintiak
Igorri ukhen derit
Laur Turk Erregez
Edireitén dela atakaturik.

Khiristi legia oro
Nahi diela galerazi
Eta Aita Saintia aldiz
Bizirik erraerazi

Igorri ukhen derit
Enbasadore batekilla
othoy armada bateki
Jouan nakion sokouritzera

Eta orai presentian
Ukhen dut deliberatu
Behar dugulla mementian
Erroumarat phartitu.

Jaunak arren ziek ere
Orai mintza zitaye
Zien sendimentia noul den
Jakin degadan nik ere.

## Duk Dorleaux mintza

Sira zoure konxeillia
Ezinago houn duzu
Behar dizugu mementian
Erroumarat phartitu.

Turk barbaro hayen
Kontre kombatitzera
Eta khiristi legiaren
Bethi sustengatzera.

Turk nazionia oro
Behar dizugu destruitu
Eta khiristi legia
Bethi hanbat omentatu,

Ezi khiristi legia
Nourk ere beitu sustengatu
Jingoua'k dizu houra
Bethiere laguntzuren.



Zeren khiristi guti duzu
Batailletan hiltzen
Habarouetan dutuzu
Biktorious gertatzen

Bena nekian ordian
Hil behar banu ere
Khiristi legiaren althe
Kounbati nintezu bethiere.

## Duk de Richelieu mintza

Dorleaux ezin haboro
ounxa mintzo zirade
Bethi desein hortan
Fermoki egon zite

Ezi bethiere duzu
Franzia errenoumiaturik (so errenounciaturik?)
Sekula ezpeitie kausatu
Turkek desodrerik.

Areta saldouetan ukhen dizie
Franzeseki gerla handirik
Bena entzutia dit bethi
Franzesak biktorious baraturik.

Hartakoz ere arren
Dezagun delibera
Eta bertan har
Erroumarako bidia.

Sustengatzen dugularik
Jesus-Kristen legia
Berdenboran destruitu
Turken idola falxia.

Loxaz ez beldurrez
Ezkitiala ingana
Denborarik galdu gabe
gitian parthi berhala.

## Duk de Chartres mintza

Richelieu ounxa duzu
Gitian arren abia
Eta dezagun sustenga
Jesus-Kristen legia.

Turk malerous hourak
Behar ditizugu galerazi
Eta Erroumako hiria libratu
Haien sujetzionetik.

Gaiza segura duzu ezi
Sartzen badira hirian
Habitantak oro dutela
Ehoren mementian.

Templu saintiak bergisan
oro profanaturen
Eta relika saintiak ere
Bai destruituren.



Bena kausa eztezen
Holako desordrerik
ahalik laburskiena
Hobe dizugu phartiturik.

## Borbon mintza. Paseia.

Jaunak ziek oro
ounxa mintzo zizadeie
Bena ene sentimentia
Nahi dut eman nik ere.

Turkak balinba dira
Erroumako lurretan sarthurik
Segur da ezi egiten diela
Haiek arralage handirik.

Ezpalinbadire orano
Enkas sarthu hirian
Gaiza segura da
asiejatzen dandiella unguruan.

Hartakoz behar dugu egin
Bertan diligentzia
Bai etare hartu
Erroumarako bidia.

Errege barbaro hourak
Eia noun diren kanpaturik
Behar dutugu bertan edizen
Galdu gabe denborarik

Allo Jaunak arren
Gitian pharti behenti
Ingoiti brutal haiek
Brexa egiten die segurki.

Paseia. Soné. Jalki Julas eta Romeiñ
bere sueitekki arrakountia oro. Ez jar.

Charles mintza

Sallutatzen zutut Julas
Monarka illustria
Bergisan goure khounpaña
Ezin haboro noublia.

Ziek igorri megiala
Jiten niz ekipaturik
Han duzie eie armada
Oro girade preparaturik.

Errege ~~santarro~~ fanfarro hourak
Eia houn diren kanpaturik
Diezagun bertan edirén
Haboro egon gabe tarik.

Julas mintza

Hounki jin ziradiella.
Franziako Errégia
Gouri sokhorri emaile
~~Zein~~ Ezin haboro noublia.



Turk malerous elibatek
Gitizie etxekiten asiejaturik
Gai ez egun sekula
... eikie emaiten phausurik.

... Imperiala dizie
Et.. egiten posedituzik
Furia handitan dutuzu
akilean kanpaturik.

Ziauri arren Charles
Jar zite goure arrenkian
asaut baten emaitera
Gero pharti gitian.

Herroka batetan. Soné. Julas mintza.

Allo Jaunak orai
Gitian pharty behala
Dezagun hae mementian
Haiegana ko bidia.

Paseia. Soné. Turkak jalki. Julas mintza.

Alle barbaro infamiak
Behar duzie phakatu
Bai eta hiri haur
mementian libratu.

Ezpaduzie egiazko jinkoua
Jesus-Krist adoratzen

Plazan gainen hil hotz
oro zutiegu ezarizen.

Ez zirádeie ez libriagorik
Turkiarat utzu lizen
akilearik jalki gabe
Biziak dutugu galduren

Mustafa mintza

Alle apho eskelia
Feipor urgilluxia
orano dolutu behar zaik
gisa hortán mintzatzia

Erroumako hiria
Egun behar duk kitatu
Eta gouri eskietára
giltzak remetitu.

Bestella phenxatzen ahal duk
Zer zaya gerthaturen
Hire lagun orozki
Bizia duk galduren.

Sabeiu mintza

Pagano infamia
Gezurra duk erranen
Balentia hori eginik
Eztuk berria khontaturen



Gouze ezpaten gozoua
Sarri duzie xesteren
Ezpalinbadugie hiri haur
Mementian libratzen.

Eztugie remisionerik
Ihonla ere den gisaz
Behardugie deskampatu
amouzioz edo bortxaz.

Claudieus mintza

Alle Sarhote aphoua
Eskelle zamari khakazia
Izan bezalako ez deus
Fanfarroin urgilluxia.

Behar zaik orano dolutu
Hitz horren erraitia
Bai eta goure aitziniatla
Hain hardiki gitia.

Allo Jaunak Korajé
Behar dugu Konbattitu
Eta kanallla saldo hau
mementian fikazeiatu.

Neron mintza

Voila quifet klaudieus
Gitian arren Konbati

Feipou hoyek behar tizugu
Axisetan ezari.

Ezi hoyek eztizie
Grazíarik merexi
Baizik ere katatzia
ahal bezain krudelki.

Allo Jaunak arren
Ez diferi batere
Arrakoutzatiak oro
Sakrifika itzazie.

Charles mintza

Jaunak gu ere hehen gira
Frantziarik jinik
Ezpeitugu batek ere
Segurki zein beldurik.

orano ordu houn beita
Alisa zitaye ounxa
Bai eta goberna
Behar den bezala.

Gero dolu eztuzien
Errenda zitaye berhala
Eta egiazko Jinkoua
Jesus-Kris adora.

Bestella sarri duzie
Zihaurzietk dolu ukheren



Zeren orok beitutugie
Biziak galduren.

Marcellus mintza

Alle fotit ez deus
Feipou buhurtia
Banitatez eta
Urguilluz bethia.

allo ene lagun maitia
Perpara zitaye bertan
Feipou hoyek oro
Ezar ditzagun axitetan.

~~Bataillá Tourdebranek eta~~
~~Fabiensek hatzaman Dorleans~~
~~Eta Charties~~

Bataillá Tourdebranek eta Fabiensek hatza-
man Dorleans eta Charties besté Khiristiak,
ezkaßa. Soné. Erregiak jar. Tourdeban mintza

Sóra huiek dutuzula
Orleans eta Charties dukiak
Hanitzetán goure kontra
garrazki mintzatu beitiza.

Eztizie hoyek batére
Graziarik merexi
Bena bai tratatzia
Ezinago krudelki.

Saldoutan gutzaz
Izan dutuzu tenfatu
Bai eta gure jinko handiak
Hanitx mesperexatu.

## Mustafa mintzo

Allo Jaunak bertan
Ezarhie presountegian
Eta gero burduiñaz
Karga itzazu mementian.

Eta gero Tourdeban
Hiri nitzaik gomendatzen
Presountegitiz jalki eztitzen
Horietzaz duk kountu hartuzen.

Ezar presountegian eta retira oro. Sorté.
Dolleans eta Charles belharka. Dolleans
mintzo

o Jinko zelukoua
Erregen Erregia
othoi autzui ezagun
Bekhatien pharkamentia.

Ikhousten dizugu egun
Ezkugule resourzsarik
Eskusa gabe behar dugula
Izan martirisaturik



Judiouek zuntien zu ere
Elhorriz khoronatu
Bai eta ogenik gabe
Khurutzian kruzifikatu.

Goure bekhatiegati zuntien
Gisa hartan tratatu
Jaun Justoua othoi
Gutzaz pietate ukhazu.

## Charles mintzo

o Franzia Franzia
Erresoma maitagarria
Plazerezko eta
Allegrantziazko lekhia.

Eztut ez arauz ukhenen
Sekula bonurra
Pariseko hiriaren
Ikhousteko hargara.

Adio arren adio
hiri ezin maithagarria
Plazer guziz betherik den
Sekhu xarmagarria.

Turkian behar dut orai
Sekulakoz barатu
bai eta ene egunak
Tristeki finatu.

O Jinko Egiazkoua
othoi fabori gitzazu
Eta barbaro hoyen artetik
Zerbait gizaz libra gitzazu.

Zu adora ahal zitzagun
Khiristien artian
Saida eta zemestia
hil oundouan zelian.

Retira presontegialat. Soné, Jalki Massinisa
eta Himera. aseia. Massinisa mintzo

O zelia zoure
Klaritate xarmagarria
Eta zekuru orotan duzun
Distroura paregabia.

Zoure leinhurien libreia
Mundu guzian duzu hedatzen
Esklat admiragarri harek
allegrantziatan ezarten

Himera badakinã.
Ene estatiaren berrihik
Eta eztudala batere
Hiri gordatzeko segeturik.

Phenxamentu bat badiñat
aspaldian bihotzian
Eta nahi deiñat hiri
Deskoubritu presentian



Ikaus badun hik ere
Dorleaux dukiaren entzutia
Zointan lagun batek
Hiri hountan presouner beita.

Jentiak oro gitiñat
Harez mintzatzen entzuten
Eta haren ederstazunaren
Bethiere laidatzen.

amorio segret bat diñat
geroz haren eretzian
Zouiñek ~~sesitzen~~ sesitzen lanci
osoki bihotzian.

Noun ezpenoute empexa
Houra ikhousi gabe
Eta ene amourioua
Hary deklaratu gabe.

Zer nahi kostarik
Behar diñat houra gogatu
Bai etare gero
Harekilla ezkountu.

Bena othoitzen ait Himera
Fidel izanakit hiere
Eta ene deseiñak aldiz
Ez deskoubri ihouri ere

Himera mintzo

Madama fidanxareki
Trankilisatzen ahal zira
Hitz emaiten deizut bethi
Obedient izatera!

Sephora gaje deizut
Ezpaniz fidel izaten
Enganik eztuzu sekulla
Segretia diskoubritüren

Bena lagunturen zutut bethi
Zoure projetaren exekutatzen
Nekiin ere ordian
Bizia niela arriskatzen.

Gaje handiagorik
Ezin emaiten ahal dit
Bena houra zoure amorekati
Gogo hounez dispoatzen dit.

Zoure grazia eztian
orai drano izan nuzu
Heben harat ere gisa berian
Desizatzen nikezu!

Unione houna
Partaja genezen algarri
Thonban hillik ezartia
Separatu gabe jagoiti.

Hox emazu arren orai
Berhala presountegiala



Dorleauxen ikhoustera
Bai eta mintzatzera.

Presountegiala jouan. Massinisa mintza.

Sallutatzen zutut Dorleaux
Bai eta felizitatzen
Zoure burdüñetan ikhoustez
Hanitz desplazer hartzen.

Bena ni jiten nuzu houna
Zouri sokhorri emaitera
Zoure eta zoure lagunaren
Hebeti libratzera.

Ideia bat ukhen dit
Bihotzian ezari
Eta orai jiten nuzu
Deklaratzera zouri

Ene deseiñian obeditzera
Ekharria bazinandizu
Zourekila ezkountzia
Desizatzen nikezu

Hori egiten duzularik
Nik zutut libratüren
Eta beharbada nihaur
Franziarat zoureki jinen

Dorleaux mintza

Houngigin ziradiela madama
Zoure koun parekilla
Jinkouak deiziella osagarri
Eta bere bake saintia.

Zeluko Jinkouak gutu
Duda gabe houna ekharri
Zoure boronthate hounaz
Esker deizut osoki.

Zoure proposamentiak
Oro zitit houn hartzen
Eta obedient izatera
Gogo hounez hitz emaiten.

Bena solamente lehenik
Behar dugu hitz eman
Jarrizen ziradiella
Zoure religionian.

Batheyazko sakramentia
Duzula rezebituren
Eta jinko falxien legia
Sekulakoz renounziaturen.

Hori egiten duzulanik
Hitz deizut emaiten
Elkarrekin giradiela
Bertan espousaturen

Massinisa mintzo



Jauna nik ere arren
Gisa berian deizut hitz emaiten
Zoure religionia dudala
Bethiere exerzaturen.

Laidatu dela bethi
Khiristien Jinkoua
Zeren houra beita
Gaiza ororen gainetikoua.

Zien librien irakourtzez
Instrui nadin amorekati
Hox emazie gitian
Bertan pharti hebeti.

Hebeti jalkiteko
Orai uxartia badugu
Okasioniaz arren
Prebalitu behar dugu.

Ihourk ere ikhousti gabe
Behar dugu phartitu
Ezi dudarik gabe sarri
Jaulierak bisitaturen gutu.

Jalki presountegiti paseia oro. Massinisa mintzo

Adio Floridako hiria
Adio ere sor lekhia
Orai hi kitaturik
Behar diat ikhousi Franzia.

Banouak bai gogo hounez
Egteriat dolurik egitén
Zuen maite xarmant bat
Beitut akisitzen.

O ene objet arrarous
Bihotz ezinago trenbia
Osoki duzu xarmagarri
Zouri so egitia.

Zure graziareki batian
Esparantza dit ukhenen
Ene denbora dudala
allageraki igaranen.

Jalki khiristiak orr. Soné. Gehienak jar.

<u>Dorleaux mintza</u>

Sallutatzen zutut Julas
aita Saintu handia
Eta zoure konpaiña
Ezin haboro noublia.

Egun jitén gutuzu
Turkia kitaturik
Ezpainien seguzki esperantza
Utzultzia bizirik.

Bena andere hounek
Sokhorri eman dieitku
Eta bere aitaren ixilik
Pasountegitia libratu.



Eta berareki ezkountzera
Ukhen dit hitz eman
Goure religionia exerzaturen
Diela hitzaren pian.

<u>Julas mintza</u>

Hounki jin ziradiela
Dorleauxeko dukia
Eta bergisan zu ere
Printzesa illustria.

Orthian deliberatzen duzia
Jinko falxien kitatzera
Eta egiazko Jinkouaren
Legiaren exerzatzera.

<u>Massinisa mintza</u>

Bai Monseigneur seguzki
Deliberatu ukhen dit
Hartakoz jin nuzu houna
Ene erresouma kitaturik.

Eta orai khiristien legiala
Nahi nindukezu bathezatu
amourekati hil oundouan
Izan ahal nadin saltatu.

Desein hortan nuzu
Turkiarik phartitu
Eta lehen bano lehen

Desiratzen nikezu

<u>Charles mintza</u>

Hox emazie arren
orai gitian retira
Goazan barnialat
Aphur bat phausatzera.

Aitä Saintiaren eskuti
Duzu batheia regebituren
Bai etä bihar goizan
Dorleanxeki esposaturen.

Pasaia orö etä retira. Soné. Jalki turkak
orö. Laur jar. <u>Mustafa mintza</u>.

Jaunak zer uduri zaizie
Franzes presouner hayez
Mintza zitaye orai
Nourk zien sendimentiez.

Ene deseiña lizateke
Aitziniala erakhartia
Etä goure Jinkoaren legez
Berhala interrogatzia.

<u>Claudieus mintza</u>
Papa ounxa duzu
Zoure deseiñ hartia
Etä ororen komeni
Interrogat baten egitia.



Goure jinko handiak
Nahi badutie adoratu
Etä goure zerbutxian egoitera
Bizi direnekez ofritu.

Kondizione hortan
Biziak utzi behar deriteegu
Bestella aldiz su batetan
Erraazi beha zitizugu.

<u>Neron mintza</u>

Klaudieus zoure konxeillia
Ezinago houn duzu
Hori phenxamentu houna
Buriala jin zaizu.

Ahis solidouagorik
Ellukezu posible
Turkiako Erresoma
Oro kourritutik ere.

Marzellus arren orai
Mintza zite zu ere
Klaudieusen konxeillia
Etzaizunez agradable.

<u>Marzellus mintza</u>
Neron ezinago houn duzu
Klaudieusen konseillia
Etä ororen duzu komeni
Bertan exekutatzia.

Enkas goure zerbutxian
Jarri nahi badira
Jouan gitian bertan
asaut baten emaitera.

allo Jaunak arren
Zouazte presountegialla
Eta erakhartzu presonerak
Berhalla goure aitzinalla.

Tourdeban eta Favieus jouan presontegialla eta jin berhalla. Favieus mintza.

Jaunak presounerik
Batere ezta ageri
Eztakit zer gisaz
ahal diren ezkapi.

Princesa massinisa ere
Galdu duzu etxerik
Houra jouan ahal duzu
andere aurena harturik.

Mustafa mintza

Posible lizatia harek
Hardiezia egin lukian
Eta oro algarreki
Ezkapi lizatekian.

O madarikatia
Inpertinentziaz bethia



Hori zena hire aitaren
Eretzeko egin bidia.

Klaudieus mintza

aita koraja zite
Bai eta trankilisa
Hitz emaiten dizut egiaz
Nik haren erakhartera.

Houra edizen artio
Enuzu repausatuzen
Ez eta arrakountzatzen dudanik
Batere espraiñituzen.

aldi hountan nahi dit
Eni furia erakaxi
Bai etare orano
Frauzia ikhara erazi.

Bena orai gitian
Memento bat retira
Gouazan barnialat
aphur bat repausatzera.

Retira. Soné. Jalki Massinisa eta Himera paseia. Satanak jalki paseia. Satan mintza.

Behadi hounat massinisa
Oithian zer phensatu dun
Haxarreko hire legia
Zergati kitatu dun.

o burhunguru nahasia
Erhokeriaz bethia
Oithian eriena hik
Handixiago zentzia.

Khiristielan eztun
Batere aberaxik
Oro dutun praube
Eta miseriaz betherik.

Urhia eta zilharra
Haiek eztigue ezagutzen
Eg eztirun hain
Sakolarik xilatzen.

Hartakoz hire estatia
Ezinago diñat plaiñitzen
Hire kalitatiaren leiñia
Oro dun desouhouratzen

Sonja adi arren bertan
Mahometen probidentziaz
Harek prosporatzen ditien
Hountarzun abondantziaz

## massimisa mintza

Renountziatzen diat Satan
Orai drano ko ene legia
Eta sekulakoz kitatzen
Hire esklatagia.



apartaki nitarik
Figura gaistoz bethia
Ezi eztuk illusitaren
Haboro ene izpiritia.

## aztarot mintza

O errugent miserable
Ezagutzerik gabia
Eztuna nahi ezagutu
Iugoiti hire estatia.

Eta hik hain ounxa
Fazilitatez bethia
Arauz papurrak deiñe
Trollatu espiritia.

Bena nik nahi deiñat presentatu
Hire lege berriaren exemplia
Zoiñen estatu kristian
Ezari duiña ore buria.

## miraill bat erakax.

Sogiu ezon miraill houni
Hountan dun konpreniteren
Khiristi miserabliak
Noula phenatzen diren.

Hartakoz hobe dun
Deseiñez khanbiaturik

Eta Jinko handi haren
Segia borriz hartürik

<u>Himera mintza</u>

Aparta adi gutarik
Mousha itxusia
Izan bezallako illusione
Figurazg gaistoz bethia.

Ezkutuzk ez illusituren
Hire lausengu falxiez
Gozri presentatzen deizkia
Artificio gaistouz.

Hi eta idolak oro
Nahi zutiegu abondenatu
Munduan bizi girenu
Jesus-Krist adoratu.

Egun gaurzeki eztirok
deusere auteni
Abill ora Ifernialat
Hire kounpania orozeki.

<u>Aztarot mintza</u>

Jauna ikhousten duzia
Zer gisan mintzo diren
Gitian has orai
Herresta eramaiten.



orai biak lot arropetarik. Soné.
<u>Gabriel aingurria jalki. mintza.</u>

Aparté zitaye hebeti
Ifernuko printziak
Ezkutuzie ez troublaturen
Haboro Royen izpiritüak.

Jinko egiazkouak du
Horez kountü hartüren
Bai eta gloriazko
Corresomala gidaturen.

Haren izenaren berthutez
Nik zutiet exorkizitzen
Eta haren khurutxe saintia
Photerez akazatzen.

Eskiaz egin. Satanak retira. <u>Gabriel mintza</u>.

Konfidanxa sintzer bat
Ukhen ezazie Jinkouatan
Haruk fabori(t)uren zutie
Zün behar ordietan.

Banoua ni orai
Jinkouaren othoitzera hebeti
Haren zerbutxu saintian
Emplega zitaye bethi

Retira aingurria. Anderiak pasia. <u>Massimisa mintza</u>

Hellas alabeiniz ni
Kontent eta allagera
Zeren eta fatheiaren rezebitzeko
Ukhen beitut bonura.

Khiristien artian
Habitatzeko plazera
Eta egiazko Jinkoaren
Ezagutzeko grazia.

Hartakoz behar diñagu
Jinkoua beza maithatu
Laidatu eta adoratu
Bethiere zerbitxatu.

Amourekati hil ondouan
Irous izan ahal gitian
Bai etare plazatu
Haren gloria saintian.

Himera mintza

Madama ezinago
Houn duzu zoure konxeillia
Bai etare nezesari
Izan dadin exekutatia.

Nik ja renountziatzen dit
Idolaken legia
Bai etare exerkatuko
Khiristien religionia.



Lege haren exerkatzia gati
Behar banu ere punitu
Zer nahi suplizio
Gogo hounez sofri nezozu.

Hartakoz arren dezagun
Jinkoua gogo hounez maithia
Laida eta zerbitxa
Respeturekin adora.

Amourekati jardiex dezagun
Haren grazia saintia
Eta gero rezebi
Hil ondoan zelia.

Hox orai hebeti
Gitian retira
Jinkoaren laidoriotan
Dezagun igaran denbora.

Retira. Soné. Claudieus zamariz mintza.

Noun ziradeie Frantziako
Kabalier pretenditiak
Traidore eta ouhoiñ
Phutz seme izentatiak.

Jalki adi jalki
Dorleanxeko dukia
Egun behar zaik dolutu
Turkizik ezkapatzia

Hi eta hire lagunak
Nahi zutiet flikazeiatu
Eta su batetan erraerazizik
orozen erhauxak aizatu.

Jalki zitaye arren
Traidore aprobatiak
Bestela horra jinik deitziet
Jauzeraztén buriak.

Triatian sar eta pasaia. Soné. Jalki Charles, Richelieu, Dorleaux eta Charles. Charles mintzo.

alle izan bezalako
abere salbajia
Hi iza oithilan herex
Itxousi hayen egilia.

Gisa hortan iza ari
Gizounen desouhourzatzen
Traidore eta ouhouin
Phutu seme izentatzen.

Behar zaik alleta dolutu
Gisa hortan mintzatzia
Bai etare orano egun
Erroumako lurretan sartzia.

Claudius mintzo.

Erroumako lurretan sartzia
Etzitak eni dolutuzen



Bena bai zier enegana jitia
Hitz derizat emaiten.

Ezpaduzie ene arreba
Beitan houna erakharten
Ezpata hounen ahouan
oro zutiet igaranen.

Dorleaux gogoua eman ezak
Zer zayan komeni
Eta hiltziaz sounjatzeen (?)
Mementian has adi.

Ene arreba prinzesa
Bere andere auzenarekilla
Hik erakharri ukhen beitutuk
Turkiarik houna.

Dorleaux mintzo.

Claudius hori hala duzu
Hori egia erraiten duzu
Bena gisa hortan altetatiko
arrazourik eztuzu.

Zoure arreba anderia
Enekin jin duzu Turkiarik
Eta orai Erroumaan duzu
kiristi legian jarririk.

Aita Saintiaren eskuti
Bathaia dizu rezebitu

Eta denbora berian
Enekilla esposatu.

Bergisan zu ere
Nahi guntuket othoitu
othoi plazer dezun
gure religionia exerzatu.

akisi ahal dezagun
arimaren sallbamentia
zoiñ baita zeluko
gloria dohatxia.

<u>Claudiens mintza</u>

alle baudit eskelle
Presounpzionez bethia
ezpata hounez nahi deriat
orai mouztu buruia.

Prepara adi bertan
Eukki konbatiñera
bai eta hain ounxa
mundiaren kitañera.

<u>Dorleans mintza</u>

Helas ala beita haur
oithian phena handia
Bai eta deseiñik gabe
bortxaz konbatitzia



Jaunak ziek arren
aphur bat bara zitaye
Konbat bat egin artio
Biak aski girade.

Jar bestiak.

alle pagano kathia
Prepara adi arren hi ere.
Hire egunek egun
Karraska egin behar dié.

Claudiens eta Dorleans bataillan. Erditan
bara. Sone. <u>Claudiens belsa mintza</u>.

alle Khiristi aphona
Beharmindiana hik blesatu
Mahomet en jinko handia
Zeren enaik faboritu.

Zountatelan xeitadan (o chitadan?)
Hik eni hitz eman
Sokhorrituren nundialla
Eni behar ordian.

Bena sependent egun
Enaik batere faboritu
Iferuko milla debiez
Izan adila botatu.

<u>Dorleans mintza</u>

O pagano inozent
Uxatu miserablia
~~Eta~~ Eztuka ikhousten hire gizonak
Eztiala deusere balia.

Hire jinko falxcen ahoti
Debria zaik mintzatzen
Eta hire izpiritia
Illusiturik etzekiten.

Bena kita ezak orai
Hire jinko falxia
Eta adora Jesus-Krist
Jinko beritablia.

Harek emanen derik
Mundian bere argia
Eta egun batez zelian
Bere gloria saintia.

<u>Claudieus mintza</u>

Alle fotut eskellia
Gezurra dut erranen
Khiristien jinkoua nik adoraturik
Eztuk beorik khountatuen.

Hox emak fipoua
Gitian beeriz konbati
Kounbat hountan nahi derat
Lepoua mouztu ounbotiz.



Bataïlla. <u>Claudius hilsa eta belharko mintza.</u>

O zer debru da haur
Alla kolpu handia
Helas eztuta nik
Oi thian zothe kistia.

Bena jaikiten baniz
Orai nizan lekhuti
Hitz emaiten deizit
Ezkapizen nizala hebenty.

Claudieus abia jaikitera. <u>Charles mintza</u>.

Hatzaman ezagu Claudieus
Ihesi abiatzen da
Eztu behar utzi
Turkiarat jouaitera.

Unguira eta <u>Charles mintza</u>

Erak harzie bertan
Armak idokirik
Jartera hounaxe
Mintza dezadan nik.

Ekhar erregegana. Jar bestiak bere lekhie-
tara jouan. Soni. <u>Charles mintza</u>

Claudieus behar duk orai
Harta gure legia

Edo eta bestella
Berkau kitatu mundia.

Ikhousten duk eztiala
Batere kartiellik
Biziaren kounxerbatzeko
Beste resourzarik.

Sogin ezak arren
Ez zayn komeni
Hire erflekzionen egiten
Inkenientian has adi.

Jalki Satanak. mintza

Claudieus ehadila
Hire deseinieti khantia
Eztezala har sekula
Khiristiin legia.

Nahi ezpaliz izan
Inisenial erozik
Hire kreiñ eta ouhoure
Hountarzunak oro galdurik.

Satan baztér. Claudieus mintza

Jaunak ezpere arren
Hitz emaiten deiziet
Zien desein orotan
Obedituren zutiet.



Ogen egin orotzaz
Nitzaizie umilliatzen
Eta berdentoran orano
Pharkamentu galthatzen.

Zien Jinkoua dut arren
Hebeti aitzina adoratüren
Ohoresketa sakrifizio
Bethiere errendatüren.

Satan mintza.

O parla sacre vivanta
Erratia erazi nahi naika
Marabikatia oithian
Orai kiratzen naika.

O khiristi marabikatiak
Ene eskerniazaliak
Ene xangri eta phenen
Ororen doblazaliak.

Hox emak Aztarot
Gitian ezkapa hebenti
Ikhousten diat eztiagula
Deusere auteni hoyeki.

Aztarot mintza
Bagoatzak hebeti orai
Frantziako erregia
Hiretako ja buruzagi duk
Orai nazionia.

Retira Satanak. <u>Charles mintza</u>. Paseia oro.

Laidatu dela Jauna
Gizounen Kreazalia
Spiritu Saintiaganik Konzebitu
Eta Birjinaganik sorthia.

Helas eztugia oithian
Egun bonneur handia
Laidatu zirela Jauna
Jinko Kreazalia.

Jalki zitaye Julas
Eta Sabeiñ aphezkupia
Beregisan zu ere
Massinisa anderia.

Baronieus eta Romein
Kardinale eta Euperadoriak
Zien Khorteko printze
Kalitatez nobliak.

Rejouisanza badugu
Egun zelebratzeko
Allagranzia eta suzluzio
Zier explikatzek.

Misterioua zer den
Jakin behar duzie
Ziaurizt̃aie orren hounat
Bertan agur zitaye



Soné. Paseia. Jalki Khiristiak oro ande-
riak ere bai. Ez jaz. <u>Charly mintza</u>.

Monseigneur ikhous ezazu
Zer den mirakuillia
Hatzaman ukhen dizugu
Claudieus Erregia.

Jin izan duzu houna
Furia handi bateki̇lla
Franziako Kabalieren
Gerlaz galeraziteka

Dorleaus Dukiareki
Hasi izan duzu bataillan
Eta Jinkoaren permisioniazki
Malerousski flesatu izan

Bena oroz ekharria duzu
Goure legian jartera
Eta egiazko Jinkoaren
Bethiere adoratzera.

<u>Julas mintza</u>

Sallutatzen zutut Claudieus
Errege illustria
Berdenboran souhetatzen
Jinkoaren grazia.

Oithian desirutan giradia
Khiristi legian jarteko

Etā orai dranoka goure
Segen kitabeko.

<u>Claudieus mintza</u>

Bai Monseigneur segurki
Sinhestēn ahal duzu
Ezi Ekhia zelian den begaiñ
Egia klara duzu.

Etā orai nahi nuzu,
Zien legiala batheiatu
Etā zien Jinkoua
Bizi nizano adoratu.

Ene arreba maitia
Hanitz plazer dit hartzen
Zeren khiristi legiala
Batheiatu izan ziren.

<u>Massinisa mintza</u>

Bergisau nik ere
Ene anaye maitia
Hanitz estimatzen dit
Zoure bonthatia.

Bena orano beste gaiza bat
osoki desiratzen nikizu
Goure aita ere izan ledin
Gu bezala batheiatu.



<u>Julas mintza</u>

Gitian arren jouan
aphur bat orai jarțera
Gero behar dugu igorri
Enbasadore bat Turkiarat.

Jar gehienak oro eta puntā bestiak.

Lebieus behar duk jouan
Hik orai Turkiara
Ene phartez Turk handiari
Enbasa batēn egitera.

Haren seme etā alhabak
Haiñ ounxa akort direla
Etā orok algarreki
Botz batez igortēn derogula.

Jinko falxiak kitaturik
Behar diela batheiatu
Etā egiazko Jinkoua
Jesus-Krist adoratu.

Claudiensek etā Massinisak ere
hartu diela khiristi legia
Etā Massinisa espōsatu
Dorleauxeko Dukiarequilla.

Lebieus pharti adi
orai arren berhala

Eta laburski utzul
Zerbait Berrizekila.

Gu aldiz orai gitian
Aphur bat zetira
Amourekati guk Klaudius
Rezebi dezazun batheia.

Lebieus paseia bestiak zetiria. Soni. Jalki Turkak oro jar. <u>Lebieus mintza</u>

Sira sallutatzen zutut
Julas Aita Saintiaren phartez
Eta berdenboran zoure
Semu eta alhaben orduz.

Jinko falxiak kitaturik
Behar dugula batheiatu
Eta egiazko Jinkoua
Jesus-Krist ezagutu.

Botz batez deizie igorten
Orok algarrekila
Behar dugula ezelitu
Batheiatzeko sakramentia.

Hori duzula arren sira
Haick eman deitadan mezia
Eman ezadazu zuk ere
Orai zoure arrapostia



<u>Mustafa mintza</u>

Helas ~~ga~~ zer entzunten dut
Ala berri tristia
Malerous dela ene zorthia
Eta mundako izatia.

O errabiamentia
Zer milla debru da hour
Xangriz eta despitez
Behar dut zapartatu gaur.

A Klaudius madarikatua
Bestiak uduri traidoria
Hik ere arrauz nahi deitak
Orai edeki bizia.

Alle fripou hori
Hatzamau ezadazie bertan
Ezar ahal dezadan
Su eta flamatan.

<u>Lebieus mintza</u>

Alle pagano kathia
Hola itzaita mintzatzen
Uste duka mehatxatez
Nayala lotxa erazizen

Gogoua eman ezak paganoua
Ezi hounkiten bauaik.

Feikazeia bezala
Mementian ezarien ait

Bena eman ezadak arraposta
Bertan despeditzeko
Ezi eztiat aizina
Heben denbora galtzeko.

<u>Tourdeban mintzo</u>

Alle phutz semia
Gisa hortan iza mintzatzen
Egun Turkian sartzia
Sarri zaik doluturen.

Tourdeban abia hatzamaitera. Bertan ezkapa.

<u>Mustafa mintzo</u>

Jaunak zer uduri zaizie
Emadezil zien konxeillia
Eya nola dugun hobenik
Koki hayen atakatzia.

<u>Neron mintzo</u>

Sira behar zizu eman gerla
Konbat eta bataiella
Eta hatzamaiten ahal badugu
Julari hauxe huria.

Tenfatzen ahal girade
Haien embasador orotzaz



Claudius behar dugu aldiz
Zihaurek igaran ezpataz.

Ezi merexi dizu harek
Krudelki tratatzia
Zeren abandonatu dien
Mahomet handiaren legia

<u>Marcellus mintzo</u>

Neron zoure konxeillia
Eginazo hourn dugu
Eta denborarik galdu gabe
Behar dizugu exekutatu.

Fitetz bero fitetzago
Behar dizugu kanpatu
Eta konbat zinglant bat
Mementian apointatu.

Traidor hayen ororen
Bertan galerazitek
Gihaurek gero kaukil
Denboraren igaraiten.

<u>Ballamon mintzo</u>

Sira eni sendimentiaz
Nahi zutut konxeillatu
Bi hitzez mintzatzia
Plazer badeitazu konsentitu.

Generral antziennak dutuzu
Hanitxetan tradizionez zertutxatu
Bere artefikouen moyanez
Biktorious errendatu !

Hartakoz okasione huntan
Nahi zuntuket othoitu
Fonzione bera nahi zunien
Zuk ere exerkatu.

Zoure seme eta alhabak
Behar dutuzu tradizionez ataki
Aita Saintia, Kardinalak eta aphezkupiak
Enperadoria ere hayeki

Behar dugu zonbaitez jouan
Pretesta baten pian
Egi zourrki gaiski ginik
Nahi gizela jarri hauen legaian.

Moyen harez fazilki
Erroman gutuzu sarthuren
Hanko habitant arraza or
Beitugu brisaturen.

## Turgot mintza

Bai Sira segurki
Ballamorek arrazou dizu
Konseillu hoberik mundian
Egin edizen litezu.



Imposible dugu beste gisaz
Hourrak ataka litian
Eg eta goure deseiñian
Burutan jouan gitian.

Bena moyen fatorable harez
Behar dizugu prebalitu
Eta hasi dugun projeta
Bertan exekutatu !

Moyen harez gutuzu
Aisaki haier burruzagituren
Mundu guzia beitugu
Admiraturik ezariren.

Klaudius eta Massimusa
Bihaurreki zitizugu erakharriren
Gaiñeratiko sueita albiz
Bizirik erraerazigiren.

Ni ene aldeti nuzu
Rigourousk Konbatituren
Ezkitarzunik batere gabe
Hayer ounxa mendekaturen.

Leopartaren pare
Sarthurren nuzu konbatian
Lehen arrakountratiaren
Erhaiteko mementian

## Mustafa mintza

Jaunak zien abisak
oro dutut houn hartzen
Ezen beritable direla
Nihaurek beitut ikhousten.

Araut horren kondutaz
Neron zouri nuzu adresatzen
Esparanxa dit fidelki
Dutuzula kondusitaren

Ballaumon eta Turgot
Bi prinziak har itzazu
Bena Klaudieus eta Massinisa
Aitzinian erakhar itzazu

Alla Jaunak aren
Parthi zitaye berhala
Eta gu aldiz orai
Gitian retira.

Neron, Ballaumon, Turgot paseia. Bestiak retira. Soné. Jalki Lucien eta Romein jaz. <u>Neron mintza</u>. Belhariko hirourak.

Sallutatzen zutut Romein
Emperadore noublia
Desiratzen deizut konpaiñaki
osagarri eta bakia.

Egun estranje izanen zaizu
Zoure heben ikhoustia



Bena behar dugu konprenitu
Zer den konxekuentzia.

Ezagutu ukhen dizugu
Rezebitu dugun enbasadan
Ezi Klaudieus eta Massinisa
Jarri direla legue hounian.

Bezgisan nahi ginikezu
Gük ere lege bera exerkatu
Eta feit hork dela kausa
Erregeren desgraziun jarri gutuzu.

<u>Romein mintza</u>

Neron hire erranak oro
Ezagutzen zitiat fabula
Nourn ezin ezarten beitut
Sinhestenik sekula.

Hik nahi uke segoundatu
Judasen exenplia
Bendenbrau trahitu
Julaz Aita Saintia

Bena imposible izanen zaik
Hire finaziez baliatzia
Inutil eginen duk
Aldi hountan bidagia.

Alle perfida traidoria
Superbiaz bethia

Guti artetán sarri
Trenka nitzirok baria.

Zuhur bahiz phenxa egak
Retiratzia bertan
Bestela ore lagunekin
Ezarten ayt axisetan.

Lucien mintza

arrazoin horien guri sinhex erazteko
Sobera dutuzie minak gaisto
Non ezpeitzeradeie Kapable
Ihorren inganatzeko

Flateria horren pian
Nahi zinatekeie sarthu horian
Bena guk eskusaturen zutiegu
Bizi giren mundian.

Alle voluz saldoua
Behar duzie phakatu
aberentu hountan jitia
Behar zaizie dolutu.

Koraje ene lagunak
Horiek espiounatzen dabiltza
Bakhois bat utzi gabe
Ditzagun sakrifika

Turgot mintza



alle eskelle zamaria
Sarhote Karrankazia
Izan bezalako glorious
Banitatouz urgilluxia.

Ezun behar zaik dolutu
Sourzeki arrakountru egitia
Ezpalinbaduk tripan
Ifernuko debria!

Ezi gu horra gutuk
Furia handi bateki
Erromako habitanten
ororen degoillatzera.

Eztuk munduan tigrerik
Ez lehou erabiatirik
Oraiko ene kolera
Garhaituren dienik.

Favius mintza

alle koki fripounak
Prepara zitaye bertan
orok behar duzie
Goure ezpatetan igaran.

Jaunak ditzagun konbati
Ezin haboro korthizki
Memento hountan berian
Sartzen nitzaye arteti

Bataillа. Turgot hil. Ballamon blesa. Soné.
Erditan bara. Lucien mintza.

Hori Diala kofia
Merexitu kolpia
Errak ene ezpatak
Gozoua houn dia.

Orai borogatüren duk zer den
Gouretki kontatitzia
Eta khiristi legiaren kontre
Injustoki agitzia.

Berenda zitaye bertan
Orai goure askietara
Edo eta prepara
Munda houren kitatzera.

Resourzarik batere
Eztüzie ez ukhanen
Noun eta etzirradeien
Gouri susmetitzen

Ballamon mintza

Alle phuta semia
Ouste diat nabasiki
Bigotaren aitzinian
Nausatzen itzaitala ari.

Eztiat ez heriorik
Kolpu hori gatik



Sarri baratüren iz
Ordarin bildurik.

Debriak ifernuti jinik
Ezpahaye orroloz eramaiten
Ene ezpatak dük hitarik
Bertan odolez betheren.

O Mahomet eta Tabalgan
Ene Jinkouak noun ziradeie
Behar ordu hountan
Orai sokhorri negazie

Alle kanailla saldoua
Behar duzie maradikatü
Orai nahi zutiet oro
Axisetan laurdenkatu.

Bataillа. Ballamon hil. Neron ezkapa.
Soné. Honorein mintza.

O Lora koraje
Biktoria badugu
Barbaro haien dangeretik
Goure buriak libratü zitizugu

Fabori egin deikunaz
Degagun Jinkoua remestia
Inbokatzen dugularik
Zelietako khortia.

Romeiü mintza

A Barbaro infamu
Krudelitatez bethiak
Zien injustiziez orai
Izan ziradeie gaztigatiak.

Ifernuko su eternalian
Sekulakoz enflamaturik
Jinkoaren kolera handiaz
Justoki punitorik.

Noula beikirade orai
Konbatitzez fatigatu
Aphur bat repausatzera
Behar dugu retiratu

Retira. Soni. Satanak jalki. mintzo.

Oho Ballamon eta Turgot
Ene adiskide maitiak
Allegrantziatan ezarten nai
Zien hebe edireitiak.

Aspaldi handi badu
Desiratzen zuntiedala
Nounbait hilik ediren
Biak algarrekila

Bena ene desiraz oro
Orai konplitzen dira
Aztarot lot adi berhala
Eraman ditzagun artéka.



Eraman hilak eta egin dantza. Soné.
Favieus, Tourdelran, Roquefort, Fluitoz
eta hirour erregiak jalki. Jar eta
Mustafa mintzo

Neron erran ezadazu
Bataillati zer berri
Galdu duzia amenz
Ala duzu irabazi.

Neron mintzo

A Soza bataillati
Berri tristerik duzu
Noureki eraman jentia
Oro ukhen dit galdu.

Eztit ikhousi sekula
Halako kounbatantik
Ezi artez exi nizun
Etsmintzala utzuliren bizirik.

Lehenik tradizionez
Jauki ukhen zitit
Bena ene enfortak
Inutil ukhen zitit.

Gero kounbatitu izan nuzu
Biolentzia handirekila
Eta jentiaren galtzeko
ukhen dit malura.

## Mustafa mintza

Commant, zer debru da haur
Eccalatu behar duta
Hainbeste xangri mundian
Suportaturen ahal duta.

Marcellus, gauri niz orai
adresatzen presentian
beste asaut bat bathitzeko
Behar deriezu zuk eman.

Flutor eta Roquefort
Lagun har itzazu
Eta asaut general bat
Zuk eman izazu

## Marcellus mintza

Ziza gogo hounez ere
Nik phoki eginen dit
Eta ene enfatak oro
Emplegaturen zitit.

Eztit esperimituren
Baten kalitarik
Zer ulaki kondizionetako diren
Legerikez taxarik.

allo ene prinze maitiak
mintza zitaye klarki



Eya baduzienez korajerik
kontatitzeko romanoueki

## Favieus mintza

Ziza hitz horrez nai zu
Suspenituarik ezarten
Eya korajerik badugunez
zehen gutuzun galthatzen.

Ene botza balinbadie
solamente entzuten
odolak houn bilhakaturik
bertan zitezen jarrizen.

Egiteko hortan Ziza
Ez har dudarik batere
Gitian bertan abia
Denboraik galdu gabe.

## Roquefort mintza

Ziza gure gauik zitazu
atersione eskanjia
Presentian egin dezakezun
azken proposamentia

Ene indarraren airiak
Darkitzunez gainian
Eztela ukhen parerik
Sekula ere munduan

Masakre eta arrabaje
Noure aldeti dit egiuen
arrakountzatu guziak
Eue ezpataz igaranen.

Bena orai gitian
memento bat retira
sarri gero jouaiteko
asaut baten emaitera.

Retira. Soni. Jalki Honorein, Lucein, Charles, Richelieu, Dorleaux, Aurena, Massinisa, Claudius, Charles, Romein, Sabein, Julas. Azken jar. Lehiens erditi jalki mintza.

Monseiguem houna nuzu
Turkiara izanik
Bai eta Turk handiari
Zoure mezia deskargaturik.

Trufatzen duzu zutaz
Eta zoure embaxadaz
Eta zu aldiz Klaudius
Nahi zutu igaran ezpataz.

mintzatu zitadazu
zogarnia (?) handi batekilla
ouinxa sou hetatzen beinnkien
ordian soroman izatia.

Nahi ukhen nizie hatzaman
Eta su batetan erraerazi



Bena jakin dudan bezain sarri
Bertan nuzu ezkapi

Tropa destordenariorik
orai duzu preparatzen
Behar dizugu izan asiejaturik
Denbora laburretan barnen.

Baronieus mintza

o pagano infamu
Religione gabiak
Jinkoaren manu saintiez
Bethi trufazaliak.

Khiristien partida handia
Elizaren exekutazalia
Mundu guziaren uzurria
Elementen exemplia.

Inpio orotako krudeleua
Tigriaren paria
Helas ezteia haur oithian
Fleu (?) admiragarria.

Savein mintza

Bena orai da kestionia
Behar beitugu algar enthelegatu
Eta hirour partetara
Armadak repartitu

Romein zuk behar duzu jouan
Zoure armadarekila
Thorre zoinbaiten bastitzera
Cesenako hiriala.

Bergisan zu ere Charles
Nahi zuntukeット othoitu
Batenzouko portian
plazer zunien kampatu.

Turkeen perilleti
Portiaren begiratzeko
Gu aldiz barkatuzen gutuzu Errouman
Haien furiari oposatzeko.

Romein mintzo

Arrazou duzu sobera
o prellat illustria
Houn hartzen dit osoki
Eman duzun konseillia.

Allo ene prinze klariouak
Koraje handirekilla
Jitian orano prepara
Berriz danjeretara

Lucien mintzo

Soza feit hortan gainen
Eztezazula ukhen beldurrik
Ene besoaren indarrian
Egon zite kraukillisaturik



Ene bihotza duzu
allegranziatan egarten
Nahi uduri okasionia
Zoren dudan ediretten.

Jinkoaren zerbutxian
Denboraren igaraiteko
Haren legiaren exayer
Bethiere kombatitzeko.

Soza hox emazu orai
gitian bertan pharti
Biziak gal ditzagun
Edo gloriouski konbati.

Romein jaikirik mintzo

Adio arren Julas
Monarka illustria
Mundian paregabe zira
Saintutarzunez bethia.

Sebiens, Honorein, Lucien eta Romein
retira erditi. Claudiens mintzo

Balenzourat jouaitiaz
Denaz geroz kestione
Zien kompañian gitia
Konsentitu behar deitadazu.

Eta ene arreba anderia
Bere andere aurenarekilla

Nahi dut jouan gitian
oro algarrekila.

Hartakoz arren gitian
orai berian pharti
adio erraiten deizugu
Jaunas Kounpaiñareki

Prelatéz bestiak retira erditi. Berriz bestiak bere gaintiti. Soné. Requefort, Flutér eta Marcellus jalki ez jar.

Marcellus pasiuz mintza.

Nourn iz Romeiñ jalki adi
Emperadore urgillusxia
Eskusa gabe behar duk
Egun galdu bizia.

Egun jiten gituk Turkiarik
Hire destronatzera
Eta denbora berian
Errezomati akazatzera.

Harria harrin gainien
Solamente eztiat utziren
O Sacrebleu egun
orok duzie maradikaturen.

Eta hi altiz Romain
Aita Saintu horreki
Izanen zizaye laurdenkatu
Biak estekaturik zamariekin.

Jalki adi jalki
Eureki kounbatitzera
Bena oraidanik preparaturik
Mundiaren kitatzera.

Romeiñ bere sueitareki jalki. mintza.

Salbaje baten arrama
Zitadak uduritu
alle desnaturatu itsousia
Hi ilgaita houna agertu.

Egun houna presentatzia
Behar zaik dolutu
ore lagun infamieki
Behar duk olinxa phakatu

Kita itzazie idollak
Eta jinko falxien legia
Edo hil behar duzie orok
alo ziendik haytia

Fleutor mintza

alle larhote muthurra
Eskelle zamaria
Izan bezalako enperadore
Gralitatez fethia.

auher ukhen duzie
Egun gouri defendatzia
Zizayen bezalako ez deus
Kanailla xehe athia

Allo ene lagunak korajе
Gitian bertan kombati
Bizia phena graziarik
Ez egun bakhoiz bati.

Batailla. Fleuter hil. Roquefort blesa.
Soné. Erditan bara. Roquefort mintza

o maradikatu dela orena
Bai eta mementoua
Gizounaren suerte gaistoua
Mundialla sortze koua.

Kombat hountan jitera
Sekula ezpanue phenxatu
Enintzatekien ez orai
Gisa hountan blasatu

O Belzebut eta Jupiter
Mahomet eta Tabalgan
Injustizia orrible haur
Nola kometitu duzie oithian.

Lucien mintza

Ignorant miserablia
Ezaguterik gabia
Izpiritu floretan abisez
Idolek ilusitia

Dehien esclabagian
Hire denbora duk igaraiten



oustez beritable diren
Jinko eztirenen adoratzen.

Harturik bihotzian dolumena
Egin ezak bertan penintentzia
Moyen horez jardiex deza
arimaren sallamentia.

Roquefort jaikirik.

alle khiristi aphoua
Zertaz itzait mintzatu
Insolentzia horrez nahi nitzaik
mementian bengatu.

Nahibada nizan blasatu
Enuk ezoraino loxatu
Daigun batailla nahi derat
Sephoua oundoty trenkatu.

alle kanailla saldoua
Behar duzie maradikatu
oro nahi zutiet
Bizirik lardatu.

Batailla. Turkak ezkapa. Soné. Romeiu mintza.

alle barbaro saldoua
Bertan lekhu egin duzie
Goure Indarraren airia
Nouiz ere senditu beituzie

Zelietako Jinkoua
Grazia egin deikuzu
Tirano krudel haien artian
Biktoriou eloki gutuzu

Hox orai hebenti
Gitian retira
Merexitu dugu ingoiti
Bira kolpu ematera

Retira. Soné. Sataník jalkiu. mintza.

O ho Fleutor gaizoua
Eta oithian hiltea ika
Ala beteitak egiten
Egun plazer handia

Hire kenoua aspaldian
Preparaturik bauia
orai behar duk jouan
Haren eskunatzera

Harbera abia.

Bet diable ala hi sortha
ounxa hazi intzan eskierki
aztarot lot akio bestan
Eraman dezagun hebeti

Retira hilareki. Soné. Turkak oro jalki.
Iru jar. Mustafa mintza.



Marcellus zoure kanpaiñati
Zer berri ekharten duzu
Eman dere enn asautian
Bazinadia biktoriou gerthatu

Marcellus mintza

a Sera balin baniki
Noula utzul arraposta
Dolore handi batek
Ene bihotza sesitzen dizu.

Ez ez malesouski
ukhen dit desfortuna
Bataillan galdu ukhen dit
Ene jentiaren erdia.

Haien kolpiak dutuzu
Harri orafia uduri
Debriek elirogu pazentzia
Ihesi jouan gabe hen aitzineti

Frangiako Erregia
bere armadareki
Balentzoun kanpatu dagu
Claudieuz eta massinisareki

Mustafa mintza
Posible deia oithian
Claudieus eta massinisa
Balenzouko portian
Kanpaturik direla

allo Jaunak bertan
Egon gabe habors
Behar dugu preparatu
Haien atakatzen joaiteko

Jitian arren phasti
orai oro algareki
asaut bat eman diezegun
Ezin habors bosthitzik

Paseia. Soné. Claudieus eta Charles bere sueitareki eta auderiak jalki. Mustafa mintza.

ah Claudieus marabikatia
Traidore paregabia
Eta hire Massinisa
Sibertina infamia.

zuik zirazte ene khorphitzeko
Zaiñen eihar era eizaliak
Bai eta mundu hountako
Egunen laburzaliak

Bena behar badut ere enkas
kitatu bihar berian
Egun phuru nahi niz
Ounxa asse zien odollian

Massinisa mintza

aita othoitzen zutut
Jar zite konsiderazionian



Egin dugun alliantzaz
memento hountan berian.

Bena plazer batén egitez
Suplikatzen zutut bihotzez
Beztenboran arrapizitzen
Jesus-kristen phartez

Idolen uxumentuti
Nahi zinaudien jalki
Eta zoure arima gaxoua
Sallamentuzko bidian ezari.

afeisi ahal zinezen
Eternitateko phausia
zoin beita zelietako
Plazer eginago dohaxia.

Claudieus mintza

aita exortatzen zutut
umillitate handirekilla
Eta ordenatzen zoure seme
Bihotz trenda uizan bezala.

khanbia zitian sentimentuz
sebeti eitzina bakian izateko
Eta oraidranoko trouble
Orozen kaluna ezazitela.

Zure emouz gaitza eta
kolera amatika itzazu

othoitzen zutut graziaz
Eztitarzunez ikhous gitzazu.

Hortakoz othoitzen zutut
Plazer zitaiztan behatu
Eta Khiristien legialla
Katolik errendatu

Mustafa mintza.

Alle insolent maradikatia
Inpertinentziaz bethia
Arragon hori entzunik
Noork dirorke pazentzia

Allo Jaunak Koraje
Behar dugu Konbatitu
Eta Kanalla seldo haur
Sarda eta degoillatu.

Claudius mintza

Helas ala beita haur
Gauza ezinago estranjia
Eta naturalizaren Kontre
odolaren reboltatzia.

Ezin enpexatzen giren geroz
Konbatian sarthu gabe
madama zoure andereaurenareki
aphur bat baztar zite.

Anderiak gibelt.



O zelietako Jinko
Photere orog Konplitia
othoi gutara eraix ezazu
Zoure photere handia!

Charles zuk behar duzu
Ene aitari buruz Konbatitu
Ezi ni enuzu nahi
Nihaur bortzeu zerbutxatu.

Batailla. Turken gaintialat erbitan bara.
Soné. Favieus mintza

Zer debru erran nahi da
Ezin dut konzebitzen
Lejione maradikatu haur
Noula den Khonbatitzen.

Ene openionian hoyek
Zounbait magizien dira
Ezi xitzerora beno usuago
Hoyen kolpiak jiten dira.

Udurí dizie airian
Hegalez dirella ebilten
othoi gitian hebeti
Ezkapa lehen beno lehen.

Bataillа. Turkak ezkapa. Soni.
Charles paseinz mintza

alo Jaunak koraje
Biktoria badugu
Jinkoaren grāziak
Ukhen gutu fabōritu

Junta andereki

orai libre girade aphur bat
Turken Olangereti
Eztirade ez hounat
Utzuliren hain sarri.

Bena noula beizouatēn
orai regiam sartzera
Bedaxia jin artio
Behar dugu retiratu Roumarat.

Retira. Sonu egiliak jouan persurien xer-
kara. Satān, Aztarot jalki. *Satān mintza*.

Aztarot orai artio
ounxa zerbutxatu ukhen aik
Bena Theten harat eu
orano hobeki behar naik.

Nahi derct eman diharru
mountant inorme bat
Halaz hil ahal diza genti
kantitati handi bat.

Tho arren diharia
Berrogei milla libera



Eta gero phartiadi
Mundiaren kourritzera.

Eman diharia. *Aztarot mintza*.

Jauna banouagou orain
Kampaña egitela
Laur orenetan barnen
Mundiaren kourritzera.

Hanitx malur eta ravaje
Nik dit kausa eragiren
Hitz emaiten deizut nounbre
Handirik dudala ekharriren.

Satān retira. Aztarot paseia. Soné.

Jaunak eniza ni orai
Diharuz ounxa kargaturik
Ezta mundian gizounik
Ni bezain irous denik.

Khiristiek erraiten beituzie
Impresione handirekilla
Debria gaisto eta
Sordei dela mithilla.

orai behar duzie arren
Exemplia ikhousi
Satisfazione osolat
Uthen dizagun amorekati.

Jar kaidora batetan eta mintza.

Gizoun bat hantxe ikhousten dut
Beren zarra oro pelatarik
Bizkarra du konkor
Eta belhainak kakotarik.

Eta bestala arau
Bera amorosez gaintitarik
Egin separatuz beitez
Neskatilla gaztetarik.

Bena neskatilek hari
Eztereie egiten khountarik
Zeren nahiago leilukeie
Zoinbat mithill gazte propirik.

Plaga hortan alleta
Nik ikhousten dut notarik
Bere intenzionen arau
Zounbait emitatzen ehirik.

Oro bira aflikzionetan
Malenkoniak harturik
Batak emazte nahiz eta
Bestiak senhar nahiz errabiatu.

Neskatilari phuru partikularki
Oro daude ikharaturik.
Loxaz eztazen ukhen
Ederrik ez utxusirik.



Saldoua edizen leiteke
ounxa harounti jinik
argia gabe jaikirik
ophil eta arraultzez kargaturik.

Ezkutu ez aleta hourak
Jaun erretorari emaiteko
Bena bai bere oustez
Mouthil gazteki jateko.

Arratxen jouanen dira etxerat
Egunaz algarreki hitz harturik
Duda gabe eginen die hek
Bidetan lan propirik.

Soné. Jin miran Crepous eta Sofista zamariz.
Mustafa bere suxitareki jalki. 3 gehienak jar
<u>Sofista mintza</u>

Salutatzen zutut Sira
Errege puisantziaz bethia
Bezgisan zoure kompaña
Osoki dago admiragarria.

Komprenitu ukhen dizugu
Khiristiaki gerla bazundella
Hartakoz jiten gutuzu
Zoure secoursaren emaitera

~~Noun ziradeye Sorounatko~~
~~habitant desKoditiak~~

~~Egun behar dutugu~~
~~orok galdu biziak~~

Desein hori harturik
Jiten gitzaiku
Nourk gaure zerbutziak
Liberalki ofritzen deitzugu.

Muduko khiristiak
Nahi deitugu umilliaeraazi
Eta zoure ordren aran
Bertan arranjaeraazi

<u>Mustafa mintza</u>

Hounki jin ziradiela
Persako Erregia
osoki duzu laidagarri
zoure generousitatia

akzeptatzen dit zoure ofria
Hanitz plazerekila
Jihauri arren gourreki
gitian aphur bat retira.

<u>Sofista mintza</u>

Sira pharka ezadazu
Hartzen dudan libertatia
Bena othoi konsenti ezadazu
orai bertan phartitzia.



Egin nitezu erphausa
Ene furian handian
Noun egin dan artifizio jaukiten
Khiristien artian!

Kongit hartzen deizut
Sira konpaniareki
Operazionia eginik
Utzuliren nuzu laburski.

Turkak retira. Soné. Magizienak paseia.

<u>Sofista mintza</u>

Noun ziradei Erroumako
Habitant destorditiak
Egun behar dutuzie
orok galdu biziak!

Ni deitzen niz Sofista
Persako Erregia
orai artiokoua beiteizen
oro arraillería.

Eztu mundian magizienik
Ni begain abil denik
Simouniakoerik eta <u>nikolaitearik</u>
Ene inklinazionekorik.

Kalvenista eta Ebionita
gutiago Janzenistenik
Luteranik eta antekristik
Ni garhaituren nai enik

Jalki zitaye arren
Korajerik balinbaduzie
Munduko gizounik üsaxienari
Komparitü behar duzie.

Soné. Libieus, Lucien, Charles, eta Romeiñ jalki erdixeti. Romeiñ tzatiaren hegian.

alle nazione gaistoua
Zerk zutie houna ekharri
Deskanpatzen ezpazirade
Phakaturen duzie sarri.

Eztugu ez lehen aldia
Ziek begalako elibatén ikhoustia
Ezpeiteiki sekula
Galerazi korajia.

Ezpaduzie harten
Persarako bidia.
Segur dauzie orori
Bertan bizien galtzia

Ressoursarik ezta
bateu gientako
aitzinago utzi gabe
Echo nahi zutiegu orí.

Lucien mintza

alle Persuriin infamu
artefizio gaistoz bethiak



magizien eta traidore
mundu oroz aprobatiak

Imposible izanen zaizie
Zien rusaz baliatzia
Bai etare egun
Erroumako hirian sartzia.

alle zirayen bezalako
volleur celerat athia
gerlarik deklaratü gabe
Jin zirazkien atakatzera.

Bena gu preparaturik gira
Zien eposatzeko
Biziak gal artio
Bethi kombatitzeko.

Urhax bat aitzinago
abantzatzen bazirazkie
Gourre ezpaten ahouetan
Biziak utziren dutuzie.

Tzatian sar presaka. Khiristiak jin...
Sofista mintza

alle burhugaria
Buru handi zentzu txipia
Behar zaik alleta dolutu
Thermaiñu horiez mintzatzia.

Allo Jauna Koraje
Gitian sar Konbatian
Eta Kanaiila saldo haur
Laurdenka menentian

<u>Lucien mintza</u>

Zentzia badut txipi badut handi
Harez eztiat nik ogenik
Ore lagun inpertinenteki
Sarri jakinen duk hik.

Allo gitian Konbati
Eginago zinglanki
Fillou horiek ditzagun
Bertan akazu heteki.

Bataiila. Magizienak eskapa. Soné.
<u>Romein Jar eta mintza</u>

Koraje ene printziak
Feu de joue eta allagrantzia
Zeren persurienatan gainen
Irabazi dugun biktoria.

Zelietako faboriaz
Izan gira protejatu
Hartakoz behar ditugu
Graziak errendatu.

Edo berriz jin badiltiere
Nagione gaisto horra



Gitian hardiki esaia
Hain defendatzera

Eztugu behar utzi
Batere Erroman sartzera
Oro behar dugu arrastatu
Haboro utzutzen badira.

<u>Lucien mintza</u>

Sira eztuzula anxia
Eginen dizugu egin bidia
Bai eta fikatzeiaturen
Aitzinala agertia.

Ni ene aldeti nuzu
Seriouski Konbatituren
Eztiret ja segurki
Graziarik eginen

Ene arrakountriialla
Zoin ere beita suertatzen
Bertan hasten ahal dezu
Hiltziaz sounjatzen.

Ene ezpata dolu gabe
Zinglanki dit erabiliren
Arrakountiatu guziak
Harez beitutut igaranen.

Passia eta retira. Soné. Baztérreti jalki
Favieus, Tourdebun, Roquefort, Miran,

Orpus, Sofista, Marcellus, Neron, Mustafa. Laur jar. <u>Sofista mintzo.</u>

Sira goure majestatiari
Etzakit nola behar dudan presentatu
Eta berri ahalkegarri batén
Deklaratzera ausartu.

Egun goure oretzian
Konfus nuzu gerthatu
Zeren Khiristi Romanouez
Izan beikirade goithu.

Behar dit armada bat bathizegorik
Oraiko bidajian eraman
Eta Romanoak oro
Ikharaerazi bertan.

Behar dizie maradikatu
Egpadie debria
Bait eta resourzarik gabe
Zoinbatek ikhousi Turkia.

<u>Mustafa mintzo</u>

Sira goure purporsaz
osoki kountén nuzu
Hartakoz eue jentetarik
Zoure armada suplituren duzu.

Kabalier hobenetarik
331.000 duzu harturen



Eta asaut general bat
Roumanouez emanen.

Bena orai gitian
Memento bat retira
Gouazen barnialat
Aphur bat repausatzera.

Retira. Soné. Persurienak zamarietara. Satanak jalki bi lekhutarik. <u>Aztarot pasearaz mintzo.</u>

Jauna houna nuzu
Kanpaña egitén izanik
Eta zuk eman ordrez
Fidelki akitaturik.

Izan nuzu Italietán
Portugalen eta Saboian
Modonan eta Cicilian
Eta nakoneko Khiristi herrian.

Asoziant elibat ere
Noure khountuko gitirakisita
Eta orai presentian
Zoinbait nahi dit izentatu.

Rodis, Gratis eta Fraktris
Taillukét, Berdoulet, Maillukét,
Orori diren lekhiala jouanik
Sudurra uzkuti sar ezek.

Horien ororen siñetak
Orai paper hountan beitira
Irakour itzazu zihaurk
Eta exaumina ounxa

Satanek irakour eta mintza

Pardie hik Aztarot
Egin duk balentia ederrik
Hire abillitate ederrak
Ezarten nik admiraturik.

Hartakoz arren gitian
aphur bat paseia
Dezagun gorati khanta
Eta egin zoumbait zinkha.

Khanta eta zinkha egin. Satan mintza.

Aztarot segur begainbat nuk
Orai hi einherik izala
Hartakoz hobena diagu
Joian gitian phausatzera.

Persuziem jin zamariz. Sofista mintza

Oho Romeiin noun iz
Erromako Emperadoria.
Presounziones eta
Banitatez bethia.



Eta hi ere Judas
aita Sainta pretenditia
ore Korsort oroeki
Behar duk galdu bizia.

Jalki zitaye ingoiti
arraposta emaitera
Belharrikaturik umilki
Hiriko giltzen remetitzera.

Crepus mintza

Sera haur dugu sobera
Pazienzia ukhenta
Eta inutilki hetan
Denboraren igaraitia

Gitian bertan abantza
Haboro egon gabe
arrakountzatiak lauzdenka
Bakhoits bat utzi gabe.

Egin nitezu repausa
Ere motibentian batere
Eta kolera eztirot amatika
Hiri hountan sarthu gabe.

ager zitaye bertan
Giltzen emaitera
Edo giten gira horra
Bortxaz edekitera.

Soré. Jalki Romeiñ suietareki.
<u>Romeiñ buruz mintza.</u>

Alle zirayen bezalako
abere brutal athia
Egun behar zaizie dolutu
Ungurune hountara jitia.

Inutil ukhenen ~~dutu~~ dutuzie
Zien artifizionak oro
Eztirade uski adret
Hiri hountan sarthzeko.

Allo Jaunak bertan
Gitian prepara
Fripon horik ditzagun
Harrikaltkuz akaza

Harrikaldusta. hirau mintza.

Harrikaldu ohar (?) hoiek
Txipi balinbadira ere
Borontati odola
Jauz erazi deitade.

Zouiñek errabiatia bezala
Kolezetan lenaiezarten
Uduri zait exaietan
Gaiña nigala jauztin.

Phakatuen duk aletu
Eni kolpu hounen emaitia



Denbora laburretan barnen
Izanen duk hire sefentzia.

abia kiatian sarthzera. <u>Romeiñ mintza</u>

Eguriozkie (?) egizu
Inpertinent saldoua
orai behar duzie ezebitu
Rekonpentsa osoua.

Allo Jaunak ditzagun
artilleriak prepara
Eta deskargia eragin
Inpio hoietan gaiña

4 tiro thira. Infidellak gaz triatiallat. <u>Romeiñ gibelt.</u>

o Jinko justoua
Egun ikhousten dizugu
Zoure protekzionetik
Gutuzula abondenatu.

Bena Jauna othoitzen zutut
Justo balinbada
Zoure fabori handia
Heda ezazu gutara

Jalki zitaye Julas
Eta Frantziako Erregia
Bestela exaiek dikie
Sori beztitzen hiria.

Anderiak salba. Jalki besti khiristiak oro herrokala. <u>Crispus mintza</u>

Alle Bougre saldoua
Behar duzie marradikatu
Egun ~~gota~~ gouri Komparatzia
Behar zaiai dolutu

Gure ezpata krudellak
Zietan nahi dutugu odolstatu
Bakhoitz bat utzi gabe
Oro masacratu

Orai behar duk ikhousi
Txatxoren airia
Franziako errege
Favoritatez bethia

Charles mintza

Alle persurien infame
Figurazia gaistoz bethia
Etzaik ez posible izanen
Egun gouri atakatzia.

Allo Jaunak koraje
Ditzagun bertan kombati
Bena graziarik ez egin
Solamente bakhoitz bati.

Bataillia. Kiristien gaintiallat eta erditan bara. Soné. Sofista
mintza

Orai da orai Jaunak
Goure oren predestinatia
Eta magiaren jokhatzeko
memento favorablia.



agourik a les eta alse (?)
operazione egizie
Pikaren borthutez Poeta?
Khiristiak inkanta itzazie

Miran tha zinta haur
Khiristi horik esteka itzak
Eta plano eder hountan
Xuti inkantaturik ezar itzak.

Miranek franzesak ungura zintaz eta ezar tapiz
khantian. Judas, Baronieus eta Sabeiu esteka bere gainti.

Sofista mintza

Allo jaunak koragu
Orai badugu biktoria
Ditzagun koki hoiek kondusi
Turk handiaren aitzinialla.

Soné. Iru errege turkak jalki eta jar. Sofista jar. mintza

Sira felizitatzen zutut
Goure abilitatiaz
Oraiko bataillan egin dugun
Balentia handiaz.

Azken kombatian dizugun
Presa bat egin ederrik
Eta nombre deskordenari bat
Hatzaman Khiristietarik

Hoiek dutuzula noun diren
aita Saintia, kardinalak eta aphezak

Haritxetan mesperaxatu beitie
Goure Jinko handia.

Frangiako bregaren ere
orai eztükegu danjerik
Ezi Akilean baratu dütugu
Bere armadeki inkantatürik.

<u>Mustafa mintza</u>

Hounki jin zirediella
Sofesta ene adiskidia
allagrantziatan ezarten dügu
Ene bihotz guzia.

Jaunak behar die hirourek
Presontegian ezari
Gosia eta egarria
Behar zaie sofri erazi.

Ezartzie ulhunpezik handienian
Zazpi giltzen pian
Sekula thabere argirik
Ikhous eztezen lekhian.

Prelatak gaztelian ezar eta Turkak oro retira. Soné. Lien
aingeria jalki. <u>Lien franzeser buruz mintza</u>.

Kreaturak hounna niz
Zien bisita egitera
Zeluti odria dudan begalla
Zien errekerizitzera.



Trinitate Saintiaren borthuz
Nik zutiet rekirizitzen
Magiagko estekatu hountarik
Berdenboran libratzen

<u>Zinta laxat. mintza</u>

Adresa zitaye Jinkoari
Umilki zien bihotzez
Eta denbora igaran
Haren zerbitzian bizitzez

Aingeria retira. Soné. Franzesak belharika.
<u>Richelieu mintza</u>

Remestiatzen zutiegu
Zelietako mesagera
Zutan ~~Kontif~~ Konfidanxa dien
Sollojurik handiena.

Helas ala beitugu rezebitu
Egun fabori handia
Saidatu zirela Jauna
Jinko photeraxia.

Zoure photére handiaz
Goure idéia azkart ezazu
Infidelen destruitzia
Othoi permeti ezaguzu

Jaikirik
Grazia handi hourez
Jinkouak protejatu gutien gero

Gitian retira hebeti
Repausiaren hartzeko

Retira. presountegiti. Sone. Sauveus mintzo

Helas ala beikira oithian
Suertatu lekhu tristian
Eta ~~bestalle~~(1) orano
Danger ezinago handian.

(1) Bestalthe

Ulhunpe ikharagarri hounek
Alde bateti nai espantatzen
Bestalthe langitarzun batek
Orotle flakatzen.

Gosiak eta egarriak
Bihotza derit flakatzen
Bai eta ene indarrak
Oro faillierazitzen.

Ala esklabago tristia
Beikurnien egonkiten
Burdiña hoien phegiak
Osoki nai genatzen.

Behar dugu heben berian
Heriona besarkatu
Edo hebenti jalkitekoz
Martiriona sakrifikatu.

Hartakoz orren gitian
Korajouski prepara



Jinkoaren amouzekati
Goure bizien galtzera.

Presountegi aitzinian belharika Baronieus mintzo

Adoratzen gutugu Jesus
Erregen Erregia
Jinko Unibersala eta
Photere oroz komplitia.

Zoure klaritate handiaz
Othoi esklari gitzazu
Eta hil gizenian zelian
Erregeti gitzazu.

Zoure miserikordian dugularik
Konfidanxa ezarten
Herioaren haiduru
Heben gutuzu baratzen.

Lieu aingurin jalki. Lieu mintzo

Jaunak konxola zitaye
Behar duzie allageratu
Jinkouak etzutie nahi
Orano abondenatu.

Koundusitu ukhen zutie houna
Zien falten ezagutearazteko
Eta hari zor derozien
Respectiz ozhitezazteko.

Bena ni jiten niz
Bisita errendatzera
Presountegi ulhun hountarik
Zien libratzera.

Idoki burduñak. Lieu mintza

Ukhen ezazie koraje
Eta Jinkouari gomenda
orai begala bethi
haren legia justenga.

Burduña hoien esklabagoti
orai libre giratezke
mundiari exemplu hounetako
Bethi zerbutxa gitaye.

Banoua orai hebeti
Jinkoaren othoitzera ziegati
Nik eman deitziedan odrez
Arezita gitaye fidelki.

Aingeria retira. Julas mintza

Remestiatzen gutugu
Jinkouaren zerbutxaria
Etzikugu ahatzeren segurki
Zoure odren exekutatzia.

alla fabori handia
Guk beitugu rezebitu
Esklavage triste hountarik
Zeren giren libratu.



Jaunak gitian arren
Hebenti parthi berhala
Hala denaz gaiñian
Jinkouaren plazera

Dezagun har mementian
Erroumerako bidia
Hara heltu bezain sarri
Saluta emperadoria.

Paseia. Soni. Jalki Sebiens, Honorein, Lucien, Romeiñ.

Julas mintza

Jinkoak egun houn deizula
Emperadore illustria
Bai eta denbora berian
Bere bake saintia.

Jiten gutugu Turkiatik
Han esklabo izanik
Presontegi ulhun batetarik
Jinkoaren permisionez libraturik.

Romeiñ mintza

Hounki jin giradeiela
Monarka inbisibliak
Bihotza derit allageratzen
Zien heben ikhoustiak.

Bena Jinkouaren probidentziak
Kondusitu gutien gure houna

Gitian algarreki etxira
aphur bat repausatzera.

Retira. Sorri. Turkak oro jalki. Mustafa mintza.

Tourdeban eta Favius
Behar duzie jouan presountegiala
Eta han diren presounerak
Esakharri eu aitziniala.

Tourdeban eta Favius jouan presountegialla eta utzul. Tourdeban mintza.

Siza goure bidagia
Inukl ukhen dizugu
Egi presountegia ~~ta~~ huxik
Arrakountatu ukhen dizugu.

Zonbait magia kolpu
Haiek dizie jokhatu
Mayen harez beu buriak
Beitutie libratu.

Mustafa mintza

Zer debru da hau
Sacré nom pa de chien
pontte bizatu oithian
Fripon housak eskapa diren

Zer debru magia
Haiek jauki ahal die



Zounbait Koursotek segurki
Housak libratu dutie.

Egin khiristien jinkouak
Egtu hainbeste pothere
Nouk kapable izatu ahal den
Halako akzione baten Egile?

Alla impertinentzia handia
Insolenzia pare gabia
Posible izan othe zait
Pazientzia ukheitia.

Tourdeban mintza

O Erege handiak
Permeti ezadazie mintzatzia
Deklara ahal dezadan
Eue sendimentia.

Khounbatitzera jouanik beno
Hobeki eginen dugu
Tenoria egunki eta
Aisago atakiren dutugu

Gaiza segura da egi
Beu legiaz insultaturen gutiella
Eta berriz eu orano
Enbasadori igorriren diella.

Siza behar dizeugu igorri
Enbasadore harek

Nahi zirella zu ere
Khiristi legian jarri.

Claudius eta Massinisa
Eta Dorleanxeko dukia
Jin dakitzun Balentzouza
Oro algarrekilla.

Nahi ziradiella jouan
Haieki Erromara
Bai etare batheiatu
Khiristien legiala.

Moyen harez dikizugu
Ordian aisa atakiren
Zeren gainti orotarik
Beitukegu unguratuzen.

Favius mintza

Soia Tourdebranek
Ounxa dizu pheuxatu
Eta nezesari duzu
Izan dadin exekutatu

Ordre houni jarraikiteko
Gitian hebeti zetira
Gouazen barnialat
aphur bat ezpausatzera.

Retira. Soné. Khiristiak oro jalki eta gehienak jar. Anderiak ere. Sabeiñ mintza.



Jaunak nahinintzateke
Bi hitzez mintzatu
Eta ene beithan hartu dudan
Ideia bat zier komunikatu

Ene deseiña lizateke
Turk handiaren konterteraztia
Eta enbasadore baten harzara
Hari presentatzia.

Behar derogu ororen botzareki
Enbasadore bat igorri
Bait eta desidatu
Kundelitate handireki.

Ziek ere hortan gaiñen
Mintza zitaye aitzina
Jakin dezagun nola den
Zien sendimentia.

Charles mintza

Monseigneur ounxa duzu
Zoure deseiñ hartia
Bai etare nezesari
Enbasadore bat igortia.

Amourekati egin dezan
Moyen harez bere egintidia
Desdie kundel hareki
Har dezan Khiristi legia.

Bergisan ziek ere
Claudieus eta Massinisa
Behar derzie igorri
Zien sentimentia.

Claudieus mintza

o prelat illustria
Eztegazula ez phenxa
Gutiago desiratzen dugula
Haren Konbertiti erazitia.

Sabeiri behar deizu arren
Othoi zuk phena hartu
Embasador horen memoria
Behar deriozu Lebieusi ditatu.

Sabeiri mintza

Lebieus behar duk Joan
Berriz orano Turkiara
Gure ororen parthez
Embasador baten egitera.

Eta behar deriok erran
Mustafa Erregiari
orai igorten deriogula
Boti batez alganeki.

Kita dezan Mahomet
Eta beste idollak oro
Haien feirola falsiez
Eztadin zerbutza haboro.



Bena egin degan bertan
Guk igorten derogun
Bestilla segurtatzen dudalla
Saburski dolutuko zayola

Galdia datekiala
Eztela izanen haren bizirik
Izanen dela su batetan errerik
edo bestela urkhaturik.

Egin dezan hortan gainean
Bertan reflekzione
Jin dadin batheiaren rezebitzera
Denboranik galdu gabe.

Lebieus mintza

Monseigneur banoazu arren
allagrantzia handirekilla
Zuk eman mesageriaz
akitaturen nuzu ounxa

adio Jaunak orai
Banoua urhax hountan
Ihounere eniz repausaturen
Sar artio Turkian.

Lebieus pasaia. Bestiak retira. Jalki Turkak oro.
Laure jar. Lebieus mintza

Benedikatia dela Jinkoaren eskuti
Julas eta haren konpania
Eta hi aldiz Mustafa
ore lagunekin konjondi azala.

Julasek eta aphezkupiak
Hire gana igorten ~~nik~~ nie
Hire semiak eta Frantziako Errege
Bergisan manhatu nie

Igorten deie batheia odin
Beste asomazionerik gabe
Egin dezan ore legiaz
Bertan abjurazione.

Ezpaduk bertan egiten
Nik erraiten deriadana
Hitz emaiten deriat
Segurki dolutuzen zayala

Galdia izateki
Eztukek hire bizirik
Izanen iz su batetan errerik
Edo bestella urkhaturik.

Mustafa mintza

Sebieus erran ezok
Julas Aita Saintiari
Nik igorten deriodala
milla karga gorainzi.

Eta egin dudala konzertu
Ene Errege lagunekila
Khiristi legian jartera
orok deliberatu dugula.



Bena Claudieus eta Massinisa
bai eta Dorleanseko dukia
Jindakizkun Balentzoura
Batzarren egitera.

Joanen girella Erromarat
oro algarrekilla
Nahi girella batheiatu
khiristien legiala.

~~Egun~~ Egunen burruko
Erroman giratekiela
Bena eztazen faltarik egin
Jitez Balentzouka partialla.

Sebieus mintza

Sira banouezu arren
Deligentzia handizeki
Zuk eman meziez
abisatuzen nuzu laburski.

Sebieus retira. Mustafa mintza

Jaunak aisa dugu orai
Projeta exekutatuzen
Fazilkiago ihoulare
Eztutugu galerazizen.

Kampaiña hartara direnian
Behar dutugu ungeratu
mementian hatzamian
Eta gero presonatu.

Neron mintza

Abis solidoagorik
Elzunukien phensatu
Allo Jaunak bertan
Behar du exekutatu.

Saldoua erregek dizie
Tradiziou phensatu
Bai etare moyen harez
Gloriouski triounfatu.

Zoure seme eta alhabek
Nahie ezpadie hartu lehenekoko legia
Eta adoratu Mahomet
Goure jinko handia."

Kuba bederatan barnen
Behar dutuzu ezar erazi
Phikian eta olioan
Gero frigi erazi.

Marcellus mintza

Neron goure konxeilliaz
Ezinago kountent nuzu
Eta justo dizu izan badin
Bertan exekutatu.

Franziako errege eta
Destronatuzen dugu gero
Ordian bururagi gitatekie
Haren erresoma ordentatu.

Ziek ere prinze gaztiak
Oro adret izan zitaye
Balentzoura direnian
Bertan unguru itzazie.

Tourdebran mintza

Sóra eztuzula anxia
Eginen dizugu goure eginbidia.
Baita eta hatzemanen
Sehen arrakountratia

Solamente behar dizugu
Sehenik egin konzerta
Nouta behar dugun
Haiegana huillantu.

Ziek laurek behar duzie
Jouan begithartez heraiegan
Gu aldiz beste kantou batetarik
Unguratuzen girade gitetialla.

Moyen harez dutugu
Oroi aisa atakizen
Bai etare gero
Plazer duguna eginen.

Favius mintza

Tourdebran arrazou duk
Ezinago segurki
Izpiritu zentzual batez
Mintzatzen iz hi bethi.

Bena orai gitian
aphur bat eretira
memento bat repausa eta
sarri phartituren gira.

Retira sorie. Jalki Khiristiak. Anderiak ere bai.
Gehienak jar. Jalki Sebiens erditi. mintza

Monseigneur ounxa operatu diza
Zuk eman Komisioniak
Turk handiagana
Eman zeuzitan meziak.

Bere Errege lagunekilla
Egun dizu Kontzertu
Eta Khiristi legian jartera
orok dizie deliberatu.

Bena Claudiens eta Massinisa
Bai eta Dorleanxeko Dukia
Behar dizie joan Balentzoura
Batzarren egitera.

Egin deitzien ogenez
Pharkamentu deiziela galthatzen
Eta orano berdentoran
osagarria desiratzen.

8 egunen buruko
Hourak apestituren direla
Bena eztizazien faltarik egin
Jouaitez Balentzouko portialla.



Massinisa mintza

O pluger egiazkoua
Jinkoua dela laidatu
Haren bozonthate saintia
Bethiere Konplitu.

alla berri ederra
Beitugu rezebitzen
Zointan bihotza beitzait
osoki allagerazten.

Laidatu gitela Jauna
Mundiaren arraeroslia
Arimen Salbazallia eta
Erregen erregia.

Deusbarik galdu gabe
Hox arren mementian
Errege haien sallutatzera
Bertan pharti gitian.

Dorleaux mintza

Jaunak loxa dut bihotzian
Traditzen ahal gutiella
Eta halaz bizien galzia
arriskatzen dugulla

Sekulaz geroz Turkak
Bethi dira traidore
Hartakoz giza horiek
Ezta hantat fidatle.

Bena biziaren galtziaz
Zounbat ere segur beiniz
Zien plazer egiteko
Bethi ekharria izanen niz

## Charles mintzo

Dorleaury othoitzen zutut
Egon zite ixilik
Eztezazula har bihotzian
Sekula holako beldurrik.

Zoure emaztia eta Kuiñata
Eztutukezia Konpaiñan
Zein beitizateke houzak
Zu bezain arriskian.

Bena Konsidera ezazu
Erregebitzen duzun ouhouria
Bai eta delibera
Mementian phartitzera.

Zoure giharreko Jaunaren
Prendeziareki sallutatzera
Eta hartu dian disein hounaz
Kortesiareki fellizitatzera.

Richelieu Charles Bourbon eta Lebieus
Lagun dutuzu hartzen
Eta fidanzareki
Ahal zirate phartitzen.



Jaunak behar dutuzie arren
Ziek ere Konpaiñatu
Eta beharretan helzen badira
Bethiere sokhorritu

## Richilieu mintzo

Sira nik ja eniaz
Hitz deritzut emaiten
Allegrantzia handireki
Detudala Konpaiñaturen.

Nekien ere ordian
Han berian hil behar nukiela
Zouri obedient izatiagati
Parthi nintezo berhala.

Bena eztit ez beldurrik
Batere segurki
Zeren abiatzen nizan
Kounpaiña ounest houneki.

Bena nahi badi den
Bakia phausaturik
Hole dezu hanitzez
arma goureki harturik.

Noula nahi Kabalier batek
arma gabe eztu aperentziarik
Ezi gutiienik ustel dienian
ukhen dira arrakountra gaistorik.

## Charles mintzo

Richelieu arrazoin dozu
Segurki egin faltó
Zoure konseillia duzu
Eginago solido.

Frantziako kabalier balentik
Zounbat eztugu ikhousi
Tradizionez dutiela
Turkek galerazi.

Turkiako nazionia ere
Sekulaz gero da traidore
Hartakoz armaturik jouatia
Orren abantailla dateke

Nahi bada errege eta printzesak
Dutukegun kounpainian
Hoiek bez gu bezala
Dizateke bet danjerian.

Bena ere girade obligatu
Erregeren obeditzera
Eta harek emaiten deizkun
odren exekutatzera.

## Barbon mintza

O Charles dakia
Ezin haboro noblia
Errege Jaunaren eretzian
Respektuzki mintzazalia.



Areta ni ere segurki
Nouziaz erraitera
Ekharria niz Erregeren
Eta kounpañaren obeditzera.

Nahi bara danjer handietan
Giradien disposatzen
Ene aldeti segurki
Eta Egta rebelazionerik izanen.

Bena kounpaiña houn bethi
Behar dugu egin algarri
Zer nahi okasione helturik
Bethi algar sokhorri

Errkas eta errege hourak
Malezian lizen ordian
Algar eztugu behar kitatu
Sekula bere bizian.

## Charles mintza

Sebiens hik dukek ogena
Tradizionerik balinbada
Benahitz emaiten deriat segurki
Kharia kostaren zayala.

Resoursarik gabe
Bizia duk galduren
Nazione harek baiteika
Desodrerik kausatzen.

Sebieus mintza

Jauna uduri zitadazu
Eni mesfida zirela
Bena erraiten deizut egiaz
Arrazourik batere eztuzula.

Zeluko Jinkoa bera dit
Presentian jakile hartzen
Eta kausa horren sustengatu
Lephoua gaje emaiten.

Halaz gaje handiagorik
Egin erraiten ahal dit
Eta zuk bezaigu inozentki
Noure buria disposatzen dit.

Bena okasione hountan
Hil behar badu gere inocentzian
gitian bethieu izan
Jinkoaren grazian.

Claudieus mintza

allo jaunak arren
Gitian bertan abia
Ezi gaizo segurc da hourak
aspaldian bidian direla.

Bagouatza arren gu orai
allagrantzia handireKilla
Esparantzareki utzulizen gialla
Irousuki algarreki ila.



adio arren Julas
aita Saintu illustria
Bai eta hain ounxa
Satein aphezkupia.

Allo ene lagun maitiak
Gitian pharti berhalla
Denborarik ~~gabe~~ galdu gabe
Jaun haien edicitera.

Claudieus, Massinisa, Himera, Dorleans, Richelieu, Charles, Sebieus pasia. Bestiak retira. Soné. Mustafa. Neron, Marcellus, Sofista jalki. Mustafa mintza.

alle Kanailla saldoua
orai behar duzie pakhatu
Egun Balentzouna jitia
Behar zaizie dolutu.

Zien mendekatu nahiz
aspaldian nintzan erraliatzen
Bena orai dut orai
Ene desirna Komplitzen.

Tourdelbam eta Favieus
Zien lagunekin jalki zitaie
Eta Kanalla saldo haur
Bertan ungura ezazie.

Printziak jalki erditi. Khiristien gibeliala. Sofista mintza

alle bougre Khiristiak
Behar duzie maradikatu

Orai althe orotarik
Zitaye bortxatu.

## Tourdeban mintza

O plazer paregabia
Aspaldian desiratia
Orai behar duzie phakatu
Traipou eta traipouna athia.

Aspaldian ene ezpata
Egarriak hillik zen
Bena orai da zien odolian
Segurki ounxa aseren.

## Richelieu mintza

O zelia zer da haur
Ala injustizia handia
Sofrituren ahal duzia
Jinko kreazalia.

Banien bai beldurra
Traditoren gatiella
Eta gogoak zekizitu deita danetan
Eztezik hax egin sekula.

Bena ezta khestionia
Behar dugu defendatu
Eta biziak gal artio
Bethiere kombatitu.



Massinisa eta Himera
Bazter zitaye heteti
Korbat bat eman dezagun
Traidore malerous hoieki

## Massinisa mintza

O zelietako erregia
Erregien erregia
Othoi gutarat izaix ezazu
Zoure fabori handia.

Helas alla beita haur
Othian dolore handian
Aita baten eskuti
Gisa hountan tradituu izatia.

O aita krudela
Krudelitatez bethia
Posible lizatia mundian
Beste baten edireitia.

## Claudius mintza

Aita konsidera ezazu
Zoure kalitate handia
Eta zoure haurren erethian
Ukhen behar duzun prudenzia.

Jakin ezazu Jinkoak
Bere imagina saintiala
Algarri fidel izateko
Kreatu ukhen gatiella.

alliz gisa hatan egitzez
Zoure odolari zira mendekatzen
Eta Jinko egiazko haren
Kounte reboltatzen.

Bena graziaz zutut
Presentian suplikatzen
Eta Jesus-Kristen phartez
Berdenboran ekizitzen.

Othoi nahi zeradin
Deseiriez Khanbiatu
Eta Jesus-Kristen legiala
Bathein eztzelitu.

<u>mustafa mintza</u>

alle zelerat insolenta
Hola iza mintzatzen
Hitz horren erraitia
Nik deriat dolu erazirren.

allo jaunak bertan
Behar dugu Kounbatitu
Ene semiari nahi derot
Nihauzek lephoua mouztu

anderiak bazter tapiz oundouala. Bestiak batailla.
Setiens hil eta erditan bara. <u>Favius mintza</u>

allo jaunak koraje
Bat hillik badugu
Bestiik ere balinia
Sarri erhoren dutugu.



Ene besouaren indarroa
orai dut enplegaturen
Eta Kanailla saldo hour
Erhaus bilhaerazirren.

allo Charles dukia
Prepari adi hiltzera
Ezi hantat huroun gabe
Ikhousten duk exemplia

<u>Charles mintza</u>

o zelietako erregia
Erregen erregia
Munduko Kreatura
orouen Kreazalia

Zuk ez deusetarik
Mundiala gutuzu Kreatu
Eta zoure imajina
Dibinouaz seiñallatu.

Permeti ezazu Jauna
Zerbutza gitzagun mundian
Eta exai Krudel hoien eretzian
Biktorious izan gitian.

Prepara adi arren hi ere
Pagano ~~ix~~ inxolenta
Memento hountan berian
Mundiaren kitatzera.

Bataillak Khiristiin gaintialat. Richelieu eta Charles ezkapa. Bestiak hatzaman auderiak eta bai. Erregiak jar oro. Fourdebran mintza.

Sira hamdeuzula
Claudieus Erregia
orai eman ezozu
merexi dien gaztigia.

Bergisan harzara
Dorleanxeko dukia
Zoin gu beitzu nikeu hausere
aspaldian desiratia.

Massimisa eta Himera ere
Hoiek dutazula noun diren
Zihaurek plazer duzuna
Orotzaz egin ezazu arren

Mustafa mintza

Allo jaunak bertan
Ezarkie oro presontegian
Eta gitian retira
aphur bat presentian.

Presontegian ezar. Taula bat eraiki Fabiensek
Neron mintza
Jaunak Khiristi hil hori
Ezin ikhousten dut heben
Ene begien agerriti
Bertan khen ezazie.



Ezar ezazie zilo hountan
Khorpitz maradikatu haur
amourekati animalek
Jan ahal dazen gaur.

Eta gero gitian
aphur bat retira
Kombateko fatigietarik
Gitian jouan remetitzera.

Hila ezar taulapetarat. Sonu. Retira oro azkarki.
Claudieus presontegitik mintza

Elas eztiradia oithian
Dolorouski goure zorthiak
Orai behar dutugu heben
Triskeki galdu biziak

Bena idollak adora beno lehen
gitian oro prepara
Jesusen amourekati
Thurmentian sofritzera.

Gaiza segura da orai
Ezin falthatzen zaikula
Ihoula eren den gisaz
martirisatu izatia.

Bena ditzagun oro suporta
Jinkouaren amourekati
Zeren haboro sofritu beitu
Harek goure bekhatiegati.

Dorleans mintzo

Claudius ezinago houn duzu
Zoure desein hartia
Eta oroen abantaill-
Jinkoaren zerbutxatzia.

Zeren houra beita goure
Ezdeusetarik kuazalia
Eta guk merexi gabe
Oroen fatorizalia

Zelietako bidiaren
Gouri erakaxtiagati
Khurutxe batetan gaiñen
Hil izan da bolontarioski

Etzielarik bakeu
Harek goure beharrik
Pasione garratz bat sofrituta
Goure ariman salbatziagati.

Dezagun oroen guk ere
Pazientziareki ihuita
Hil ondouan rezebi dezagun
Zeluko gloria saintia.

Massinisa mintzo

O ene espous maitia
Eta anaye ezinago handiak
Osoki da admiragarri
Zien berthute handia.



Zien desein hartiaz
Hanitz kountent niz ni ere
Ezi arimiaren salbamentia
Desiratzen dut nik ere

Mundu hountako thurmentiek
Enaye ez susprenitzen
Zeren esparantxa beitut
Plazer eternalaz nizala gozatuzen.

Gitian oroen korajia
Allagrantzia handiarekila
Eta gogo hounez prepara
Mundu nahasi hounen kitatzera.

Hiruera mintzo

Helas madama maitia
Eta konpañia guzia
Ezinago da agradable
Zien oroen konxeillia.

Gitian oroen isein
Egin ahalaren egitera
Eta munduko hountarzunen
Bihotzetarik apartatzera.

Ezpailirade begala
Oroen abandenatzera
Jinkoaren beraren baizi
Ez ohart ukheitera.

Bena dezagun konsidera
Behar dugula pujentatu Jinkouaren aitzinian
Goure akzione orotzaz
Khountu exato baten errendatzera.

Zointan juje haren begietan
Espeitateke deusere gorderik
Ez etare persounarik
Exempt izatera ahal denik.

Gitian arren prepara
Jinkouaren zerbutxatzera
Haren hountarzun orotzaz
Eskerren errendatzera.

O Jinko zelukoua
Guk othoi fabori gitzazu
Eta zoure gloria saintian
Hil ondouan plaza gitzazu.
~~Presountegia~~
Presountegi hountan
Egunak ditzagun fini
O Jesus-Krist Jauna
Beha zite arren gouri

Satan jouan presountegiala. mintza

O buru nahasi athia
Eta heben zer ari gizadeie
Zien burien galeraztia
Natarziki balentia zaizie



O Claudieus eta Massinisa
Seta handi paria
Sinhexi ukhen bazunie
Sehenago ene konseillia.

Etzinatekeien orai heben
Giza hortan afligiturik
Burduiña handi horien
Phenak jenaturik.

Bena orano ordu houn da
Nahi banaizie sinhexi
Eta Mahomet adoratu
Hebeti aitzina bethi.

Abantailla konsiderablerik
Eneganik duzie ukhenen
Bal musika eta komedietan
Karrouxan zutiet erabiliren.

Massinisa paseiuz

O izpiritu flout
Thurburazionez bethia
Inposible izanen zaik
Egun goure atakatzia.

Zounbat nahi artifizio
Eta ruza phentsatzen ahal duk
Bena goure eretzian oro
Inutil ukhenen dituk

Abil orai besté lekhu batetara
Haietaz usage egitera
Gu aldiz utzi trankil
Jinkoaren gertutzatzera.

Khurutze saintiaren imajia
dugularik inbokatzen
Hire botz phouzoatia
orok diagu rebokatzen.

Satan paseinz

O marabikatu buria
Eu kontestazalia
Inposible izanen othe zait
Hitan posesione ukheitia.

Sakra jarni milla diable
Eztut Behar orano exitu
Bena bai besté gisaz
orano iseiatu.

Noun iz Aztarot ene laguna
Ager adi bertan houna
Hasi dudan projetaren
Exekutatzen laguntzera.

Jupiter eta Aztarot jalki. Aztarot mintzo

Jauna haur naizula
obedientik ni hebe
Zer nahi kestionetan
Zoure zerbitxazale.

Hox arren bertan
orai presountegiala
Khiristi hourak ditzagun
desespera erazitera iseia.

Jouan presountegialla. ~~At~~ aztarot mintzo.

O enuzent miserabliak
Ereterin sinplez bethiak
Gisa hortan duzugiein
Galerazitzen zien buriak.

Jeramentu houin sofritzez
Ouste duzgein salbatuen zirayela
Ounxa trounpatzen ziradizie
miserable pezak aurta.

Ezta ez zientako
Izanen Salbamenturik
Zien kaiderak aspaldian
Ifernian dirade preparaturik.

Hox emazie hox
Gourelki hain ikhoustera
Eta eternitate orotan
Haietan gaiñen erratzera.

Arropetarik thiza biek triate erdiala
Rafael aingeruia jalki eta mintzo.

Aparta zitaye hebeti
Ifernuko printziak
Eztutuzie ez troublatuzen
Houin izpirituak.

Jinko egiazkouak du
Horiez khontu hartuzen
Zeren orok beitie
Fidelki zerbutxatzen

Zouazte ifernialat
Sekulakoz erratzera
Zien kolera injustouen
Rekonpenxaren gozatzera.

Ezkiaz egin +. Satanak retira jauziz
Anguria mintza

Koraja zitaie orai
Allagrantzia handirekila
Eta gogo hounez prepara
Ihurmentkin sofritzera

Bena lehenik behar duzie
Presountegialat retiratu
Gloriaren irabazteko
Martiriouen sofritu.

Jinkouaren borondatia
Hala denaz gaiñian
Gogo hounez suporta ezazie
Doloria mundian.

Ainguria retira. Massinisa mintza
Remestiatzen gutugu
Jinkouaren mandatarian
Exekutatuzen diuzugu
Fidelki zuk eman ordria.



Zu zira gouze argia
Eta arimen gidaria
Othoi eztiezagun zuk falta
Zoure sokkorri handia.

Gitian arren orai
Presountegiala retira
Eta bat bedera iseia
arimen salbatzera.

Retira presountegialat. Soni. Crepus, Mirau, Roquefort,
jalki. Crepus mintza.

Roquefort nahi neikek orai
Gaiza bat proposatu
Bena behar itzaik arren
atenzionereki behatu.

Kolloiñian baduk zilharrez
Teutis deitzen den jinko bat
Eta alde orotarik dutuk hara
Transportatzen pelegriak.

Hartakoz jinko real houra
Guk ere adoratu behar giniekek
Benturaz aberastarzunez
Triomfant egin gintzakek.

Roquefort mintza
Desein hori baduzie
Hain gorati hartu
Ene lagungouaren faltan
Eztu zie behar baratu.

Prestā ezazie arren
Ekipajia ahalaz bertān
Amorekati lehen beno lehen
Pharti ahal gitian.

Mizan retira eta ekhar alforja. Soni. Mizan mintza

Jaunak haur duziella
Prestik ekipajia.
Hartakoz arren orai
gitian bertan abia.

Soni. Oro pazeia eta bara. Mizan mintza.

orai helti girade
Lekhu indikatiala
Jinko horren adoratzeko
Gitian oro belharika.

Belharika oro. Crepus mintza.

adoratzen zutiegu Teutit,
Jinko photerexia
Perfekzionez oroz eta
Dibinitatez bethia.

Ezen goure fantesiarenarazan
Presentatzen gutuzu houna
Esparanxareki hountarzunez
Probeditzeren gutuzula.

Mizan mintza



Jaunak goure jinkouak eztū
Deusere erraiten
Eztākit amenx zerbait
Malezia deikuniz jaukitzen

Hox emazie orai
Gitian parthy Turkiarat
Benturaz urhez eta zilharrez
Bidian betheren zaizkeu sakolak.

Pazeia eta bara erditan. Mizan mintza

Jaunak ikhousten duzie orai
Ezi ulhuna dela
Eta ihounko ere hirietara
Ezin heltzen girella.

Hartakoz hobena dugu
Heben biriau baratzerik
Eta ogi bat beita ene alforjan
Lehen lana haur janik!

Roquefort mintza

Bena gaiza bat nik orai
Nahi deizüt proposatu
Ogia jan beno lehen
Lo bedera egin behar duk.

Bena behar dugu egin
Kondizione hortan gaiñen
Ezi lotarik dugula
Orok amex bedera egiten

Gero ~~[illegible]~~ zoriñ ere bethayo
Amexa ederrenik suertathen
Harek berak diela
Ogia osorik janen.

Crepus mintha

Volaquifet Roquefort
Hori konsentithen dezagu
Holako abis solido bat
Ezin nul uzten diagu.

Ethan oro. Mozan jaiki emeki eta minthe

Ounxa erhoua nintzateke
Ezpanendi okasioniaz probali
Ene lagunek izathar ondouan
Orai egin lizoie segurki

Eozabiatu huillan beininthan
Aspaldi handian gosez
Behar dut ogia orai jan
Horthiz eta haginez.

orai jan eta pasein

Jaunak amenx erradazie
Ordk houn degidala
Nik ere erranen deizet
Astouak jo zithala.

Banoua orai ni ere
Lagunen konpañathera



Eya egiten ahal dudanez
Lo baten iseiathera.

Ethan. Roquefort jarririk minthe.

Alert jaunak orai
Bertan izathar zitaye
Nik egin dudan amexa
Enthun behar duzie

Jaz bestiak ere

Uduri zait izan nizalla
Pharadusu terrestrian
Eta mundian houra bera
Semblable zen lekhian.

Zoiñ beithen plazerez
Eta delizios betherik
Hanko alagranthia handiak
Egari nai admirazaturik.

Uduri zait ezauxi dudala
Jaten eta edaten
Dantzan eta khantathen
Bai eta promenathen.

Crepus minthe

Pardie Roquefort
Hori amex ederra egin duk
Bena nik egin dudana ere
Orai enthun behar duk

Noula hi beno gaistouago beiniz
Ni orai presentian
Hartakoz amex egin diat
Izan nizala iferuian.

Estatu hartan nizalarik
Izatzarri izan nuk
Eta osoki espantaturik
Eni beitan ediretan nuk.

Eta orai par compareson
Nihaurek diat jujatzen
Hire amexa beno ederrago
Enia izan dadin pretenditzen.

<u>Mizan mintza</u>

Jaunak amex ederrak
Zien ustez egin dutuzu
Bena enia hobe dela
Bergisan jujatzen dut nik ere.

Imajinazione bat ukhen dut
Nik ere izpiritian
Ziek zinan deilla bat iferuian
Eta bestia pharadusian.

Noula beninzan ordian
gorez ~~eta~~ desesperatzeko phuntian
ogia ~~b~~ oro har eta
osorik jan ukhen nian.

Habe bat ezar xuti triate aitzinean. <u>Roqufort jaikirik</u>



alle fripon traidoria
Tour hori deikuya jokhatu
areta debria ezpaduk
Behar duk ourxa phakatu

Jaiki adi Crepus
Eta bertan prepara
Fripon hounen ezunen
axisetan ezartera.

Biak jaiki. <u>Mizan mintza</u>

alle pergut eskelia
Zer othe duk phenxatzen
ala hire desidiek
Naiula amenxo loxatzen

Ezarten dut orai berian
Ene ezpata eskian
Zien burien mouztera
Preparatzen niz mementian.

Bataille Crepus eta Roqufort. Ezkapa. Sone. <u>Mizan mintza</u>

Jente hounak banoua
aphur bat repasatzera
Ne harzara itzul artio
astonak jo zitzella.

Retira. Soné. Jalki Favieus, Tourdeban, Marcellus,
Neron eta Mustafa. 3 jar. <u>Mustafa mintza</u>.

Jaunak beha gitaye
Behar dugu egin konzertu
Zien egpiritu prezentatuz
Behar nahizu konxeillatu.

Dorleaus koki houra
Nahi nuke galerazi
Eue seme eta alhaba
Hain ounxa hareki.

Neron mintza

Bi hitzez mintzatzia
Perzeuti ezadazu orren
Eue absa sinhesten baduzu
Bihotza zaizu kountentaren.

Sehenik behar duzu hasi
Dorleauxen exekutatzen
Amourekati bestek
Hartan exemplu har dezen

Behar dizu orren harek
Sehenik arimetan igaran
Eta bestiak goure legialla
Interrogatu ter denboran.

Lege aphenus houra utzirik
Nahi ezpadu harta lehenekko legin
Phikian eta olioan
Behar dizie fiji erazi berhala

Marcellus mintza



Jaunak has beti orren
Projeta exekutatzen
Goure puisantzia hautatenaz
Hobeki da reuomaturen.

Eta mahomet goure jinkouaren
Probidentzia handia
Turki orotan dateke
Mundu orez admiratia

Tourdebran eta Fabiens
Zouazte presountegialla
Eta duke pretenditu houra
Ekharzu hate hountara.

Hate horekin gero
Behar da ounxa estekatu
Eta belarra behar derozie
Kolpu batez erdiratu

Tourdebran mintza

Sira bagreatzu orai
Zoure orden exekutatzera
Eta duke pretenditu harren
Setentzian ezartera.

Jouan biak presountegialla. Tourdebran mintza

Alla fripou insolenta
Egun behar duke phakatu
Bai eta mundu haur
Mementian kitatu

Jaiki adi jaiki
Haten houren estrenatzera
Bai etare hortan
Biziaren uztera

Massimisa presoutegi aitzinian.

Helas oren fatala
Eta oren tristia
Zuk permetitzen dutuzu
Oro Jinko photerexia.

adio ene espous maitia
Egun eta sekulakoz
Josefatiko baleian
Harzara ikhous artekoz.

Potak egin. Habiala eraman eta esteka. Faviens mintzo

Sira haur duzula
Dorleanx dakia
Estekatu ukhen dizugu
Zuk ordre eman bezala.

Berriz ere prest gutuzu
Zoure ordren exekutatzera
Eta tiro batez houni
Buriaren jauz eraztera

Faviensek thira kolpu bat. Dorleanx mintzo

O Jesus-Krist Jauna
Salbazale adorablia



Laidatu eta adoratu dela
Zoure izen saintia.

Helas ala beitut sofritzen
Orthian phena handia
Ene mereximent sogiruk
Delarik osoki chipia.

Hanitxetan Irritatu dit
Zoure kolera justoina
Bai etare ofensatu
Zoure majestate dibinoua.

Bena Jauna dolu dizut
Ene bihotzaren erditi
adoratzen zutut potentzia hountan
umilitate eta respektureki

Hate hountan boluntarioki
Heriona dit besarkatzen
allegranziazko transport batez
Ene bihotza delarik rejouitzen.

Gomendatzen dit ene arima
Jauna zoure eskietara
Halamoulu gomendatu beitzunien
Zuk zouri aita Eternaletara.

Marcellus mintzo

allo pipou hori
Erho ezazie bertan
Egin sofritzen dut hor
mintzatzen gisa hortan

Kruzifikatu izan den baten
ahal oroz adoratzen
Eta aldiz Mahomet
Goure Jinkoaren mesperetxatu.

Allo Jaunak arren
Prepara zitaye berhala
Eta oraiko kolpian tiza
Bihotzaren erdialla.

Favieus mintzo

Soza gogor hounez ere
Guk hori dizugu egiten
Horren hitzik eztizu
Segurki batoro entzunen.

Ihora bi kolpa. Hil. Neron mintzo

Hori diala Frangiako
Nazione maridikatia
Orai phuru badikek
aspaldian merexitu kolpia.

Mustafa mintzo.

Allo Jaunak gouazte
Harzara presontegiala
Eta han diren presounerak
Erak han goure aitzinial

Ekhar aitzinialla Claudieus eta Massinisa.

Mustafa mintzo

Claudieus eta Massinisa
mintzo zitaye berhala
Eya nahi ziraienez utzuli
Mahometen legiala.

Nahi badugie oraiere
Haren legial exerzatu
Suplizio krudelletarik
Izanen zitaye exemptatu.

Zointan ezpeitzitzaye
Bestella exemplatuzen
Bena bai phikian eta olioan
kuba batetan bizirik heraki luen.

Claudieus mintzo

O aita barbaro
Krudelitatez bethia
Eziagok Jinkoaren legiaz
Eta haren hitzez trufazalia

Ase adi arren orai
Goure odol inozentian
Zointan ihaurek eujenderaturik
Ezari beikutuk mundian.

Gu joaiten gutuk hil ondouan
Zeluko gloriaz gozatzera
Eta hi aldiz sekulakoz
Ifernian erratzera

Massinisa mintzo

o zeluko Jinko handia
Photére oroz konplitia
othoi egin ezaguzu
Bethiere grazia.

Persebera[t]zeko dona
Perkoza ezaguzu
zure miserikordie handiaz
othoi sokhorri gitzazu.

Eztezazula permeti Jauna
manka desagun deusetan
Bena othoi plaza gitzazu
Hil ~~ea~~ ondoan zelian.

<u>Mustafa mintzo</u>

Allo Tourdeban eta Flavieus
Burdunazko orraziaz haritzazie
Eta insolent horien khapitzak
krudelki gaztiga itzazie.

Bizia phena amenus
Eztizaziela espraiñi deusere
Egun truz beste oragiak
oro xehaka itzakezie.

Gero igarizen duzuzie
aphur bat presontegian
Beste bourgesa han aldiz
Bizirik lur pian.



Ires eta ezar presontegian. Himera taula petan ezar. <u>Mustafa mintzo</u>.

Jaunak ziek orai
Fatigatu zeitezkie
aphur bat retira eta
Repausatu behar duzie

Ororetira. Soné. Hila ehortz. <u>Himera tiate peti</u>.

Helas eztéia ofizian
Han tristezia handia
Persouna baten lur pian
Bizirik ehorztia!

ala beitut nik heben
Urrin gaistoua senditzen
Lurraren exaltazioniak
osoki nat suspreñitzen.

a ene sortzeko orena
oren eta memento tristia
ala bitzen dolouzous
Eskiurki ene zorthia.

o zeluko erregina
Perfekzione guziz bethia
Zouri suplikatzera ausartzen
Hartzen dit libertatia

Errendatzen dudanian izpiritia
Lur hounen bihotzian
othoi errezebi nezagun

Zoure gloria saintian.

<u>Lieu aingerua oihal boteki jalki eta mintzo</u>

Koraja zitaye orai
allagrantzia handirekilla
Jinkoaren ohoez houna niz
Ni zien konsolatzera

Zien khorpitzek plagak
Nahi deitzet xukatu
Eta zien min orotarik
Berdenboran sendotu.

Xuka plagak. <u>Lien mintzo</u>

Rekonpenxa eternala
Zelian duzie rezebituren
Dohatxiaz gloriaz
Beitzizadeie gozatuzen.

Retira Lien. Bestiak belharika. <u>Claudieus mintzo</u>

O zelietako glorious
Espiritu dohatxia
Ukhen kizugu merexi gabe
Zoure bisita saintia.

Bozemestiatzen zutugu Jesus
Egin deikuzun fabodaz
Eta partikularki aldiz
Ukhen dugu rebelazioniaz.



Zoure justiziazko begiak
Othoi zerora itzazu
Eta gloriazko begiez
Egitiarzunez ikhous gitzazu.

Dolorezko lekhu hountarik
Jalkiten garenian
Othoi rezebi gitzazu
Gloriazko zelian!

Jalki Favieus, Tounderan, Marcellus, Neron eta Mustafa. Jar eta <u>Mustafa mintzo</u>.

Jaunak behar duzie jouan
Berhala presounttegialla
Eta han diren presounerik
Erakharri goure aitzinialla.

Ekhar aitzinialla. <u>Mustafa mintzo</u>.

Ekiri Claudieus eta Massinisa
Seta haundi paria
Orai behar duzie deklaratu
Zien sendimentia.

Nahi bazirazei jarri
Haxarreko lege anziemian
Mahomet adora eta
Ordu hountan presentian.

<u>Massinisa mintzo</u>
Aita gouri deusere erraitia
Inuke ukhenen duzu

Sendimentu horietan zirena
Egin reusitzen duzu.

Egin ezazu plazer duzuna
Hoiek gutuzula hebe
Bizien galthera disposaturik
Idolak bortiz adora beno lehen.

Mustafa mintza

Ollo jaunak bertan
Kuba hori har ezazu
Eta gero egredientez
Onxa bethe ezazu

Behar zayo ezari phiku
olio ervegiña eta sofre.
Hourak oro algarreki
Ounxa herakierazi itzazu

Gero Claudieus eta Massimisa
Ezar itzazu Kuba hortan
Hain insolenki mintzatzia
Behar dolutu zaye aldi hountan.

Tourdeltan mintza

Sira prest gutuzu
Zoure ordenetan obeditzera
Eta guk eman odren
Bertan exekutatzera

Kutan ezar. Gabriel jin tapizen gaiña. mintza



Korajia zitaye Klaudieus
Bai eta Massimisa
Ni Jinkouak igorten nai
Zien abertitzera.

Orai zouazteie ziek
Thurmentien finitzera
Eta gloria eternalaren
Sekulakoz ekisitzera.

Laidoriozko kantikak
Haren ouhourekan khantatzazu
Thurmentien aisa suportatzek
Grazia ukhenen duzie.

Banoua ni horai hebenti
Jinkouaren othoitzera
Eta zien plaza indikatiaren
Sarriko adelatzera.

Ainguria zetira. +. Besteak khanta

adoratzen zutugu Jesus
Erregen erregia
Errege inmortala eta
Monarka intisiblia.

Berzisan zu ere Maria
Erregiña sakratia
Zoure trono ditinoun gainen
Izarrez khoronatia!

Soné. Phikader bat ezaz triatian.

<u>Claudieus Khantá</u>

adio orai sekulakoz
Mundu illusigarria
Urgillez eta Vanitatez
Plazer falxuz nahasia.

Etzait sekula ahatzeren
Jinkoaren presentzia
Aingerien eta Sainten
Egoitz xarmagarria.

<u>Mustafa mintzo</u>

Idok ezazie bertan
Celerat hori horti
Eta phikadei hountan gaitien
Buria moutz ounbati.

Ezin sofritzen dut habos
Koki horen insolentzia
Hartako behar zaio
Bertan edeki bizia.

<u>Favieus mintzo</u>

Sira
~~Si~~ bagouatzen arren
Zoure ordren exekutatzera
Bai eta Claudieusi
Bertan buruaren mouztera.

alle insolenta
Egun behar dik phakatu



Zoren ezpeitak naki
Mahomet goure jinkoua adoratu.

Eta bergisan hik ere
Libertina infamia
Etzain ez berantuzen
Mundu hounen kitatzia.

Claudieusi kubati idoki eta buria moutz. Massinisam.

O zelietako Jinko
Oro photerexia
Othoi nitaz beta ezazu
Zoure esku sakratia!

Ikhousten dit behar dudala
Egun mundia kitatu
Eta ene akzionetzaz
Khountu exato bat errendatu.

Bena Jauna justoua othoi
Nitzaz pietate ukhazu
Etsai gaistouen eskuti
othoi begira nezazu.

Zoure esku saintietara
Gomendatzen diteu arima
othoi errezebi ezazu
Joustouen kompaiñalla

orai jin massinisa. <u>Mustafa mintzo</u>

alle maradikatia
Ene eskerniagalia
Ene xangri eta pheneu
oren omentazalia.

allo jaunak aren
mouth egozie buria
Egin sofritzen dut haboro
Fripona horren insolentzia.

Tourdelran mintza

Sira zoure odria
Bertan dizugu exekutaturen
Horen insolentziek egteizie
Haboro phenarik emaiten.

Buria mouttza. Nerom mintza

allo jaunak orai
Gitian retira
Gouazan barnialat
aphur bat repausatzera.

Retira. Soni. Talki Richelieu, Chartres, Bourbon.

Richelieu mintza

O zelia zer da hau
Emazuzu zoure argia
Eta present giren orori
Soñiteko korajia.



Elas ala beita hau
Tradizione pare gabia
O aita ezinago krudel
Injustiziaz bethia.

Horen obol ingentian
Benjatu izan iz krudelki
Eta hire desein gaistoak
Oro konplitu segurki.

alla klaritate ederrak
Hoiek beitutu esklarizten
Sainta eta Sainta Lizabiella
Egtiegu behar dukarik ukhen.

Himera triate peti mintza.

Helas ala beita orthian
malerous ene zorthia.
othoi zuk sokhorri nezazu
Zeluko Sinko haudia.

Beua justo bata Jauna
Zuk permeti ezazu
Berriz izan ahal hadin
Surren gaiña agertu

Zerbait ispiraziones
Nountait ager ezazi izadazu
Saom justoua othoi
Ene galthoua entzun ezazu.

Chartres mintza

Alla gaiza terriblia
Hounek hai susprenitzen
Zounbait persounaren botza
Lur peti duten entzuten.

Jaunak degagun arren
Orai jakin bertan
Turkek ezarik ahal da
Nourbait bizirik lur pian.

Taula bat idoki eta harat. Charles mintza

Helas oithian anderia
Eta zu ere heben zirade
Ezkini zum ereta phenxatzen
Zoure heben edireitia.

Bena ahala deraz gaiñian
Jinkouaren boronthatia
Ziori jalki eite hounat
Eman ezadazu eskia

Idoki anderia. Himera mintza

Erremestiatzen zutut hanitx
Kabalier pare gabia
Eni phorru eman deitazu
Orai presentian bizia.

Charles mintza

Martir hoien ouhouretan
Degagun himno bat kanta



ahalaz debotki orok
Zeluko Jinkoua laida.

Zelietak aingurur
Perfekzione orez konplitiak
Egun zeleta itzazie
Zien suzturio phartiak.

Oro belharika Ainguriak ere jin. Khiristiak oro jalki. Belharika. Akturrek khanta.

O Lux beata Trinitas
Et principalis unitas
Jam sol recedit igneus
Infunde lumen cordibus.

Ainguriak

Te mane laudum carmine
Te deprecamur vespere
Te nostra suplex gloria
Per cunta laudet secula.

Akturrek

Deo patri sit gloria
Ejusque soli filio
Cum spiritu paraclito
Et nunc + in perpetuum.

Ainguriak retira. Jaiki. Richelieu mintza

Khorpitz justo hoyek
Ditzagun eraman hebeti
Donostiako elizan ehortz
Reberenzia handi zekin.

Hilak barna eraman eta berriz jin eta paseia eta geihenak jar. Jalki Julas Romeiñ eta Charles bere sueiteki. Ez jar. Richelieu mintza.

Orai heltzen gutuzun
Balentzouko Kanpañati
Gaüerako Konpaiña galdurik
Egin hanbat aflejiturik.

Hara heltu girenian
Saur errege zizgatza aitzinian jarri
Eta gero haien suitak
Unguratu gibeleti.

Bortxatu beikinen ordian
Kounbatitü izan gutuzu
Eta moyen hanz gük
Biziak konxerbatu tizugu.

Bena Claudieus, Dorleany eta Mass^a
Tarkek zitizie hatzaman
Sebieuz entasaboria aldiz
Hil izan duzu Kounbat hartan.

Julas mintza

Helas zer entzuten dut
alla berri tristia



Sinhexizen duta hil dela.
Claudieus Erregia.

Dorleany eta Massinuisa
Bergisan harzara
Helas eztela orthian
Haur dolore handia

Jaunak arren orano
Instruitu behar gutuzie
Eia zer gisaz hil diren
Othoi erran ezaguzie.

Charles mintza

Monseigneur orai arren
Jakin behar duzu
Errege malerous haiek
Ukhen tizie martirisatu.

Dorleany dukia dizie
Sehenik krudelki traitatu
Zointan bihotza eta buria
Bala kolpuz beteitze erbizatu.

Gero Claudieus eta Massinuisa
Phikian eta olioan frijierazi
Eta present den andere hau
Bizirik lur pian ezari.

Horieri oroen egitez
Ezpeitziren aski mendekatu

Claudiusi eta massinisari
Beriak ditzazu mouztu.

Sabeiñ mintzo

Helas egtiia oithian
Haur malour pare gabia
Noula sofritzen ahal duzu
Zelietako Sinko handia.

Jaun joustoua othoi
Zuk lagunt gitzazu
Eta zoure legiaren exaier
Benjatu nahi gutuzu.

Jaunak behar dugu arren
Turkiarat phartitu
Eta erregé malerous hourak
Oro sakrifikatu.

Charles mintzo

O aphezpezpu nōblia
Arrazou duzu sobera
Ezinago houn dugu
Zoure sentimentia.

Gitian arren prepara
asaut general baten emaitera
Eta nazione marabikatu haren
ororen gal erazitera.



Lucien zuk behar duzu
andere hau Kanterala lagunttu
Eta houna utzultzia
Lahurski delijentziatu.

Geroz jouan ahal gitian
oro algarrekilla
Turk malerous haien kounttre
Borthizki kombatitzera

Lucien mintzo

Sira bamouazu arren
andere houren laguntzera
utzuliren nuzu diligentki
othoi etzitiela debeia.

Soné. Lucien, Borbon, Himera utzia. Borbon jalki mintzo

allo jaunak orai
Gitian pharti berhala
Turk barbaro haien
Kountre kombatitzera.

Lucien mintzo

Hartzen dut orai danik
Ene ezpata eskian
Lehen arrakountratiaren
Degoillatzeko memention.

Paseia oro. Soné. Jalki turkak salbu majizierak.
Ez jar. Lucien mintzo

Ala pagano salboua
arrasta zitayo berhala
Eta bizien konserbatzeko
oro goure errenta.

Ezi orai eztukegie
Besti resoursarik
Izanen zirade urkhaturik
Edo su batetan errerik.

Zien insolentzia brutalek
orai behar die phakatu
Erre girardeie nian erhauxak
Nahi deitziet orai aizatu.

Favieus mintza

Hire deseiñaren komplizen
Ehiz izanen kapable
Khiristi armadak oro
Kounpaiñan bahutu ere.

Ale urgilluxia
Egin behar duk phakatu
Turkiako burretan sartzia
Behar zaik orai dolutu.

Bataila. Soni. Julas flesa. Lehitan ukhuza.

Julas mintza

O zeluko Jinkoua
Zuk othoi falori nezazu
Eta orai kruhel hoien garatzeko
Grazia egin ezadazu.



Zoure miserikordiari nizu
Bethiere hersatzen
Zoure pothere handian
Konfidanxa dudalarik ezarten.

Jaikirik Julas mintza

Allo jaunak koraje
Eta seriouski defenda
Barbaro hoiek ditzagun
Lardo eta degoilla.

Mustafa mintza

Goure degoillatzeko eztuk
aski zorotz ezpata
Ez eta aski handi
Besouetako indarra.

Belharikaturik lurrian
Ezpahiz umiliatzen
Eta Mahomet goure
Jinkoua adoratzen

Biziaren konxerbatzeko
Eztuk besti resoursarik
oro nahi zutiegu
Lahardeki bizirik.

Sabin mintza

alle pagano insolenta
Ingentziaz bethia

Jinkoaren grazia saintiaz
Eta beraraz abandonatia

Hire desein gaixtoak
Ez tutukek konplituren
Zeren Jinko egiazkoak
Ez peitorik permetituren

Haren legia biolaturik
ari behiz trufatzen
merexi dia phakia
Sarri duk hik ukhenen.

allo jaunak koraje
Ditzagun berriz konbati
Bizia phena graziarik
Ez egin bakhoitx bati.

Bataillla. Soné. Khiristiak ezkapa. Neron mintza

O zelia zer da haur
Plazer pare gabia
Eta Mahomet gure jinkoaren
Probidentzia handia.

Bai eta egun bethi
Bourregatik da interzedatzen
Zointan khiristien kontre
Orhixa beikutu fabōritzen.

Jaunak behar dugu orai
aphur bat retiratu
Eta rejouisanza marka tako
Retreta sonatu.



Retira. Soné. Sofista jalki. mintza

Clarissimi cirkules
Mondi eventus futuris
In fluxu totius orbis
Astrorum dominaciones.

Konprenitürik dira astrologian
12 hilabeten sinoak
Bai eta ere planeta izarrak
asteko zazpi egunetakoak

Noula neskatilak gizounak bezo
Kuriousago beitira
Haien sinoetarik bi hitzez
orai noua deklaratzera.

Ourtarrilan sorthu neskatilak
Handi eta afable dirateke
Hanitxi bere burziak
ouhaura eraziren dutie.

Baranthaillan sorthiak aldiz
Bira senhar hartüren die
Bena segount senharretarik
xangri zerbait ukhenen die

martxoan sorthiak jelosko
Eta desplazent izanen dirade

Hounki egiten zirkunstanziak
Haiek detestatuen dutie.

aphirilekouak aldiz
emouraz pazientzious dirate
Bere burien estima eragitez
Egitekouak erreglaturen dutie.

Mayatzian sortzen direnak
oro amoros dirate
Bena zoin p bere promesetan
Sintzero izanen dirade.

Bagilan arramaiatzekouak
eder eta mainagai dirate
abantailouski plazaturik
Prosperitate ukhenen die.

Uztailakoiez ere
Heintza nadin aitzina
Bere mereximentu arraraouez
Maithagarri izanen dira

agorrila sorthiak ere
Korajez handitako dirate
Seguretan eta gaiski tratazalen
Fabori izanen dirade.

Setemerekouak mithil gazteganik
arrakasto ukhenen die
Haietan sinheste hartzen dien gizon
Gaizki fondaturik dirhoe.



urrietan sorthiak aldiz
akis houner behaturen dirade
Bere projetak atenzionereki
Berthutouski zarsikuen dutie.

Azaroan sorthiak dirate
Izpiritu handitako
Haien ambizionia dateke
Superiouren susmis izateko.

abentukouak bezisan
Khantari ~~ere~~ eder dirate
Haien kontersioniak
Mundu orori plazer egiten die.

Ene diskours hasia
Segita dezadan aitzina
Bamona erai beste
artikulu batez mintzatzera.

Egunetko sinoniak ere
Nahi deitzut esplikatu
Behatzek atenzionia
Plazer d badezie hartu.

astelehenian sorthiak
memoria flaku dirateke
Inkonstant baitra loki
Eta hareki variable.

astehartekouak aldiz
oro dirate kolerik

Inganious eta gezurti
Bihotzak malezia betherik.

Astiagkenian sorthiak ere
Izanak dira elhekari abil
Haien gouen berri jakitia
Eztateke hanbat util.

ostegunekuak dira
Konxeillu hounik emaile
Diskrezione handizekin
abil pronus emanen konplizak.

ostiralian sorthiak aldiz
Generalki oro amoros
Bena mundu hountan ez bestian
Batere ez hetarik izous.

Plaza hountan present direnak
Hatorouak dira ostiralian sorthurik
Eta Venus izarraz jaz
amoros erraundatunik.

Bezpisan neskanegune kouak
Malenkounie eri dizate
Konfesionerik batere
Haick ihoureki eztukeie.

Igantian sorthu direnak
orotarik diferent dizate
familiar eta alegera
bai eta andere handiere.



Banoua Borai hebeti
Ene errepausiaren hartzera
Zuhur bazizaye zeik ere
Jouan zitaye pintouen edatera.

Afera. Sone. Jalki khiristiak oro salbu Himera.
Gehienak jar. Julas mintza.

Helas ezkiradia oithian
Estatu ezinago tristian
Zeren edireiten giradien
Barbaro haien esklabajian.

O Jinko egiazkoua
Zuk othoi fabori gitzazu
Barbaro horiek destruidizagun
othoi permeti ezazu.

Zoure protekzione handiaz
othoi protejar gitzazu
Zoure legiaren sustengatzera
Iseiatu nahi guntukezu.

Zoure grazianen haidura
Hasperenaz giandetzu
Justo bada goure galthoua
Jauna entzun ezazu

Refail ager. Bestiek telharika. Refail m.
Koraja adi Julas
Ehabila lora
Jinkouak entzun dik hareti
Zelialu hire botza.

Adresa gitaye bethi
Bihotzez hari fermoki
Behar dutizie hountarzunak
Zieki dizak sarri.

Ainguria retira. <u>Sabeiñ mintzo</u>

Remestiatzen zutugu
Jinkoaren mesajea
Jesus-Kristen botza eta
Zeliztako kompeta.

Alla boni edera
Guk beitugu regebitzen
Zoinek bihotza beiterit
Allagranziaz beztitzen.

Oro jaikirik. <u>Sabeiñ mintzo</u>

Allo jaunak koraje
Gitian bertan pharti
Eta gero kombati
Egin ahalaz borthizki.

Turk barbaro hourak
Behar dutugu ataki
Oro hatzamian eta
Bizirik laharteki.

<u>Baronius mintzo</u>

Bai Sabeiñ gitian
Orai berian pharti



Demborarik galdu gabe
Delijentzia handizki.

Turkiako lurretan
Behar dugu bertan sarthu
Eta Floridako hirian
Habitantak oro asiejatu.

Graziarik ez egin
Solamente bakhoitz bati
Arrakountzatu guzirk
Behar dutugu axisetan ezarri.

Pasein bat egin. <u>Sabeiñ mintzo</u>

Noun Mustafa jalkiadak
Pagano brutalitatez bethia
Hire konsortiki behar duk
Egun galdu bizia.

Gu jiten gutuk Europarik
Hiri houren asiesatzera
Eta berdenboran hire
Bizirik lauden kaltzera

Hire seme eta alhaben hiltziaz
Egun nahi gutuk benjatu
Egin dia akzione krudellaz
Izanen niz justoki punitu.

Jalki adi jalki
Goureki kombatitzera

Mundu houni adio erranik
Biziaren galtzera

Paseia. Soni. Turkak oro jalkitzen. Charles m.

Ahl barbaro saldoua
Orai behar duzie phakatu
Igaran batailak afrontiz
Nahi gitzaizie benjatu.

Kausatu deizkuzien desordriak
Ezpalintz tuzie arraparatzen
Nahi ez tuzien aizerik
Bertan duzie ikhousiren.

Resourzarik gabe
Garraizki duzie maradikaturen
Goure ezpaten ahouan
Oro zuliegu igaranen.

Romeinu mintza

Reparazionen egitia
Orano eztuk aski ukhen
Nourn eztuzien hain aitzina
Goure religionia exerjatzen.

Zien idolla falxiak
Behar dutuzie kitatu
Eta egiazko jinkoua
Jesus-Krist adoratu.

Edo zien odolak
Plaza hountan sakrifikatu
Eta arimak aldiz
Dehien abandonatu.



Neron mintza

Ahl phuta semia
Enperadore pretenditia
Ezun behar zaik dolutu
Goure insultatzera jitia.

Ouste duzeia harturen dugula
Zien Kristoren legia
Ounxa tronpatzen zirayé
Eskelu zamari athia.

Eni ezpata krudela
Hitan nahi diat odolstatu
Bai eta hire odolaz
Ezunko eguna markatu.

Ezpata hounez deziat
Sephoua trenkaturen
Suriallat ourthouki eta
Erziak oro izauriren.

Richelieu mintza

Ahl brutal izana
Brutalitatez bethia
Behar zaik orano dolutu
Gisa hortan mintzatzia

Hire insolenzia burtallez
Egun nahi nuk benjatu
Bai eta ene ezpata
Zure odolian tenpatu

Resoursarik gabe orai
Behar duzie pharkatu
Mundu hountarik bestialat
Mementian abiatu.

Zien khorphitz malerousen
Ifernian ehorztera
Eternitate orotan
Debrieki errabiera.

## Marcellus mintzo

Aranz biziak abandonaturik
Jin zirade houna
Mundu hountan debeiaturik
Herioaren xerkara.

Orai behar duzie hil
Resoursarik gabe
Zeren mintzo ziradeien bethi
Goure legiaren kountre.

Cello jaunak kouraje
Behar dugu konbatitu
Eta nazione gaisto haur
Bizirik lauden katu.



Sone. Bataillà. Neron blesa. Erditan
baza. Satanak Turken gibeliala
jalki. Sabeïn mintzo.

Mintza adi paganoua
Idolatre miserablia
Errak nahi dianez hartu
Orai goure legia.

Ikhousten duk hire idollek
abandonatu aiela
Faboritu izateko moyenik
Haie gatik eztiala.

Hartakoz hire lege falxia
Hobena duk kitaturik
Eta Jinko egiazkouaren
Grazian jarririk

## Satan mintzo

Neron ehadilla kantia
Sekula hire deseinetik
Khiristi horien erranetan
~~Et~~ Eztezala har konfidanxarik.

Jaiki adi mementian
Eta berriz konbati
Oraiko batallan nahi ait
Nik faboritu ginglanki

## Neron jaikirik

alle lharhote zamaria
aphezkupek pretenditin
Ezpata hounez nahi dirat
orai mouztu buria.

ouste ien kolpu hounegati
amenx loxatu nintzala
Edo ligez khanbiatzera
Deliberatuzen niella.

Ezuriok ezuru
Fierritatez bethia
aldi hountan behar duk
Phakatu eskotia.

mahomet ene jinko handia
Hiri nitzaik gomendatzen
Hire puisanzia handian
Konfidanxa dudalarik ezarten.

Khiristi horin konte
Fabori negak zinglanki
Eta victoria irabazirik
Treonfant idoki

Ainguriak jalki ezpateki. Gabriel mintza

alle bortal athia
orai behar duzie phakatu
Jinkouak zuen krimez
Nahi zutie punitu.

Batailla oro. Neron hil. Beste Turkak
oroz ezkapa. Gabriel mintza.



Ikhousi duzie khiristiak
Jinkouaren mirakuillia
Eta barbaro horietarik
Hil izan den nounbria.

Jouan zitzie orai hebeti
aphur bat erepausatzera
Eta sarri berriz utzul
Beste asaut baten emaitera.

soné. Retira ainguriak lehenik bestiak
ounorti. Satanak jalki. Satan mintza.

A zer plazera
Ezun dudan rezebitzen
Hire hebe ediziutiak
Enik hanbat tristetzen.

orai artio noko denboran
ounxa beraik zerbitxatu
Bergisan nik ere orai
Nahi ait rekonpenxatu

## aztarot mintza

o ho Neron erregia
Ene adiskide maitia
Etzaik ixousi izan behar
Ifernian erratzia.

Besoti Thiza. Satan mintzo

Bed diable ala hi sortha
Ni azkar izanagati
Eramaiteko phenaren handiz
Ehait heben itziren hargati.

Azkarot lot akio bertan
animal houni burruti
Eraman dezagu arteka
Ifernialat heben[t]i.

Azkarot mintzo

O zer plazera dudan
orai errezebitzen
allo arren mintian
Ni nitziozu lephoti lotzen.

Barnerat eraman arteko. Soni. Turkak jalki. Mustafa mintzo.

Badakizu orok generalian
Igaran bataillan galdu dugula
Hanitz damu eta desordre
Hantik rezebitzen dugula.

Ordian hil izan zen Neron
Lonbardiako errezia,
Bai eta hain aitzina
Haren sueita guzia



o khiristi maradikatiak
ziek naizu trouble eragiten
Eta ene korphitzeko odolak zainak
oro ikhara eragiten.

Zien debru nigromanziaz
Eta magia faboriz koureki
Nahiago zuntu kiit oro
azotatzen ikhousi.

Bena orai zeen arrakountruti
Nahi dut ene buria libratu
Ezpata hounez bihotza
Mementian erdirazatu.

Marcusullek bara eta mintzo

Sira eztuzia erran nahi
Eia zer duzun phenxatzen
Heriouna zihauzin buriari
Noulaz derozun presentatzen.

Bataila baten galtzeiak
gisa hortan zutia afligitu
Zoure ilobaren hiltzera
Nahi duzun dispozatu.

Zoure illoba hil izanagatik
Etzitila aflijit
Houra bezain genien handirik
Kounpartan baduzu zoureki.

Hartakoz arren Sira
Ukhen ezazu esparantxa
Khiristiak oro goithurik
Victorious izanen girella

Tourdeban mintza

Sira desplazer dit
Zoure afliksioniaz
presentian sofritzen duzun
xangri eta doloriaz

Azken batailaren galtziak
Hainbat trouble derizu kausatu
Bena bizitzen banitz
oro nahi zitit arraparatu.

Aztarotekin eta Satanekin
Egin ukhen dit konzertu
Eta khiristi arraza ororen
Galeraztera determinatu

Eztuzu sekula ikhousi
Oraino holako aitzerik
Noula ikhousiren beitu
Daigun batailan ureki.

Favieus mintza

Tourdeban hik baduk izpiritu
Dehier defendatzeko
Bai eta adreza
Khiristieki konbatitzeko.



Bena daigun batailan
Nahi ait nik ere lagunta
Khiristi arraza oro
Behar diagu sakrifikatu.

Jalki zitaye arren
Kanailla ez dena athia
Egun behar duzie
orok kitatu mundia.

Jaunak gitian pharti
Denborarik galdu gabe
Eta ditzagun sakrifika
Bakhoitz bat utzi gabe.

Soné. Paseia. Jalki khiristiak oro.

Marcellus mintza

alle kanailla saldoua
Behar duzie maradikatu
Bai eta mundu haur
mementian kitatu.

allo sakre diana
Loxaz ikhara zitaye
Eskusa gabe orai
orok hil behar duzie.

Ainguriak jin ezpateki. Batailla. Favieus hil. Mustafa blesa. Bestiak ezkapa. Soné. Mustafa erditan mintza

Sacreblleu zer da haur
Evrabiamentia
Nourat debru jouan zire
Koki fripon athia.

Uhzulhen ezpazizadiu
Fripou traidoriak
Horra jinik deihzeit
Jauz erazizun buriak.

Turkak jalki. Mustafa mintza

O Belzebut eta Jupiter
Mahomet eta Tabalgan
Othoi sokhorri nezazie
Behar ordu handi hountan

Rafael mintza

Hire jinko falxietarik
Ezlik ukhenen faborizik
Zeren haiek ezpeitie
Baten photerezik.

Jinko egiazkouak, dik
Zien sententzia pronontzatu
Bai etare sekulakoz
Oro maradikatu.

Ezta ez zientako
Orai beste resoursarik



oro nahi gutiegu
Kontatitu bestalik.

Batailla. Crepus eta Mizan hil. Erditan
bara. Roquefort blesa eta mintza.

Maradikatu dela orena
Bai eta mementoua
Khountat hountara jiteko
Goure phartitzekoua.

Bena gitian kountati
Biziak gal artio
Goure jinko handien grazian
Bethiere izatiko

Batailla. Turkak oro bederazka hil.
Soné. Lien mintza

Jinkouak bere graziaz
Faboritu ukhen gutie
Zeren barbarouen eskuti
Libratu beitzutie.

Hartakoz umilitateki
Eskerrak errenda itzazie
Victoria hounen ouhoinzetan
Kantika bat khanta ezazie

Charles mintza

o marradikatiak
Delbriez poseiditiak
Eta aspaldiko denboran
Su bazkha ordenatiak.

Jaunak ezar itzazie orai
Su batetarat erratzera
Gero konsumatu dizeneian
aiziari ourthoki erhautsa.

Salán Kanton batetarik mintza

Ezdiuk ezi horietan hire
Ikhoustekorik deusere
abillouan hortik paseiura
Khaka bezain merkhe

Horik oro sarri
Bilduren zitiat nik
Bai etare ezinen
Gero zinkha handirik.

Julas mintza

Jaunak dezagun orai
Biktoriozko himno bat khanta
Fabori ezin deikunaz
Jinkoua erremestia.

oro belharika khanta



Jesus Jaoun Justoua
Gizounen redentora
Zelu lurren kreazalia eta
Fidelen argi eternala.

aingueriek khanta

adoratzen zutugu Aita
Trinitateko jinkoua
Erregen erregia eta
Spiritu dibinoua.

akturuk

Jenti hounak exemplu
orai har ezazie
Inkredullak noula punitu diren
Orok ikhousten duzie.

Soné. Jaiki oro. Julas mintza.

Jaunak gitian orai
Hebeti retira
Dezagun har mementouan
Erromarako bidia.

Zu ere gero Charles
Jouanen zirade Franziarat
Zoure Erresoumako baron
Eta Kabalieretarat.

Retira aingeriak lehenik
gero bestiak. Soni. Satanak
jalki. Aztarot aizkora zorroz.
Satan mintza

oho mustafa har iza
ore lagun orozekilla
orai behar duzie orre
Ifernian algarrekilla.

Bena ezun houn aniz
Rekonpensaren emaitera
Ifernuko borthararen
orori zabaltzera.

Satanek taulla ibboki eta eman
aztaroti. Satan mintza

aztarot arauz orai
Lanak finitu zitiazu
aphun bat repausatzera
Labourski joan behar diazu.

Hantxe baduzu martxant bat
Eta hortxe ilhagin bat
Hantxe eihezgain eta taharnari
eli bat
Eta berriz hortxe sarjant eta notari
eli bat.



Hourak oro behar ditizugu
oraino interronpitu
Bai eta ahal baditzagu
Desespera eraztera iseiatu.

Hox arren bertan
orai haien ebizeitera
Eta erhauts bolant batetarik
orori emaitera.

orori bouha erhauxa jentu eta eztira.

---

Dernière Prologue

Erditan

Jinkouak gai houn deizuiela
Kounpaña ouhouratia.
Desiratzen deizüt orori
zeluko gloria saintia.

Ikhousi duzie genti hounak
Goure projeta finitzen
Zien atenzione hounetzaz
Oro zioziegu remestiatzen.

Berdenboran huxik ezin badugu
Haien gordatzez gomendatzen

Zonbat ere beitakigu.
Eztü gütla hala eginen

## Pasioa

Mistерio admirablerik
Representatü ükhen dugu
Eztakigu zien gogoak
ahal tügünez satisfatü.

Ikhousi tugu egun
Claudius etä Massimisa
Noula konbertitü izan diren
Jesus-Kristen legiala.

Idolatria kitatürik
Katolik ezendatü
Etä lege berritablian
Bere fediak foundatü.

Ikhousi derzie bere buriak
Noula dutien disposatü
Etä hain martirio kundellak
Dolorezouski besarkatü.

Helas nour lizatike egun
Hain berthuti azkarrik
Hainbeste thurmentüren artiti
Persebera lizouenik.



Ez oraiko gentia girade
Inkonstant etä berthuti flaku
Noiezpaiko Saintien izatia
Ezin imitatzen beitügu

Suplizio regrous haiek
Etzutzien hourak suspreniitzen
Jinkoagana zien amouriouak
Pazenziboa zutien errendatzen.

Dezagun har exemplu
Feit horietan gaizten
Etä sar goure baithanik
Reflekzione egiten.

Munduko hountarzunetarik
Desirak oro hurruntürik
Etä Jinkoaren graziaz
Bihotzak esklabitürik

Skriptüra Saintak deien
Konprenitzera emaiten
Bekhatore konbertitüren bihotza
Jinkoak haboro diela estimatzen.

Jinkoak anountzatü ükhen du
Bere Ebanjelio Saintian
aldiz haren diszipulik
Phredikatü munduan

Gitian arren isein
Egin ahalaren egitera
Eta instrukzione haun hoietarik
Profeitu idokitera.

Egin dutugun defautez
Ezkustuzie behar desfamatu
Zonbait hutx eginik ere
Konpanies girela konsideratu.

Ederki eman dugula
Erran ezazie bazter hoietan
Bergisan gere afixuzen gisa
Zein okasionia jiten denian.

Etzirade abere azturen
Goure hutxak publikaturik
Ez baru harez eztuzie
Idokiren profeiturik.

Edo balinbada ihour ere
Huxik egin eztien perfeitik
Goure falten errapaturatzera
Presenta bedi bertarik

Erditan

Harturik dudan libertatiaz
orai nitzaizie umiliatzen
osagarri eta bakia
Bertzenboran desiratzen



Inka pablerik dizziet
Komplimentu bat egiten
Zin plazer baduzie
Dantzara khumitatzen.

Zein zerbitzari niz
orai heben baratzen
Eta gai hounbat dizziet
Besterik hanitzeki desiratzen.

Akabantza





librairie scolaire
ARPAJOU
13, Place de la Cathédrale - BAYONNE

Cahier II (73-119)



## Barbera

Jente hunak, ikhussi duzie
Ene opérazionia
Nula sendo erazi dudan
Guizon blessatu hura.

Sangria beno hobe da
Orano labamentia
Zeren zaphoratzen beita
Barne kaurroumpitia.

Labamentiaren operazionia
Difficil da, populia
Zeren aisa beita kuntreko
Cilouaren atzamaïtia

Sustout neskatiler
Neke da aplicatzia
Zeren aïsa beita
Biez bat eguitia

Bizkitartian ausartago dira
Berak barbera beno
Hartakoz baratzen dira
Escoumpaturik guero.

Presouna bakhoitchak batu
Bederatzu zilo
Eta haïetan bat baïzik
Ez labamentiarentako.

Jende hunak erradazie guero
Gaitz denez troumpatzia
Ez ta ez mirakuillu ussu
Heltzen bada desordria.

Hanitch neskatilak
Ekharazten die barbera
Eta guero behar berek nahi
Duten lekhian chiringua.

Zoumbat malur ezda heltzen
Izanik ere barbera
Ikhussi dugu baratzen
Uzkin zilouan chiringua.

Eta guero hura
Emeki emeki hantzen
Bederatzu hilabeteren burian
Berriz operazione eguiten.

Zathi hunek iduri
du lekuz aldatua
Ez liteke gaizki
f. 77



Jente hunak horra
~~[illegible]~~ Nula aguitzen den
Abis gaistonagouak dira
Batzietan untsa phakatzen

( Erretira . Sonu. )

( Curriera jin zamariz, mintza lurreti. )

Curriera

Badeia ihur ere
Audientzia hortan
Ezi badit istoria franko
Paper eli batzutan

(Presidenta jalkhi. )

Presidenta

Ihhus itzak hunat
Era zer dioten
Pariseko berriak
Duda gabe heben.

Curriera

Gelos nuzu hatik
Othe direnez hantik
Huillanagotik ere
Berri charrak sendi tit

( Paperak har, curriera juan; Presidentak iracouri passeiuz ichilik, guero mintza.

Presidenta

Ago, milla debria
Heben duguia erreboilta
Baia emaztiak hassi
Senharrer phampaka.

Bada mira Barberak
Ezpeteit deus eran
Areta ikhussi dut
Orano egun goizan

Behar dut bai irakouri
Goure audientzian
Behar dugu libertitu
Arratsaldi huntan
(Erretira - Sonu.)
(Canico jalkhi)

Canico

Eztut beste berririk entzuten
Orai bazter orotan
Baizik nahi direla libertitu
Gure ouhouretan.
(Urhatsa khecha)

Ezar hemen p. 78-ko zathia →

→

→ Hemen ezar gaineko zathia, p. 75-76

"Curriera" – Zathi huneh ere
ialui du lekuz
aldatua. Ezar
bedi p. 84



Areta, mila debria
Phentsatzen dit nourk eran dian
Bena beldur niz bidajé bat
Enekin eguinen dian.

Banua behar dut orai
Mementian zédulatu
Baï eta sekulakoz
Presounteguian zerratu.

(Eretira. Sonu.)

→ (Curriera jin zamariz. Salhatan jalkhi)

Curriera

Jauna, lettera bat
Badit zouretako
Aski gomendaturik niz
Chuchen emaiteko.

Salhatan

Erremestiatzen zutut
Jauna zure phenaz
Zerbait importantzia
Hola diozunaz

(Salhatanek irakour lettera
passeiuz, guero mintza.)

"Canico" – Zathi hau guzia
hobeki loake gure
ustez p. 76
beherean
→



Salhatan

Zeren debru behar dut juan
Jugiaren aitziniala
gente gaisto da baçutan
Ikhustia sobera

Behar bezala ezpeitut
Ihun guezurrik eran
Ezpadie entzun nahi
Ezkie eguin behar.

(Erretira. Sonu.)

(Canico, jalkhi, passeia)

Canico

Ale debrien eguina
Holako cartiera
Berri kharreiazaliak
Bethi badirera.

Ala fortuna tristia
Betzait eni guerthatu
Orano ere behar dit
Tribulazionian sarthu.

Helas, thurmentu dut
Bethi lekhu orotan

Bat ezin supporta
Eta guero berritan.

Hurrari behera dienak ere
Zer nahi phentsatzen du
Hartakoz behar dit egura
Guezurriala khambiatu.

Behar dut abantzatu
Nihaurk abiatu
Aments publika dezen
Pleinta bat phaussatu.

Ikhussi gutien huak
Behar tit cedulatu
Berria barreia eztezen
Justiziaz creintatu.

Ordian guero hurak
Beldur beitiateke
Halaz ene uhuria
Gorderik dateke.

Eguiteko horrez
Behar dut orano contsultatu

Eta guero ahalaz
Fite zedulatu.

Ah! debru emazte gaichtua
Hik dun hori khausatu
lehenik olhuak behar eta
guero ahalkia passatu.

(Jalkhi Barbera eta Presidenta)

Presidenta

Behadi hunat, Canico
Horik zer jesto dutuk
Guizoun hoiek zer guisaz
Cedulatzen dutuk.

Quanico

Jauna, amourekatik
Shun eztitian mintza
Malerous horiek beitie
Bethi zerbait pleinta.

Barbera

Zer debru nahi duk hoïek
Eztie deus declaratu
Ala hik behar duk
Herria gobernatu.

Nahi baduk herria
Ichilik etcheki

goizetan behar duk
Orai beno goizago jeiki.

Canico

Bena nahi tit menazatu
Ichilik egoiteko
Kapable beitira solazaren
Aitzina phoussatzeko.

Presidenta

Bena debru ~~giz~~ guizona
Hori zer solas duk
Garbiki mintza adi
Gu ignorant gutuk.

Canico

Bazakit nihaurek
Zertaz mintzo nizan
Nahi tit etcheki
Amiñibat creintan.

Barbera

Zer creinta nahi duk hik
Herrian phoussatu
Hitzaz eztuk ihour
Izanen embrassatu.

Presidenta
Bena maradikatu guizona
Hik baduk zertaït goguan
Eztuk nahi ezari araber
Ignoranta justizian.

Canico
Bena beitakite nurbaïtek
Emaztiak ni jo naiala
Hartakoz nahi tit erakharri
Eztitian déclara.

Eta naski déja
Hassi beitie gueia
Nahi dit bara ditian
Ererik uztia.

Barbera
Ha, ha, ha!
Hori duk hori debria
Hiaourek beno hobeki eztik ihourk
Barreiaturen berria.

Presidenta
Heben oroh jakinik ere
Ezpeita harat heltia
Hiaurek sabanturik
Ezariren duk justizia

Barbera
Eta hori hala bada
Hiaureh eztahiha
Nuri nahi duh honez
Eratcheki kulpa.

Ichilik egon bahendi
Eta etcherat utzul horki
Hiaureh ezarizen duh
Salbra kharatsegui.

Canico
Eztiat batere acholik
Zer nahi beita den
Nahi dutut kreintatu
Ezteret pharkaturen.

Presidenta
Jaunak, haor duziela
Guizonnaren buria
Abil, abil, jouan adi
Eta libertienaz mundia.

Canico
Banna bertan halere
Demboraruk galdu gabe
Bihar zortziko
Zedulaturik beitira
(Quanico eretira)

→ Ezar hemen p. 77-78-etan utzi dugun zathia



Barbera
Guizon hura juan da
Urhatsa aski ussu
Alo Jaunak guk ere
Erretiratu behar dugu.

(Erretira)

(Uchera, présidenta, eta Lucien jalkhi, eta jar. - Guero Salhaban eta Canico jalkhi.)

Canico
Jinkouak egun houn deiziela
Kompaiña ohoragarria
Badakizie zer guisaz den
Gure bidajia.

Halaz chuchen jin niz
Hartu gunian orenian
Horra nun dudan kupablia
Ekharten neurekilan.

Ucherra
Jaunak behar dugu
Exemplia phaussatu
Eta calommia erailéak
Gaztelian zerratu.

Presidenta
Sitzagun biak entzun
Procesaren jujatzeko
Agueriko da defautian
Zouiñ diren aitzinago.

Lucien
Contzentziaren erditi
Eran ezadazu Salhatan
Ela ikhussi duzunez emazterik
Senharrari johan.

Salhatan
Jauna one arrazoua
Bethi guisa bat duzu
Ikhussi eztudanik eztit
Sekula dellarazaiti.

Lucien
Egnia eraïteko
Hala behar da Salhatan
Zeren erauntsi duzu Canico
Hounentako pleintakan.

Salhatan
Enetako lukezu bada
Jaun hau obligazionetan
Nik begairatu ezpanu
Emaztiak hilen beitzian.

Lucien

Egun zortzi jinen zira
Zoure emaztiareki Canico
Ordian badit zier
Bi hitz eraiteko.

Canico

Ene procesa hartan
Duzieya jujatu
Nahi dit Pauberat
Plainta déclaratu.

(Eretira berhala Canico)

Lucien

Jauna, ideh azu bethi
Ahalaz elhe guti
Eguiah ere ez ~~Hia~~ tizu
Eran behar bethi.

Erretira zite oraï
Nahi zirenian
Eta ez jin haboro
Discours horiehilan.

(Salhatan eretira, eta
besteah ere guero berhala. Sonu.)
(Satan jalkhi.)

Satan

Soicie, soicie, chorrotch hek
Neskatila haïen cota petan
Maradikaliak ezar itzetzie
Erkiak sahola horietan.

Zeren hor beitie zoumbait sos
Etchekoner ebatsirik
Uzku zilo horietan aldiz
Seiarditeko bat baizik.

Areta hura ere ez da
Segurki hambat curiousa
Churian balinbadie
Oihal gorriaren bouketa

Marichalak, bil ezazie
Bost liberako horietarik
Zeren ezpetzaizie biltzia permis
Erregueren figurarik.

Hourak oro biltzen tugu
Ifernuko maseko
Zeren ezari beitu
Frantzia troublaturik oro.

Jente hunak hori
Aïsa da kumprenitzeko
Ifernialat jiten zirenian
Han dutuzkezie oro.

(Retira)

(Justicia jalkhi eta sonu
Belchitin, Canico, jalkhi,
oro jar.)

Lucien

Erradazu anderia
Zuk kolpatu duzia jaun hori
Baï eta bizharrian
Erhatz guiderra hautsi?

Baï eta beste hanitch aldiz ere
Passokaz pipa hautsi
Holako plainta franko
Ekharri beitie eni.

Orai eradazu horiek
Eguiak direnez Belchitin
Eguiak balinbadira behar duzu
Gaztelian sarthu mementin.

Belchilin

Jauna, nik eztiot hori
Holako lanik eguin
Ichilik egoiten ahal duzu
Bere astokeriekin.

Canico

Eran hik enunduiana
Erhaltzaz jo ederki
Undarreko behor haren
Iratiaren gaiñeti.

Ehintzana hiaour jin
Bohorra harturik
Baïzik eta baztiala
Harek defaut handik

Ordian enunduignana ezarri
Odol gorriz betherik
Jenten ahalkez egon benintzan
Hiri sudurra hautse nahirik.

Hire esku idorrekin
Den gutienian passoka
Hireganatuz gueroz saholan diñat
Hoguei eta hamar gueren pipa.

Beste hanitch aldiz ere
Ahalke ezpanintz aïphatzia
Liburu bat eguin laiten
Gradnela bezaiñ handia.

Lucien

Guizuna, behar zunian
Zihaureh ere abisatu
Emazte gaichtouari
Ezta behar fidatu.

Presidenta

Ala proces drolia
Etziradeia ahalke
Hebeki hampo egoiteko
Zieh propiago zinesteke.

Zihaureh uduri feitak
Etchekiten dutuzie
Biak gaztelin sartzia
Merechi zunuhie.

Uchera

Sujet horeki etchian
Egoïten ahal zinaudian
Holakorik ezdugu rikhoussi
Orano audientzian.

Guizunak behar du bai izan
Arhi asto pourro
Emaztiaren arraçak
Guisa hortan joiteko.

Lucien

Zuazte fera foutre
Ene aïtzineti
Zireh etzirade hun
Alkharrehilanko beizi.

Ezi jiten bazirie
Haboro ene gana
Ziren bidajiak
Baduke zerbaït phena.

(Sonu)

(Eretira plaignantak, guero justizia.)
(Prautiak jelkhi bi aldetarik)

Juanes

Nula iz Guilento
Baduka ossagarririk
Nula deramak dembora
Ukheiten duka amoinarik

Guilento

Ene laguna tranhil bizi nuk
Eztirat arrankura handirik

Ene hunak ezin arranjeatuz
Eztiat embrasurik.

Ene etchiak, lurrak eta haboliak oro
Ezinago ountsa dutuk
Nik zer jan balimbadut
Ountsa baizik ezin izaten nuk.

Balimbadut zerbait bildurik
Alaguera nuk ordian
Pintu ardu zoumbait edaten diat
Sakolan diharu dudanian.

Bena orai jentiak gaichtotu dutuk
Eztie sinhesterik amoïnan
Yinkonak eman dizazièla eran eta
Uzten die prautia borthan.

Beste zoumbaitek eraïten die
Nourk inaïñ lio prauber emaitez
Ountsa eguinen duzie
Gu bezala tribaillatzez.

Beste zoumbait baduk karitatuschago
Artho bouchi bat emaiten die

Bena houra eman beno lehen pater eta Abemaria
Hamarretan eraneraztzen die.

Nouspaiko demboran ohart nuk
Aiphatzen banian Jinkouaren izena
Emazte chahar eli batek betzeitaden
Emaiten nahi niena.

Zumbat nahi merkhat egunez
Eguiten dudan oihu handirik
Bena orai dembora khambiatu duk
Ezin ukheiten diat tolosarik.

Erailen diat merkhatzaler
Emazie zerbait Jente hunak
Errecuntru gaichtouetarik
Beguira zitzela Jinkouak.

Eman dizaziela grazia
Etchilat iruski utzultzeko
Bena haborouak badouatzak
Deüs khunturik eguiteko.

Deus emaiten eztien haïer
Eraiten diat ene bihotzeti

Bizharra eta lephua hauts ditzatziela
Yalkhi gabe merkhatuti.

Segur da ene maradizioniak
Sartzen zaitzela zumbaiti
Ezi hilik edo kolpaturik
Merkhatu bide horietan baduk bethi.

Jinkonak beguira litzake
Eni amoïna eguin baleze
Bena taharnetan horditzeko
Dihariak beguiratzen tie.

Barneko malecia zaharrak
Aguertzen zitzeh orditu ondouan
Eta makhila khalduz hasten dira
Algarren kountre ordian.

Zihaurieh ikhusten duzie, jente hounak
Zombat malur heltzen den
Amoïna eni eguin gabez
Horrek oro dirade guerthatzen.

Juanes

Ountsa mintzatu iz, Guilento
Eguia handirik eran duk
Bena haregatik horietkan gaïnti
Zumbait caritatusik baduk.

Parropia hunez etzinuat eran
Heben jente hanik baduk
Biarnon eta Nafarrian beno
Milatan karitatusago dutuk.

Heltu nuk ni horietan gaïnti
Emazt'iak berak ziradianian
Sukhaldiala sar ondouan
galthatzen niana ukheiten benian.

Emaiten ditade lehenik
Beraïek artho buru ederrik
Hurak ukhen ondouan galthatzen diat
Chinkhor bat Jinkoaren amourekatik.

Hik balimbaduk beste haïñ beste
Janen tiagu algarrekin
Edo bestela jin adi
Botilla bat ardurekin.

Guilento

Nik ere ukhen diat bai
Hortcheko etche hortan
Chinkhor bat propirik
Mesturarekilan.

Eltze handi bat bazian
Bazkari dre guisala
Segur nuk jente horiek oro
Khumitaturik direla.

Nula su handi bat beitzen
Han ere diat chinkhorra
Aguian hura jatian
Ardona ukhenen niala.

Bazko biharamenareki
Etzukeia ez mirakuillu
Ukhenik ere hura jatian
Bizpahirur ~~ka~~ ardou colpu.

Juanes

Jente horietan bilduko duk bai
Zumbait bi arditeko
Eran ezek behar diala
Familiaren hazteko.

Guilento galtha

Gente hunak emadazie
Othoi zumbait sos lakhargno
Familia handi bat dit
Eta incomodatiak oro.

Eranen deitziet orazioniak
Hitz bat huts eguin gabe
Jinkonak lagunt zitzaten
Malurrik ukhen gabe.

Pater noster at beniat
Fiat bolont astua
Et ne nos inducas in tentacionen
Set libera nos à malo. Amen.

Ave Maria Domines tecon
Et interna imilieritus Amen.
Errequien donais domine
Loria patri sicut erat. amen.

Gente hunak ezdutela aren
Batere profeiturik
Ene familia handiarekin
Zer eguin behar dut nik.

Ene laguna eztiot
Ardit bat ere ukhen
Segur nuk ardu horen prepausa
Entzun diela erraiten.

Juanes

Ene laguna, Uharterat
Behar diagu phartitu
Pillartenian janen ~~diagu~~ diaigu
Deus ukheiten badugu.

(Eretiria. Sonu.)

(Hirur Satanak jelkhi, Satan eri, mithilek atchiki besso ondoetarik.)

Satan

Jaunak, erratiamentu bat
Badut bihotzian sarthurik
Ezin beitirot ukhen
Ihun errepausurik.

Jupiter

Sira, eritarzun horek
Behar dizu erremediatu
Latamentu bat berhala
Behar duzu hartu.

Bulgifer

Sira, Jupiterek dizu
Zure gaïtza ezagutu
Hartan gaiñen berhala
Eremedio~~tta~~a phentsatu

Uzhiaren uzhia baizik
Ezta beste izenik formatu
Hartakoz ajutaren hartzeko
Behar duzu pharatu.

Satan

Bai ene canouak bethi
Ehiratzen dik okher
Astalita guigna eta
Sudurra dik atzemaiten

Bulgifer

Jupiter, nik etchekiren diat
Erege besso ondoti
Hik aldiz eman ezok
Salda guibel aldeti.

(Eman labamentia).

Satan

Jaunak, ene gaïtzeti
Ajutak naï ideki

Phena hartu duziena
Phakaturen deiziet sarri.

Jupiter ezagutzen ait
Ezpirituz pénétrant
Erressoumako emperadore
Oraï izentatzen haut.

Jupiter

Sira, zure izentatzez ene
Emperadore erresumako
Countent dira mundu oro
Sarri benaïe ezagutuko.

(Erelira. Sonn.)

Belchitin

Zer ikhusten dut oraï ere
Heben haïmbeste jente
Aïzonak eta oro
Kargaturik hebe.

Gutzaz erri eguitera
Dirade baï bildu
Ala fortuna tristia
Behar dut baï desesperatu.

Ah! maradikatia hi!
Debru Salhatan handia
Zorigaichto zela hire
Gure etchian gerthatzia.

Hiri banjatu nahiz
Behar diat galdu bizia
Sekula eztuk cessaturen
Ene malezia.

Ah! bohor arrazak orok
Leher eguin balu
Sujet huren kausa
Ordian zen formatu.

Ah! maradikatu guizunak
Eza emaztiak sinhetsiko
Desseignian direnian
Gaizen beguiratzeko.

Hobe deia aren
Kampokonekin igortzia
Guero finitu denian
Etchian aharra emaitia.

→ Hemen Satanería erkas da.
Ikus azken paietan : p. 127-129



Ordian izanen dira
Emaztiak edale handi
Ezdu ez barrikak senditzen
Zoumbait arrusta gati.

Hobeki senditzen du bai
Zintzur luze horieki
Batzietan ezpeitira hountent
Bira pintareki.

Areba orano segur
Guero duk bai bihar
Eztukek hortarik Canico
Ere prochurik eguin behar

Bestela izanen duk
Orano sujet haboro
Ezteiat pharkaturen
Balira ere debriak oro.

( Eretira . Sonn )

Jupiter, Bulgifer, jalkhi

→

Hemen ere Satanería eskas.
Ikus p. 129 - 130



Canico jalkhi.

Ale canailla salduak
Khen zitie horti
Ziek beguiraturen zutiet
Ene lunetarik.

Nunti zer ikhusiren duzien
Zirie bai jiten
Harzara guero salhatzeko
Muthil gazte horier.

Areta mila debria
Ezpaniz zapartatzen
Solaz horien abiatzia
Zaizie doluturen.

Eniz gueldituren batere
Muienik dudano
Hatzemanen dut adichkide
Zien kountre orano.

( Erelira. )

( Hirur Satanak jelkhi )

( Prouliak jalkhi, hordiak )

Juanes

Jente hunak ~~et~~ ezluguia
Egun fortuna eguin
Emazte bedera baizik
Etzen etche bakhoichin

Ukhen lagunu bira tripa
Nahiago gunukian
Zeren eta haboro
Janen beikunian.

guilento
Emazte hourak ari ziren
Ichil askari eguiten
Nahi lugunak ukhen tugu
Ichilik egon guinten

Bere familiak zituztela
Errepublikaren banketian
Guero hek ere behar zutela
Eguin beren guisa etchian.

Othoi ez erraiteko
Berria ihuri ere
Hek bezala eguinen
guniala guk ere.

Juanes
Ezkie segurki arrishatzen
Erranen dugun ihun
Miserable emazliak
Fortuna eguin diagu egun.

Quilento
Ez, ene fedia, Juanes
Ezkie segurki merechi
Hek direla medio gutuk
Ountsa asserik eta ordi.

Gouazan taoula hartara
Lo bederaren eguitera
Guero juanen gutuk
Hantcheko ostatu hartara.

Juanes
Bai ene laguna
Orai asserik beihira
Lo egoiten ahal gutuk
Oren bat edo biga.

( Jar eta lo taulan gaiñen )

( Canico jalkhi eta taula hartziarekin mintza ; praubiak eror zankhoz gora.)

Canico

Uste duzieia taula hok
Dutudala zientako
Urde zirtzill zarak
Zorriz bethatzeko.

(Erelira Canico)

Guilento

Ale urde infame
Zezen buru tzuta
Gaula horen hartzeko
Beste maneriarik eztuka.

Juanes

Hire emaztiarentako
Izan bahintz horren fier
Debrien astapitona
Hobeki eguinen hien.

Zer uste duk ene laguna
Behar dugula eguin
Bersu bedera behar diogu
Khantatu alganekin.

Guilento

Bai bai ene laguna
Guitian has mementian

Emaztiak guizunaren
Joitiaren gaiñian.

Khanta :

Canico, guiza gaïzona
Zer zaian gerthatu
Emaztiak umen haï
Ederki zamphatu

Sonu.

Hori etsemplu huna duk
Amastako emazten
Ez ahal dire ukhenen
Achol handirik guizunen.

Sonu.

Bena behar bezala
Beita orotarik
Eztie ussu atzemanen
Hi bezaïñ guizun astorik.

Sonu

Khanta oraï Belchitinaren

Emazte mari martin
Colore berdia
Uste duna permis dela
Guizunaren joitra.

Sonu.

Hik merechi huke bai
Bizirik erratzia
Eta guero hire erhautsak
Aiziari urthukitzia.

Soinu.

Hire senharra ezlun hun
Jelkhitzeko borthara
Jenten ahalkez behar dia
Barnen egon lotara.

Soinu.

Bena hatzemaiten bahait
Eran den Belchitina
Galduren dun guizunari
Jokha hasteko mina.

Juanes

Guazen ene laguna
Pinta erdiaren edatera
Nik sei ardit badiat
Guazan ostatu hartara

guilento

Guazan ene laguna
Hamar ardit badiat nik ere
Ordian janen diagu
Sos baten oguia ere

(Erretira. Soinu.)

Azken Sataneriak

(109 - 119)



(Satanak jalkhi)

Satan

Jaunak eguin tit ene beithan
Ereflektzioniak serioushi
Zien soldaten phakatzeko
Diharuz jenerouski.

Dembora iragan horietako
Eman nahi deiziet ardit bat
Eta zerbutchaturen naizièla
Hebentik aitzina orobat.

Orai ez daiziet eman nahi
Gal dezazien beldurrez
Gero has beitzindaizte
Haourrak bezala niganez

Bulgifer

Bet diable, zer soldata
Bi mithilen phakatzeko
Ezkutuk gaichki izanen
Taharnetan ebilteko.

Hik nahi duzu Jupiter
Zerbutchatu Satan

Beldur nuk ezkian
Ardit bat ere sakolan.

Jupiter

Jauna ezkutuzu haboro
Enterteniituren gezurrez
Eta ikkherazu sakola
Batere baduzunez.

Satan

Ale ziraien bezalako
Empertinent charrak
Erregue bati erraiteko
Horik direia diskusak.

Ale infame paria
Ziek zertako zutiet
Sabre kolpu hunez
Buriak idoki nahi deitziet.

Bataïlla. Mithilak ezkapa.

Satan

Jente hunak tradizione bat
Behar dit eguin zieki.
Ziek eztuzie deusere
Ichilik egoitia baïzi.

Géant handi hura
Nahi nuke altzaman
Eta guero ezari
Ifernuaren zolan.

Hebeche behar dut
Lekhu bat preparatu
Eta pholbora meta bat
Guero barreiatu.

Guero composaturen dut
Behar den bezala
Hura huna deneko
Bere mailliarekila.

Lehen maillu kolpian
Beitu su jauz eraziren
Otso phutza bezala
Da zapartaturen.

Ni orai banua hebenti
Ez othoi aberti
Bestela erna eraziren zutiet
Oro elgarreki.

(Composa eta eretira)

(Fernagus jalkhi eta mintza)

Fernagus

Zeitera zirie kanailla saldua
Zer diskus dutuzie nitaz
Zuiñ ziradie hardita
Mintzatu ziradiana ene erhaïtiaz.

Ah! miserable ukhatiak
Zer phentsatzen duzie jitez huna
Mundu huntan egoïtez
Haiñ debeïatu zinandiena.

Solamente eni so eguileko
Bihotzak ikhara dutuzie
Lurrian barna funditzen zutiet
Khentzen ezpazizie.

Ezluzieia ikhusten zihaurek
Uñhuri eli bat zirie ene althian
Hartzen bazutiet aztaparretan
Ossorik iresten zutiet iztarrian.

maça ukhaldu eman.
thiro bat thira triate pian.
Fernagus eror hilik.
Satom jalkhi eta mintza.

Satan

Ah! zer plazera
Egun beitut ikhusten
Ene partida handia
Hilik edireiten.

Othian eztuka eran nahi
Nurk erho haïan
Uste nia etzela izanen
Hire parerik mundian

Hanitchetan lasterkatu naik
Hire mailla handiareki
Egun ifernuko kapitchale gelei
Nahi ait ezari
(Altcha amiñi bat)

Ale animal handia
Eta horen phezu intzana
Ago, ago, aïrian ezpada
Eramanen haït therresta.
(Thira amiñi bat.)

Nun dira oïthian
Oraï ene mithilak
Ni aldiz urraturik
Ezin eguinez lanak.
(Bi mithilak jalkhi.)

Bulgifer

Aiei eta zer da hau
Mustro ikharagarria
Eta nola phentsatzen duzu
Hunen eramaitia.

Ez, ez, enuzu beldur
Baguina ere azharrago
Ez eta jinik ere
Ifernuko debriak oro.

Abilua Jupiter
Bertan zotuka adi
Soka pare bat hunik
Ekharrak nuntiparti.

*Ekhar sokak*

~~[illegible]~~ Jupiter

Eguru Jaunak behar dugu
Zankhuetarik estekatu
Petraïlla bat bezala theresta
Guero eramanen dugu.

*Esteka eta thira*

Jupiter

Hots, hots, oraï Jaunak
Hrgnitzen dugu halere

Dugun eraman bertan
Phaussatzera utzi gabe.

Satanak jalkhi

~~Bulgifer~~

Jupiter

Orai behar diagu Bulgifer
Juk ountsa libertitu
Gure soldaten khostuz
Alageraki plazer hartu.

Diharu frango badiagu
Orai irabazirik
Eztiagu segurki
Gaiski izateko biderik.

Bulgifer

Bai hala duk Jupiter
Orai duk denoria
Beharko dik largatu
Bere multsa haundia.

Edo bestela ikhusi
Bera sarri utzulirik
Eztik ukhenen profeiturik
Zombait gezur phentsaturik.

( Satan jalkhi eta mintza )

Satan

Zer ikhusten dut nik
Edo ziek nur zirie ?
Baduzieia aire hunik
Ala ene mithilak zirie?

Enezaziela trubla erazi
Ene phentsamentian
Eta ene mithilak bazirie
Mintza zitie bertan.

Bulgifer

Ezkutuzia ezagutzen
Zure mithilak girela
Araouz buria nahasi zeizu
Ala aments hordi zira ?

Jupiter

Nabasiki utsutu zira
Edo zentzia galdu
Nahi duzia ene larga bichta
Hunez ikhusiren duzu

*Jeiki eta eman makhilaz*

Satan

Enuk orano utsu ez hordi
Ez eta galdu zentzia

Irakur: "Etchek ezak present hau"

"ezkiat" bat bada soberarik.

" Viens ici, Jupiter"

« cobard »

"Qu'est-ce qu'il ya à faire "

" Mon cher Bulgifer "

" Il faut que nous tuions "

"Que dis-tu foutu bougre

Grand pendard . . . .

"Déterminé à me tuer"



Etchek ezaz presentz hau
Fripu ahalke gabia.

Bulgifer

Hau hil gabe ezkiat nik ezkiat
Ukhenen derhantsurik
Alo, Jupiter, dezagun erho
Edo ezar laurdenkaturik.

Bataïlla. Jupiter ezkapa.

Bulgifer

Vient icy Jupiter
Uzten naika nihaur
Tu es un grand cobart
Ezpanaïk laguntzen gaur.

Jupiter au sortant

Jupiter

Quesquilia de faire
Moncher Bulgifer
Il faut que nous murrons
Le Roi de l'Enfer

Satan

Que dit-tu foutut bougre
Grand pendart Jupiter
Tu viens en colère
Determine deme tuer.

« Prends l'épée »

« Tu ne seras pas en vie »

Behaiñ = berhaiñ = berdin

houne ganik = hounen ganik



Bena hots oraï aren
Prend l'Epée à la main
Eta segurtatzen ait nik
Tu ne sera en vie demain.

Jupiter

Heben nuk oraï Bulgifer
Biziaren arichkatzeko
Nik phaussurik ukheitekoz
Behar diagu Satan erho.

Guero kankil gutukek
Passeiatzeko goure güisa
Behaiñ phakaturik houne ganik
Ezliikeiagu sekula.

Bulgifer

Zer phaku nahi duk
Ukhen dezagun houne ganik
Huneк ezlik besteik deusere
Guezur baïzik.

Satan

Ale pandanrt koki
Muthur ahalke gabiak
Oraï nahi deitziet
Bier idoki biziak.

(Bataïlla bi aldetarik mithilak. Satan ezkapa.)

Jupiter

Bulgifer, oraiko aldian
Garhaitu diagu Satan
Bena gure soldatak
Eraman tik berehilan.

Bulgifer

Oh! maradikatia hura
Ez duk gaichki trufatzen
Bena behar dik maradikatu
Ezpagutu phakatzen.

Jupiter

Adio, gente hounak
Gu bagoatza hebentik
Ziek ere jin zitié
Nahi bazide goureki.

Bulgifer

Gente hunak orai
Adio deiziegu eraiten
Eta plazer duzienak oro
Dantzala khumitatzen

(Fin de la Tragérie)

606

Fin du Cahier II

(A suivre)

Voir cahier III
(pp. 120 - 133)

Cahier appartenant
à P. Lafitte

## TABLE D'ADDITION

Le signe de l'Addition est : +

| | | |
|---|---|---|
| 1 et 1 font 2 | 4 et 1 font 5 | 7 et 1 font 8 |
| 1 — 2 — 3 | 4 — 2 — 6 | 7 — 2 — 9 |
| 1 — 3 — 4 | 4 — 3 — 7 | 7 — 3 — 10 |
| 1 — 4 — 5 | 4 — 4 — 8 | 7 — 4 — 11 |
| 1 — 5 — 6 | 4 — 5 — 9 | 7 — 5 — 12 |
| 1 — 6 — 7 | 4 — 6 — 10 | 7 — 6 — 13 |
| 1 — 7 — 8 | 4 — 7 — 11 | 7 — 7 — 14 |
| 1 — 8 — 9 | 4 — 8 — 12 | 7 — 8 — 15 |
| 1 — 9 — 10 | 4 — 9 — 13 | 7 — 9 — 16 |
| 1 — 10 — 11 | 4 — 10 — 14 | 7 — 10 — 17 |
| 2 et 1 font 3 | 5 et 1 font 6 | 8 et 1 font 9 |
| 2 — 2 — 4 | 5 — 2 — 7 | 8 — 2 — 10 |
| 2 — 3 — 5 | 5 — 3 — 8 | 8 — 3 — 11 |
| 2 — 4 — 6 | 5 — 4 — 9 | 8 — 4 — 12 |
| 2 — 5 — 7 | 5 — 5 — 10 | 8 — 5 — 13 |
| 2 — 6 — 8 | 5 — 6 — 11 | 8 — 6 — 14 |
| 2 — 7 — 9 | 5 — 7 — 12 | 8 — 7 — 15 |
| 2 — 8 — 10 | 5 — 8 — 13 | 8 — 8 — 16 |
| 2 — 9 — 11 | 5 — 9 — 14 | 8 — 9 — 17 |
| 2 — 10 — 12 | 5 — 10 — 15 | 8 — 10 — 18 |
| 3 et 1 font 4 | 6 et 1 font 7 | 9 et 1 font 10 |
| 3 — 2 — 5 | 6 — 2 — 8 | 9 — 2 — 11 |
| 3 — 3 — 6 | 6 — 3 — 9 | 9 — 3 — 12 |
| 3 — 4 — 7 | 6 — 4 — 10 | 9 — 4 — 13 |
| 3 — 5 — 8 | 6 — 5 — 11 | 9 — 5 — 14 |
| 3 — 6 — 9 | 6 — 6 — 12 | 9 — 6 — 15 |
| 3 — 7 — 10 | 6 — 7 — 13 | 9 — 7 — 16 |
| 3 — 8 — 11 | 6 — 8 — 14 | 9 — 8 — 17 |
| 3 — 9 — 12 | 6 — 9 — 15 | 9 — 9 — 18 |
| 3 — 10 — 13 | 6 — 10 — 16 | 9 — 10 — 19 |

## TABLE DE MULTIPLICATION

Le signe de la Multiplication est : ×

| | | |
|---|---|---|
| 1 fois 1 font 1 | 4 fois 1 font 4 | 7 fois 1 font 7 |
| 1 — 2 — 2 | 4 — 2 — 8 | 7 — 2 — 14 |
| 1 — 3 — 3 | 4 — 3 — 12 | 7 — 3 — 21 |
| 1 — 4 — 4 | 4 — 4 — 16 | 7 — 4 — 28 |
| 1 — 5 — 5 | 4 — 5 — 20 | 7 — 5 — 35 |
| 1 — 6 — 6 | 4 — 6 — 24 | 7 — 6 — 42 |
| 1 — 7 — 7 | 4 — 7 — 28 | 7 — 7 — 49 |
| 1 — 8 — 8 | 4 — 8 — 32 | 7 — 8 — 56 |
| 1 — 9 — 9 | 4 — 9 — 36 | 7 — 9 — 63 |
| 1 — 10 — 10 | 4 — 10 — 40 | 7 — 10 — 70 |
| 2 fois 1 font 2 | 5 fois 1 font 5 | 8 fois 1 font 8 |
| 2 — 2 — 4 | 5 — 2 — 10 | 8 — 2 — 16 |
| 2 — 3 — 6 | 5 — 3 — 15 | 8 — 3 — 24 |
| 2 — 4 — 8 | 5 — 4 — 20 | 8 — 4 — 32 |
| 2 — 5 — 10 | 5 — 5 — 25 | 8 — 5 — 40 |
| 2 — 6 — 12 | 5 — 6 — 30 | 8 — 6 — 48 |
| 2 — 7 — 14 | 5 — 7 — 35 | 8 — 7 — 56 |
| 2 — 8 — 16 | 5 — 8 — 40 | 8 — 8 — 64 |
| 2 — 9 — 18 | 5 — 9 — 45 | 8 — 9 — 72 |
| 2 — 10 — 20 | 5 — 10 — 50 | 8 — 10 — 80 |
| 3 fois 1 font 3 | 6 fois 1 font 6 | 9 fois 1 font 9 |
| 3 — 2 — 6 | 6 — 2 — 12 | 9 — 2 — 18 |
| 3 — 3 — 9 | 6 — 3 — 18 | 9 — 3 — 27 |
| 3 — 4 — 12 | 6 — 4 — 24 | 9 — 4 — 36 |
| 3 — 5 — 15 | 6 — 5 — 30 | 9 — 5 — 45 |
| 3 — 6 — 18 | 6 — 6 — 36 | 9 — 6 — 54 |
| 3 — 7 — 21 | 6 — 7 — 42 | 9 — 7 — 63 |
| 3 — 8 — 24 | 6 — 8 — 48 | 9 — 8 — 72 |
| 3 — 9 — 27 | 6 — 9 — 54 | 9 — 9 — 81 |
| 3 — 10 — 30 | 6 — 10 — 60 | 9 — 10 — 90 |

## TABLE DE SOUSTRACTION

Le signe de la Soustraction est : —

| | | |
|---|---|---|
| 1 de 2 reste 1 | 4 de 5 reste 1 | 7 de 8 reste 1 |
| 1 — 3 — 2 | 4 — 6 — 2 | 7 — 9 — 2 |
| 1 — 4 — 3 | 4 — 7 — 3 | 7 — 10 — 3 |
| 1 — 5 — 4 | 4 — 8 — 4 | 7 — 11 — 4 |
| 1 — 6 — 5 | 4 — 9 — 5 | 7 — 12 — 5 |
| 1 — 7 — 6 | 4 — 10 — 6 | 7 — 13 — 6 |
| 1 — 8 — 7 | 4 — 11 — 7 | 7 — 14 — 7 |
| 1 — 9 — 8 | 4 — 12 — 8 | 7 — 15 — 8 |
| 1 — 10 — 9 | 4 — 13 — 9 | 7 — 16 — 9 |
| 1 — 11 — 10 | 4 — 14 — 10 | 7 — 17 — 10 |
| 2 de 3 reste 1 | 5 de 6 reste 1 | 8 de 9 reste 1 |
| 2 — 4 — 2 | 5 — 7 — 2 | 8 — 10 — 2 |
| 2 — 5 — 3 | 5 — 8 — 3 | 8 — 11 — 3 |
| 2 — 6 — 4 | 5 — 9 — 4 | 8 — 12 — 4 |
| 2 — 7 — 5 | 5 — 10 — 5 | 8 — 13 — 5 |
| 2 — 8 — 6 | 5 — 11 — 6 | 8 — 14 — 6 |
| 2 — 9 — 7 | 5 — 12 — 7 | 8 — 15 — 7 |
| 2 — 10 — 8 | 5 — 13 — 8 | 8 — 16 — 8 |
| 2 — 11 — 9 | 5 — 14 — 9 | 8 — 17 — 9 |
| 2 — 12 — 10 | 5 — 15 — 10 | 8 — 18 — 10 |
| 3 de 4 reste 1 | 6 de 7 reste 1 | 9 de 10 reste 1 |
| 3 — 5 — 2 | 6 — 8 — 2 | 9 — 11 — 2 |
| 3 — 6 — 3 | 6 — 9 — 3 | 9 — 12 — 3 |
| 3 — 7 — 4 | 6 — 10 — 4 | 9 — 13 — 4 |
| 3 — 8 — 5 | 6 — 11 — 5 | 9 — 14 — 5 |
| 3 — 9 — 6 | 6 — 12 — 6 | 9 — 15 — 6 |
| 3 — 10 — 7 | 6 — 13 — 7 | 9 — 16 — 7 |
| 3 — 11 — 8 | 6 — 14 — 8 | 9 — 17 — 8 |
| 3 — 12 — 9 | 6 — 15 — 9 | 9 — 18 — 9 |
| 3 — 13 — 10 | 6 — 16 — 10 | 9 — 19 — 10 |

## TABLE DE DIVISION

Le signe de la Division est : :

| | | |
|---|---|---|
| 1 en 1 est 1 fois | 4 en 4 est 1 fois | 7 en 7 est 1 fois |
| 1 — 2 — 2 — | 4 — 8 — 2 — | 7 — 14 — 2 — |
| 1 — 3 — 3 — | 4 — 12 — 3 — | 7 — 21 — 3 — |
| 1 — 4 — 4 — | 4 — 16 — 4 — | 7 — 28 — 4 — |
| 1 — 5 — 5 — | 4 — 20 — 5 — | 7 — 35 — 5 — |
| 1 — 6 — 6 — | 4 — 24 — 6 — | 7 — 42 — 6 — |
| 1 — 7 — 7 — | 4 — 28 — 7 — | 7 — 49 — 7 — |
| 1 — 8 — 8 — | 4 — 32 — 8 — | 7 — 56 — 8 — |
| 1 — 9 — 9 — | 4 — 36 — 9 — | 7 — 63 — 9 — |
| 1 — 10 — 10 — | 4 — 40 — 10 — | 7 — 70 — 10 — |
| 2 en 2 est 1 fois | 5 en 5 est 1 fois | 8 en 8 est 1 fois |
| 2 — 4 — 2 — | 5 — 10 — 2 — | 8 — 16 — 2 — |
| 2 — 6 — 3 — | 5 — 15 — 3 — | 8 — 24 — 3 — |
| 2 — 8 — 4 — | 5 — 20 — 4 — | 8 — 32 — 4 — |
| 2 — 10 — 5 — | 5 — 25 — 5 — | 8 — 40 — 5 — |
| 2 — 12 — 6 — | 5 — 30 — 6 — | 8 — 48 — 6 — |
| 2 — 14 — 7 — | 5 — 35 — 7 — | 8 — 56 — 7 — |
| 2 — 16 — 8 — | 5 — 40 — 8 — | 8 — 64 — 8 — |
| 2 — 18 — 9 — | 5 — 45 — 9 — | 8 — 72 — 9 — |
| 2 — 20 — 10 — | 5 — 50 — 10 — | 8 — 80 — 10 — |
| 3 en 3 est 1 fois | 6 en 6 est 1 fois | 9 en 9 est 1 fois |
| 3 — 6 — 2 — | 6 — 12 — 2 — | 9 — 18 — 2 — |
| 3 — 9 — 3 — | 6 — 18 — 3 — | 9 — 27 — 3 — |
| 3 — 12 — 4 — | 6 — 24 — 4 — | 9 — 36 — 4 — |
| 3 — 15 — 5 — | 6 — 30 — 5 — | 9 — 45 — 5 — |
| 3 — 18 — 6 — | 6 — 36 — 6 — | 9 — 54 — 6 — |
| 3 — 21 — 7 — | 6 — 42 — 7 — | 9 — 63 — 7 — |
| 3 — 24 — 8 — | 6 — 48 — 8 — | 9 — 72 — 8 — |
| 3 — 27 — 9 — | 6 — 54 — 9 — | 9 — 81 — 9 — |
| 3 — 30 — 10 — | 6 — 60 — 10 — | 9 — 90 — 10 — |